

”Linguae Vasconum Primitiae”-ren peritestualitateaz eta euskararen gramatizazioaren primiziaz

Aurélie Arcocha-Scarcia

► **To cite this version:**

Aurélie Arcocha-Scarcia. ”Linguae Vasconum Primitiae”-ren peritestualitateaz eta euskararen gramatizazioaren primiziaz. ASJU, 2011, pp.1-68. <artxibo-00799887>

HAL Id: artxibo-00799887

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00799887>

Submitted on 12 Mar 2013

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L’archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d’enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE-REN
PERITESTUALITATEAZ ETA EUSKARAREN
GRAMATIZAZIOAREN PRIMIZIAZ*

A. Arcocha-Scarcia

Michel de Montaigne-Bordeaux3 Unibertsitatea - IKER-UMR 5478

Abstract

*This article focuses on the epitextual and material elements of *Linguae Vasconum Primitiae* (Bordeaux 1545). By means of a new methodological reading of the first book printed in Basque, the paper aims to make the book «speak». On the basis of Genette's definition of epitext, it analyses the elements on the title-page, the dedicatory epistle in prose, the «Advertant» or warning about linguistic rules, the final sentence or colophon, the typographic Roman characters and the punctuation. Furthermore, the coat of arms on the contemporary leather cover indicates that the book might have been kept for some time in the library of Louis I of Bourbon, prince of Condé, who was Jeanne d'Albret's brother-in-law and the Calvinists' military leader. Therefore, the epitextual and material analysis confirms that LVP was printed in the mid-16th-century atmosphere of the humanists of Bordeaux and Aquitaine, and it is more than likely that educated Basques, in order to achieve that goal, might have begun to think about the grammatisation of the Basque language before 1545. LVP's author Bernard Echepare dedicated the book to Bernard Lehet (Lahet), lawyer of the parliament of Bordeaux and great lover of music and poetry, although it is not known to what extent Lehet was involved in the printing process of the book. In order to have a better grasp of the circumstances in which LVP was born, it can be said that of the different kinds of poetic texts in the book (love poems, autobiographic accounts, metalinguistic texts) it is the religious ones that better demonstrate Echepare's ideological position. According to these, the author would have been close to the Erasmian attitude of the beginning of the 16th century, and the religious poetry discourse of LVP would be the first printed «Christian Doctrine» written in Basque language. LVP has been recently digitalised by the «Bibliothèque nationale de France» and can be read online at the following address: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b8609513p.r=Linguae+Vasconum.langEN>*


* Eskerrak Joseba Lakarrari artikulu hau berrirakurririk, eta honen agertzean hartu duen artagatik.

Linguae Vasconum Primitiae-ren (LVP) testuinguruaren anakronismorik¹ gabe ulertzeko, XVI. mendearen lehen erdiko Europa gogoan behar da izan. Frantzian, frantsesak kultura-hizkuntza estatutua irabazia du xv. mende bukaeran (Cerquiglini 2004: 51).² Hain zuzen, «Humanisten Frantzian» 1511 eta 1525 artean «iraultza kulturala» gertatzen da (Preisig 2004: 44) Erasmoren, Budéren, Luther-en, Lefèvre-d'Étaples-en lan eta itzulpenen Parisen argitaratzeekin. 1529an, Parisen Geoffroy Tory inprimatzaile humanistak *Champ Fleury* agertzen duelarik, frantsesaren defentsa inprimatzearen bitartez egiten du baitaki teknologia berriari esker ortografia eta gramatikaren normalizazioen finkatzen ari dela eta frantsesak normak behar dituela latinak eta grekerak dituzten bezala. Teknikak dio frantsesari fabore handiena egiten. Tory inprimatzaileak ongi ulertua du teknika dela kultur-prestigioaren agente nagusia. Inprimatze-prentsen bitartez frantsesaren estatutua finkatzen da, kode baten beharra agertzen da.³ Hain zuzen, XVI. mendeko lehen hamarkadetan Erasmo eta harekin Europa guzian harremanetan diren humanistek beren latinezko panfletoak, gutuneriak, Antzinateko eta Elizako doktoreen edizio berriak, hizkuntza zaharren gramatikak, itzulpenak, inprentari esker dituzte modu eragin-

¹ Anakronismo historikoaz ikus Febvre (1942) eta bereziki bertan D. Crouzetin Postfazioa «Rabelais et son double: l'historien en synergie».

² Ikus Cerquiglini (2004: 51): «(...) un discours neuf se fait entendre dans la génération des intellectuels nés aux alentours de 1450: celui de l'éminente dignité de la langue française. Ce qu'avaient illustré les œuvres littéraires par leur vigueur, et la graphie par son apparat, est maintenant clairement énoncé; Jean Lemaistre, Claude de Seyssel, Christophe de Longueil, etc. plaident aux alentours de 1500 une cause qui est déjà gagnée: le français devenu langue de culture. À l'efflorescence renaissante, chantée par Gargantua dans sa *Lettre*: «Tout le monde est plein de gens savants, de précepteurs très doctes, de librairies très amples» (*Pantagruel*, chap. VIII), l'épanouissement du français eut sa part. De cette montée en puissance de la langue vulgaire, commencée avant le siècle, maintenant formulée et louée, les causes sont diverses et connues. Ascendant italien: sans remonter à Dante, la dignité des langues vulgaires est une idée reçue dans l'Italie du xv^e siècle. Progrès des sciences: celles-ci (en particulier la chirurgie, menée par des hommes qui n'ont pas fait d'études supérieures et ignorent le latin) requièrent un accroissement en vocabulaire et impliquent une réflexion en français. Un certain sentiment national, que renforcent les guerres extérieures et l'influence unificatrice de la royauté, laquelle joint la langue à ses attributs et prérogatives (ordonnance de Villers-Cotterêts, 15 août 1539). Innovations spirituelles: l'évangélisme, puis le calvinisme militent pour une universalité réelle de la Parole divine, mission que seules les langues vulgaires peuvent remplir».

³ Ikus Cerquiglini (2004: 52): «... la presse, si elle est au service également du latin, répand la production française, conforte la langue et authentifie son statut. Animée par des professionnels de grand savoir acquis à l'humanisme comme à l'innovation religieuse, latinistes fervents mais amoureux des langues vulgaires, lesquelles témoignent de l'admirable diversité de la Création, familiers des écrivains, militants d'une culture laïque dont ils revendiquent la responsabilité, l'imprimerie est au carrefour de ce qui va porter en avant la langue française: l'Humanisme, la Réforme, les Lettres. Et de ce qui va susciter la première réflexion à son sujet, et le premier désir de normalisation. Le propos est à la fois moral et technique. Pour ces humanistes, lecteurs du grec, restaurateurs d'une latinité exacte, il est évident que sans la constitution de règles, voire l'établissement d'une grammaire, le français ne pourra acquérir la stabilité monumentale qui fait la grandeur des langues classiques. Pour ces imprimeurs, qui éditent avec soin, probité et élégance les textes anciens dont ils corrigent la langue, l'écriture gothique appartient au passé. Calligraphie mal lisible, elle est un obstacle; graphie surchargée, elle est inutile. À cet égard, l'introduction conjoint en France, autour de 1530, de deux innovations humanistes italiennes (les caractères «romains» et «italiques», très lisibles, et l'habitude, due à l'imprimeur vénitien Manuce, d'accentuer les textes latins) constitue une étape importante dans la fixation de l'orthographe française».



Champ Fleury (1529). *Linguae Vasconum Primitiae* 1545 (Urquijo 1933)

korrean eta laster hedatzen. Inprimatzaile garrantzitsuenak berak humanistak dira, Venezian 1494 eta 1515 urteen artean 150 liburu inprimatzen dituen Aldo Manucio; Basileon Amerbach, Froben edo Bade; Parisen Estiennetarrak eta Tory; Gryphe Lyonon (Blasselle 1998: 70-75). Inprimatzearen garrantzia handia izanen da sozialki erreformaren ideiak liburu inprimatuei esker zabaltzen baitira. XVI. mendearen lehen erdian, denbora guti barne inprimatzaile ofizioa gero eta kontrolatuagoa izanen da eta Europa guzian inprimatzearen kontrako errepresioa handituko. Bi urtemuga aipa daitezke: 1534 François I.aren erreinupean gertatzen den *L’Affaire des placards*-ekin eta 1558 Paulo IV aitasainduak zabaltzen duen lehen *Index librorum prohibitorum*-ekin.

Erreformaren ideiak dituen eta Margarita Nafarroakoak gerizatuko duen Marot poetaren lekua arras berezia izanen da garai gatazkatsu horietan. Clément Marot, «poeten printzea» deitu François I.aren *valet de chambre* («errege-mutila») denak, Parisen Tory inprimatzaile humanistaren prentsetan argitaratzen duen *L’Adolescence clémentine* (1533) poesia liburuak, leku garrantzitsua hartzen du garai haietako sorkuntzako testuetan. Tradizioko ildo berezi bat, Ertaro berantean frantsesez Villonek errepresentatzen duena, eraberritzen du Marot-ek bere «ni» poetikoa *L’Adolescence*-ko corpusean taulagainean ezarri, eta bereziki paratestuen bitartez, bere generazioko poetekin solasaldia sortuz (Preisig 2004: 49-51).

Frantziako erreinuko herri-hizkuntzetan —frantses herri-hizkuntzatik kanpo— arras titulu inprimatu guti kontserbatu dira (Gardy 2005: 226). Testuinguru horretan, eta gauzak horrela, Frantziako eta Europako XVI. mendeko lehen erdian herri-hizkuntzetan inprimatzen diren testuen estatusaren eta historiaren ikertzeko, *a fortiori* inportantea da *LVP*-ek uzten duen lekukotasuna. Herri-hizkuntzetan poesia bezalako sorkuntza-lanen inprimatzea bultzatzen dutenak inprimatzaile humanistak dira. Humanistak kultur agenteak direla ulertu behar da eta frantsesaren alde diren zirkulu intelektualetan aurki daitezkeela, beste Frantziako erreinuko herri-hizkuntzen alde direnak ere. Joseph Scaliger (1540-1609) humanistak jarrera hori ongi errepresentatzen du Frantziako mapa plurilinguistikoaren deskribapena egiten duelarik frantsesaren eta okzitanoaren aldaerak aipatuz, bai eta bretoiera eta euskara ere (Cohen 2005: 10). Modu horretan ulertzen da *LVP* XVI. mendeko lehen erdiko Frantziari lotu behar dela. Autorea, Etxepare, «Nafarroa Berrikoa» (Robert Lafon) delarik, prezeski François I.aren arreba den Margarita Nafarroakoa eta Henri II errege-erreginen erreinuko subdtoa. Eta, hain zuzen, Etxepare bera mintzo zaigu *LVP*-en frantses herri-hizkuntzak duen prestigio kulturalaz *Contrapas*-ean, aipatzen duen herri-hizkuntza bakarra *frantsesa* baita.⁴

Frantsesaren estatus kulturalaren eraikitze eta sustatzean inprimatze ekintza delarik gakoa, berdin *LVP* inprimatzea izanen da gakoa hizkuntz estatusaren ulertzeko: *LVP*, bere materialitatean «mintzo» zaigu bere inprimatze-ekintzaz. Beraz, XVI. mendearen lehen erdian, Akitanian, irits zitezkeen uhain modernoan «oihar-tzun leku» da *LVP*. Eta ondorioz ez da batere «akronikoa» idatzi izan den bezala (Juaristi 1987); ez zitezkeen idatz obra, hori, beraz «mende bat edo bi mende lehe-

⁴ Ik. «Eceyn ere lengoageric / Ez francesa ez berkeric / Oray ezta erideyten / Heuscararen pareric» («*Contrapas*» in *LVP*).

nago”.⁵ Akroniaren ideia hori, hain zuzen *LVP* Ernazimenduko modernitatetik bazter den obra dela, oraindik bizi da XXI. mende hastapeneko euskal literatura historiografietan (Salaberri 2002, Aldekoa 2004, 2008). Iritzi horren kontra doa hain zuzen, eta arrazoi guziarekin ene ustez, B. Oyharçabal (2008) dioelarik horren erroa K. Mitxelena zuela hedatu 1960an,⁶ jarrera hori errepikatzen delarik geroztik euskal literaturaren historietan:

Etxepare Erdi-Aroko autore gisa hartzeko ideiak, Mitxelena plazaratu ondoan, arrakasta handia izan zuen, eta Hegoaldean ondoko hamarkadetan egin diren literatura historia liburu gehienetan errepikatua izan da, autore gutik, berriki arte bederen, funski auzitan jarri gabe (...). Etxepareren obraren erdi-arokotasuna, hizkuntza eta inprimatzearen gaiari zegokionean izan ezik, agerikoa baino agerikoagoa izan balitz bezala (2008: 497).

Ez da ahaztu behar ikuspegi horri Etxepareren amodio poesien “lizunkeria” zartatu izan zaiola. Beste ideia hau Oihenarten “l’honnête homme”-en *L’Art Poétique basque* (1665) eskuizkribuan aurkituko da lehen aldiz, baina iturri hau 1967 arte ez da jakinen⁷ testua bukatu eta publikatu gabe gelditu zelako. Ordea, iritzia hor zen Etxepareren lanaren 1847ko berrinprimatzearen garaian (edizioa: Brunet; frantsesezko itzulpena: Archu): “Emazten fauore”-ren bi kopia ez ziren itzuli “gordinegiak” zirelako. F. Michelek ere *Le Pays Basque*-n dio Etxeparez “Il avait bien aussi brûlé quelque peu d’encens sur l’autel de l’Amour; mais l’aveu qu’il nous en fait doit nous rendre indulgent pour un péché vraisemblablement de jeunesse” (1857: 444). Vinsonek (1891: 3) seinatzen du itzuli dituela Brunet-Archu edizioan zentsuratu koplak, komentatuz pasan, 1847ko edizioa ez dela ona testua “zuzendu” zelako (“on a ‘corrigé’ le vieux texte”) eta Archuren itzultzaile lana ez zelako zehatza (“Les traductions ne sont pas rigoureuses”). Vinsonek berak beste *LVP*-ren edizio bat agertzen du 1873an, P. Cazals-en hitzurrearekin; Etxepareren amodiozko poesiez duen ikuspegiaren XIX. mendeko ohiko moral burgesaren ispilua ikus dezakegu bertan:

... mais on ne sait sur notre Bernard que ce qu’il dit de lui-même, et c’est bien peu de chose, dans son livre. Nous y voyons que c’était un bon catholique très orthodoxe, mais aussi joyeux vivant, un de ces prêtres grands amis de la table et surtout des femmes, dont les allures scandalisaient si fort de Lancre en 1609, auxquels Axular reprochait tant en 1643 d’oublier le sixième commandement de Dieu, et que l’évêque Fouquet s’attacha à réformer de 1617 à 1643 (Vinson 1891: 2-3).

Lafitteren lumapean (1931) ideiak bere bidea egiten du eta ikusten dugu gero nola Etxaideren lumapean (1958) gorpuzten den, guziz anakronikoa den konparaketa baten bidez: Etxeparek baduela XIV. mendeko Hitako Arziprestearen *Libro de*

⁵ J. Juaristik dioelarik Etxepareren liburuak ondoko mendeetan “endemikoa” bilakatuko den “akronia” agertzen duela ez naiz, argi da, batere akort: “...prefigura una acronia que sera endémica en la literatura vasca de los siglos posteriores» gehituz “podría muy bien haber sido escrita uno o dos siglos atrás” (Juaristi 1987: 37). Ikus B. Oyharçabal (2008).

⁶ Ik. K. Mitxelena (1960): “... no hay nada en su obra [Etxepareren obrak ari da], salvo el entusiasmo por la imprenta de la que esperaba —si se han de tomar sus palabras al pie de la letra— que pusiera a la lengua vasca por encima de todas las demás, que sea propio de un hombre del Renacimiento. En realidad, se piensa en un autor medieval. El paralelo con Juan Ruiz resulta obvio” (Mitxelena [1960] 1988: 50). Harritzeko da nola inprentaren rola minimizatzen duen, ohartu gabe hor dagoela *LVP*-ren modernitatearen giltza.

⁷ Lafittek eskuizkribu horren lehen transkripzioa 1967an du editatzen.

Buen Amor-ekin antzekotasuna. Funtsik ez duen ideia hori —Hitaren liburua irakurri duenak laster ikusten baitu ez dutela bi autoreen lanek deus ikustekorik— Mitxelena (1960) eta haren ondotik beste anitzek, errepikatuko dute. Halere, azpimarratzekoa da L. Akesolok 1968an, agertzen duen iritzi disonantea. Harek helburu linguistikoa du agerian ezartzen, Lafonek 1951ean plazaratua zuen ideia berrartuz, baina adieraziz enuntziatzearen ulertzean dagoela problematika:

Él [Etxepare] tomó el tema del amor como simple ejercicio literario. Eso dicen las propias palabras de Dechepare en su prólogo. Sus propósitos eran de entregar a los vascos, escritos en su lengua, algo de doctrina cristiana, de motivos para animar conversaciones o para ser contados. *Temas hay también que, por su mismo título, excluyen las posibilidades de ser un sacerdote su protagonista* (etzana nirea da).⁸

Euskal literaturako historiografoek Hitako Arziprestearen *Libro de Buen Amor*-ekin konparatu izan dute eta konparatzen dute *LVP* uste baita destenorekoa edo berantiarra dela azken hau eta garaikidea beste hura. Baina, hipotesi hori segituz nola esplika “Contrapas”-en “oray” denbora-adberbioak duen indar iteratiboa (Arcocha 1996: 216-226)? Euskal kritikak autoreak berak azpimatzen duen oraikotasunaren ez gehiago azpimarratzea anakronismoak berak du esplikatzen.

Beste topiko bat: Etxepareren “herrikoitasuna” da —ik. Arcocha (1996: 224), Oyharçabal (2008b: 508-516)—, Altunaren artikulu batean, besteak beste, sustatua.⁹ Egoera horrek agerian uzten du *LVP*-ez gaurko euskal literatura historiografian kurri dabilzan ideiak berrikusi behar direla:

Oro har, berant eta destenorez ibili bada euskal literatura, salbuespen gisa agertzen zaigu alderdi horretatik Etxepareren kopia liburua (baita, berdín, sorkuntza literaturatik kanpo, Leizarragaren itzulpenak ere) (...) Etxepareren erdi-arokotasunaren aldeko ikuspegia, ikusi dugunaz, euskal literaturaren berankortasunaren ideian funtsatua zen, eta handik abiatu egin ziren (...) Etxepare Euskal literaturaren gibelamenduaren eredu egiten zutenak. (Oyharçabal 2008: 491, 509)

B. Oyharçabalekin batera uste dut *LVP* ez dela batere gibelatua. Horren frogatzeko, liburua ardatz berri batzuetarik harturik aztertuko dut: paratestualitatearen aldetik eta materialtasunaren aldetik. Aitzina segitu aitzin, gehi dezadan, autoreak puntu batzutan tradizio zaharren segitzeak ez duela erran nahi *de facto* liburua atzeratua dela. Tradizio zaharrenetarik (adibidez, kantutegi liturgikotik) heldu diren oihartzunak baldin badira *LVP*-en, eta badira, horrek ez du erran nahi modernitatea zalantzan ezarri behar zaionik liburuari. Adibidez, Clément Marotek 1533an aurreko beste tradizio batekoa den François Villonen poetika eraberritzen du humanisten kriterio berrien jarrerak aplikatuz (ortografian, tipografian, etab). Villon modernitatean sartzen du. Ez da Marotendako, Villonen aipatzea atzeratzearen seinale, alderantziz.

⁸ Ik. *La Gran Enciclopedia Vasca I El primer libro impreso en euskera (año 1545)*, 355-370. or. (Bilbo 1966), ikus Lino Akesoloren gazteleraizko itzulpena ere in *Bernat Dechepare, Olerkiak* (San Sebastián 1968). Ene artikuluan zitatua den Akesoloren testua ondoko iturri honetatik hartua dut: *Lino Akesolo, Idazlan Guztiak*, edizio prestatzaile: Julen Urkiza, Karmel-sorta, Larrea-Zornotza, 1989, <http://www.euskerazaleak.biz>

⁹ Ik. P. Altuna “Etxepare herri poeta” (1981: 321); ik. Oyharçabal (2008) eta Arcocha-Scarcia (1996: 224).

Modu palinpsistikoan aurreko autore baten testuen itxura aldatuz garaiko autoreak bereganatzen du testu hori eta garaikidetzen, “oraikotzen”.

Lan hau liburu inprimatze-ekintzan zentratzen da eta egia erran, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen lehen erdian agertu ziren bi lanekin lotura aurki daitezke: Vinsonen *Essai d'une bibliographie de la langue basque*-ekin (= Vinson [1891-1898] 1984: 1-2), eta hor n.º Y-6194-A kodearekin BNFen katalogatua den *LVP unicum*-az egiten duen deskribapen materialarekin; Urquijok 1933an, lehen aldiz, argitaratu zuen *LVP*-ren faksimilearekin.¹⁰ Testologiaren eta testuen historiaren ekarpenei esker, *LVP* bere munduratzearaz bera “mintza” dakigun saiatu naiz faksimilea izan delarik beti lan honen testu-oinarri beharrezkoa.

LVP-ren peritestalitatearen definitzeko Genettek *Seuils*-en ([1987] 2002) zabalitzen duen bide metodologikoa segitu dut. Horrela, *LVP* “testuaren inguruan, liburukia beraren espazioan”¹¹ kokatzen diren elementu paratestualek dimentsio berezia hartzen dute. Hain zuzen, peritestuari eta bereziki peritestu editorialari leku argia utziz. Azken eremu hau “inprimatzailearen eta editorearen, edo *edizioa*-ren ardura zuzen eta nagusia, baina ez eksklusiboan, den gunea da” Genetten ustez, hots, titulu-orriak, tipografiak, puntuazioak etabarrek markatzen duten gunea.¹² Kanpoko larruzko estaliaren armariaren jabeaz diren ohar ineditoak Pariseko BNFeko liburu inprimatu arraroen egotiztan den *LVP* liburu materialaz 2006ko azaroa/abenduan eta 2007ko martxoan egin obserbazio zuzenetarik datoz. Kanpoko larruzko estalia lehen aldiz erreproduzitzen delarik artikulu honetan.

Hiru atal nagusitan banatzen dut azterketa hau: 1) *LVP*-ren peritestalitatea; 2) *LVP*-ren peritestalitate editoriala;¹³ 3) *LVP* euskararen lehen gramatizazioaren agerlekua.

* * *

¹⁰ Gertatu izan da ere aldakuntza bat faksimilearen fotokonposaketan. *LVP*-ren 1995ko Euskaltzaindiko edizioan, faksimileari kendu zaizkio zigiluak. Horrelako manipulazioa ezin ulertuzkoa da, ikusiz zein den inportantea, testuaren analisiarendako dokumentu orijinalaren erreprodukzioa den bezala uztea.

¹¹ Ik. Genette ([1987] 2002: 10-11): «... autour du texte, dans l'espace du même volume, comme le titre ou la préface, et parfois inséré dans les interstices du texte comme les titres de chapitre ou certaines notes; j'appellerai *péritexte* cette première catégorie spatiale, certainement la plus typique (...)».

¹² Ik. Genette in *op. cit.*: «J'appelle *péritexte éditorial* toute cette zone du *péritexte* qui se trouve sous la responsabilité directe et principale (mais non exclusive) de l'éditeur, ou peut-être plus abstraitement mais plus exactement de l'*édition* (...). Le mot *zone* indique que le trait caractéristique de cet aspect du paratexte est essentiellement spatial et matériel; il s'agit du *péritexte* le plus extérieur: la couverture, la page de titre et leurs annexes; et de la réalisation matérielle du livre, dont l'exécution relève de l'imprimeur, mais la décision de l'éditeur, en concertation éventuelle avec l'auteur: choix du format, du papier, de la composition typographique etc. (Genette [1987] 2002: 21).

¹³ Bi ohar metodologiko egin behar ditut liburuaren estaliaz: i. Genettek liburuaren titulu-orria peritestu editorialaren kokatzen du, editorearen ardurapean delako baina liburuaren kanpoko «estalia» ez du aipatzen alor hori editorearen ardurapenetik kanpo izan daitekeelako, pentsatzen dut. Pundu horrek metodologiari dagokionez arazo bat sortarazi dit eta duda batzuen ondotik erabaki dut azkenean *LVP*-ren kanpoko estalia peritestalitate editorialaren barne kokatzea. Ene arrazoi nagusi eta bakarra izan da *LVP*-ren estalia *garaikoa* dela jakitea, hain zuzen XVI.eko mendearen erdialdekoa. Galdera batzuk erantzunik gabe gelditzen dira halere: *LVP* noiz estali zen? Liburuaren jabeak eginarazi ote zuen? Opari bat izan ote zen? Morpainen inprimategian estali ote? Edo inprenta lekutik kanpo zen beste eskulangile bati eskatuz eginaraziko?; ii. *LVP*-ren peritestalitatean sartzen diren elementuak testuaren ingurugiro urrunean kokatuak direnak dira. Lan honetan ez dira beraz aipatuko testuaren espazioaren ingurugiro hurbilenean diren koplen tituluak.

I. *Lingvae vasconvm primitiae*-ren peritestalitatea

Erasmok 1530ean, Germain de Brie-ri igortzen dion gutun batean, Budé zuzendari duen “Letren Errepublikak” dela dio Frantziak (Preisig 2004: 45), erakutsiz mugimendu intelektual handi baten lekua dela garai hartan. Giro horretan, amarengandik okzitaniera dakien¹⁴ Marotek, 1532an frantsesez argitaratzen duelarik *L'Adolescence*, giro kulturalki errefinatuenak —ingurugiro humanistakoak— ditu bere ikusmiran. Preisig-en ustez, Marotek 1532ko edizioan paratestuez egiten duen erabilera berezian ikus daiteke helburu horren frogetarik bat. Herri-hizkuntzetan 1532 baino lehen inprimatuak diren poesia liburuetan ez baita ardura aurkitzen hitzaurrerik eta epigrafia latinorik.¹⁵ Preisigek Maroten *L'Adolescence*-i hiru funtzio ikusten dizkio: 1. “publiko humanistaren atentzioaren erakartzeko den bitrina” izatea; 2. Marot beraren balioztatze-tresna izatea; 3. elkar-ezagutze sistema bati esker espazio literario baten eraikuntzaren sortaraztea”.¹⁶

Ene ustez, 13 urte geroago Bordelen inprimatzeko pribilegioa ukan duen *LVP*, Frantziako kultura-humanistaren karakteristekin eta Marotek sustaturik 1532tik landa Frantzian eta “Nafarroa Berria”-n zabaldu zen giro literario berriarekin lotu behar da. Dinamika horren ondorioetarik bat dateke lehen aldiko liburu baten euskaraz inprimatzea. Gainera, peritestuaren azterketak agerian uzten du frantses humanismoak *LVP*-ren inprimatze-ekintzan ukan duen zereginaren arrastoa, falta direlarik dokumentuak rol horren zuzenki neurtzeko.

I.1. Onimatasuna¹⁷

Autorearen izena titulu-orrian, letra kapitaletan idatzia den tituluaren ondok aurkitzen da. Leku kanonikoan da, beraz, hizki minuskuletan inprimatua da eta modu honetan: «per Dominum Bernardum Dechepare, Rectorem sancti michaelis veteris» (Hots, Eihalarre). Autorearen (goi mailako) kokatze soziala, latinez diren «Dominum» partikularren, izen eta abizenen, karguaren (erretorea da) eta ofizio-lekuaren aipamenean bitartez agertzen da.

¹⁴ Ik. *L'Enfer*-en Marotek bere buruaz dioena: «... Car une matinée, / N'ayant dix ans, en France fut mené; / Là où depuis me suis tant pourmené / que j'oubliai ma langue maternelle / Et grossement appris la paternelle, / Langue française ès grands Cours estimée, / Laquelle enfin quelque peu s'est limée, / Suivant le Roi François, premier du nom, / Dont le savoir excède le renom».

¹⁵ «Les œuvres poétiques en vernaculaire qui sont imprimées à cette époque, souvent posthumes ou collectives, sont rarement précédées d'un prologue signé de l'auteur (...) Il faut en convenir, il n'y a guère d'équivalent dans les recueils de poésie française qui circulent dans les années 1520 à cette préface de Marot» (Preisig 2004: 53-54); cf. «L'épigraphie, a fortiori l'épigraphe latine, n'est pourtant pas une pratique si répandue dans la poésie vernaculaire. Son usage est lié à 'l'apparition du livre'. On se rapportera aux éditions contemporaines de Crétin, de Lemaire, de Gringore ou encore aux *Opere toscane* d'Alamanni pour se convaincre de sa rareté à l'époque» (Preisig 2004: 58).

¹⁶ «... on dira que le paratexte de *L'Adolescence* constitue une vitrine destinée à attirer l'attention du public humaniste et à valoriser Marot. Il contribue également à la constitution d'un espace littéraire défini par un système de reconnaissance mutuelle» (Preisig 2004: 59).

¹⁷ *Onymat*, ikus G. Genette ([1987] 2002).

per Dominum Bernardum Dechepare
Reſtoſem fancti michaelis veteris.

LVP: Onimatoaren agerpena

Inprimatze-zeinu horiek kontuan hartzekoak dira berriak baitira liburu inprimatuetan. Hain zuzen, liburuaren egilearen izenaren markatzeko beharra Ertaroetako garaietan aurkitzen ez den kezka modernoa da Febvre eta Martinek agertzen duten bezala:

(...) tandis que les hommes du Moyen Age ne se souciaient guère de mettre un nom sur une œuvre, les imprimeurs seront tout naturellement amenés à rechercher ou à faire rechercher le véritable auteur des œuvres qu'ils impriment —parfois aussi à l'inventer—. (...) Enfin, ne l'oublions pas, la possibilité pour les auteurs contemporains de faire désormais imprimer et répandre leurs œuvres à de multiples exemplaires, de faire connaître leur nom: *stimulant précieux et aussi indice d'un temps nouveau, celui où les artistes signeront leurs œuvres et les écrivains aussi* —où peu à peu le «métier d'auteur» prendra une autre forme—. Et très vite, devant le flot montant des œuvres nouvelles destinées à un public toujours plus vaste, l'héritage du Moyen-âge va perdre de son importance (Febvre-Martin [1958] 1999: 367-368; AAS-en etzana).

Inprimategia Parisen sartzan delarik 1470 urteetan, hasten da ere aldatzen autoreek beren lanei buruz duten ikuspegia. Eboluzio horren lekuko adierazgarria da André de La Vigne-n *Ressource de la Chrestienté*. Lan honen eskuizkribu eta edizioen bitartez agertzen da nola lehentasuna duen autoreak, mezenaren lekua bigarren mailara jaisten delarik. Prezeski, André de la Vigne-ren kasuan ohargarria da ikustea nola bere burua *hitz-joko* baten bidez aipatzen duen eskuizkribuan (*de La Vigne* = “mahastikoa”) poesiaren testuan

Se mon engin eust plus grant efficace,
J'eusse trop mieulx labouré et enté
La Ressource de la Chrestienté,
Qui a vous, sire, de presenter n'est digne,
Ne plus ne moins que le fruyt *De la vigne* ¹⁸

eta nola gero bertsio inprimatuan, «de La Vigne» *autore izen* bilakatzen den tituluorrian (Brown 1991: 86, 167; Preisig 2004: 25-26). xv. mende bukaeran, Frantzia idazle ofizioaren baliospena tituluaren, ikonografiaren eta «sinaduraren»¹⁹ bitartez agertzen dira (Preisig 2004: 25-26).

Ettxepareren izenaren agertzean autoretasuna finkatzen da liburu modernitatean pausatuz, humanisten intelektual-munduari begira. Hain zuzen, izena latinez agertzen da, eta latinaren erabilera, kasu honetan, tituluaren erreferentzia zuzena, profanoa denez, humanisten ingurugiroaren seinale da, ez, adibidez, elizarena.

¹⁸ Ik. Preisig (2004: 25). AAS-en etzanak. Ik. Brown (*Poets, patrons and business...* 1995: 86), Preisigek aipatua (2004: 25).

¹⁹ «Sinadura», hemen autorearen izenaren inskripzio bezala.

I.2. Titulua

LVP-en, liburuaren tituluzioa liburuaren egilearen eta haren funtzio eta funtzio-lekuei lotua den *per* preposizioaren bitartez agertzen da latinez, multzo tipografiko baten itxurarekin: «LINGVAE VASCONVM PRIMITIAE per dominum Bernardum Dechepare Rectorem sancti michaelis veteris»:

LINGVAE VASCONVM PRIMI-
tiae per Dominum Bernardum Dechepare
Rectorem sancti michaelis veteris.

LVP: Titulu-multzoa

Ordea, “multzo” itxura hori faltsua da ageri baita liburuaren «deitura» edo «nortasuna» *tipografia motak* bereizten duela. Titulu hori, «PRIMITIAE»-ren bukaera salbu,²⁰ karaktere erromatar edo humanistiko kapitaletan inprimatua da gainerako izen, ofizio eta ofizio-lekuak erromatar minuskuletan direlarik. Ohartzekoa da titulua eremu laikoan kokatzen dela, gai batez ari dela (baskoien hizkuntzaren hastapenez), beraz zabaltzen duen informazioa “tematikoa” (linguistikoa hemen) dela eta gai horren aipamena ahal bezain ekonomikoki, ahal bezain ximpleki, aitzinatua zaiola hartzaileari ongi irakur daitezkeen karaktereetan.

Tituluaren «ximpletasunak», hartzailearen irakurtzeko ahalarren zaintzeak salatzen dute irugiro humanistikoaren hatza da liburuaren modernotasunarena:

Pendant le premier tiers du xvte siècle, le titre garde encore souvent une composition compacte, ou disposée en lignes de longueurs décroissante, parfois imprimée alternativement en noir et rouge. Il offre souvent une sorte de sommaire de l’ouvrage mais il est rare qu’il contienne une adresse complète. (...) Chez les imprimeurs humanistes, le titre est plus simple et acquiert progressivement son aspect moderne (...) (Brun-Toulet 1968: 9).

Genetek elementu peritestal honi lotzen dizkion lau funtzioak aurki ditzakegu *LVP*-ren titulan: 1. Izendatze funtzioa; 2. Deskripzio funtzioa (tematikoa da); 3. Bigarren funtzioari doakion balorapen konnotatiboa, adibidez «sobrietatea» edo biluztasuna (humanistek kultibatzen duten ximpletasuna); 4. Funtzio seduktiboa: liburuaren titulua erakargarria da, iragarki modura funtzionatzen du (Genette [1987] 2002: 85-98).

LVP-ren kasuan, hain zuzen, tituluak *errebindikatzan du* euskal letren «primizia» dela. Eta liburu horren kontsiderazioa eskatzen da titulu harrapatzailearen bitartez. *LVP*-ren nortasuna eta titulazio-multzoa latinez direnez, argi da publiko zabalenari zuzendua dela. *LVP*-ren harreraren kasuan, inprimatzaileak, eta ene ustez autoreak eta Lehetek ere beren «itxoite-horizontean» Erasmok aipatzen zuen Frantziako «litteratura errepublikako» («Res. Litteraria») humanistak dituzte gogoan, Europakoak halaber, ez bakarrik Bordelekoak. Hain zuzen, eskaintza epistolari aipatzen den espazioa den zabalea da “mundu gucietara” doa, humanistek Europan duten jakintza-sare zabalerara: “... eta scributan imeitera ceren ladin publica *mundi gucietara*... eta çure hatse

²⁰ Inprimategiko langileak ez duke tituluaren hondarra kapitaletan idatzi espazio-faltaz.

honetik dadin aitzinerat augmenta continua eta publica *mundu gucietara*” (AAS-en etzanak).

“Contrapas”-ean ideia bera aurkitzen da:

Oray dano egon bahiz
Imprimitu bagueric
Hi engoitic ebiliren
Mundu gucietaric

(*Contrapas*; AAS-en etzanak)

Zabaltze unibertsal hori modernitateak dituen zeinuak harturik egin dateke bakarrik, hain zuzen, humanisten irizpide tipografikoak aplikatuz, karaktere «erromatarraz»-ez. Tituluak hori dena erakusten du, duen tipografiaren bitartez eta zabaltzen duen mezu errebindikatiboaren bitartez. Irakurle letratu modernoak behala ezagutzen ditu liburuan diren kode eta zeinu berriak. Zentzu horretan dira ulertu behar hizkuntzaz diren balorazio antitetikoak LVP-en: «[orain] *ohore*²¹ / [lehen] estimatze guti» (*Contrapas*), edo «[orain] beharduyen *thornuya*²² / [lehen] lengoagetan azquena]» (*Sautrela*) edo geroari buruz «[euskaldunen] lengoagia iça-nenda *floria*».²³

Alegorizazioaren bidez pertsonaia bilakatua den «Heuscara» entitate abstraktuari Etxeparek, garaian ohi den bezala, gorputza ematen dio erretorikoki indar gehiago emateko bere argudiaketari. Eta letra tradizioz gabeko herri-hizkuntza alegorizatu horren «ohorea» humanismoak du gauzatzen inprimatze prozeduraren bidez. Humanismoak zabaltzen dituen sare ideologikoei eta teknologikoei esker, zabalkunde gutikoa eta estatus literariorik gabekoa den euskara herri-hizkuntza, letra hizkuntza bilakatzen da lehen aldiz eta modernitatean sartzen.

I.3. Eskaintza epistola²⁴

Eskaintza epistolak leku berezia hartzen du liburuaren atarian eta «E» karaktere erromatar apainduak estetikoki markatzen du haren hastapena. XVI. mendearen lehen erdian, gorago erran bezala, herri-hizkuntzetan inprimatuak ziren poesia liburuetan autoreak sinatu “hitza aurre” edo “aitzin solas” baten aurkitzea gertakizun bakana zen. Normalean, leku liminario horiek liburu saltzaile-editoreek zituzten betetzen pertsonaia inportante bati eskainiz obra.

²¹ AAS-en etzanak. Euskararen “ohorea” ez da bakarrik inprimatzearekin lortzen, ene ustez. Adibidez, gotikoz inprimatzea modu zaharkitu batean inprimatzea litzateke. Beraz, hizkuntzak “ohorea” lortzen du ene ustez, kodigo modernoenen arabera buruzen delarik inprimatze-ekintza, eta hala hartzen duelarik irakurleak. Kasu honetan, Frantziako kode-kultural aurreratuenen arabera, gotiko mundua zaharkituztat bazterreara utzirik, karaktere erromatarrez inprimatuz.

²² AAS-en etzanak. Idem, euskarari doakion *thornuya* ez da bakarrik inprimatze-ekintzari lotua, biazik eta inprimatze-ekintza «mota»ri, hots humanismoaren irizpideen arabera egin den inprimatze-ekintzari.

²³ AAS-en etzanak. Idem, *floria* hori humanismoaren bideetarik da LVP-en agertzen eta giro horretan ikusten zaio geroa.

²⁴ “Epître dédicatoire”, ikus Genette ([1987] 2002).

Erroma zaharreraino joan gaitzke bederen obra-eskaintzen aurkitzeko, nahiz, Genettek dioen bezala garai hartan ez diren kodifikatuak; gero, aro mediebaletako hainbat nobelatan edo kronikatan *incipit*ak hitzaurrearen arkeologian ere sar daitezke, printze baten enkarguaren lekukotasunak direlako.²⁵ Baina eskaintza epistolaren kodifikazioa berantago gertatzen da, hain zuzen, «eskaintza epistola» inskripzio ofiziala peritestuan sartzen den momentutik: Charles IX-i dedikatua den *la Franciade*-n aurkitzen den «eskaintza epistolan» bezala (1572) (Genette [1987] 2002: 121).

Regueren aduocatu uidezco eta noblea
 ri uirtute eta honguciez compluyari
 bere iaun eta iabe Bernard Leheteri ber
 nard echeparecoac haren cerbitzari chi
 piac gogo honez goraynci baque eta of
 sagarri Ceren bascoac baitira abil animos eta gentil
 eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan lettratu
 hahdiric miraz nago iauna nola batere ezten assayatu
 bere lengoage propriaren fauoretan heufcaraz cerbait
 obra eguitera eta scributan imeitera ceren latin publi
 ca mundu gucietara berce lengoagiac beçala hayn scri
 batzeco hondela. Eta causa honegatic guelditzenda a
 bataturic eceyn reputacione vague eta berce nacione
 oroc vste dute ecin densere scriba dayteyela lengoage
 hartan nola berce oroc baitu te scribatzen beryan Eta
 ceren oray çuc iauna noble et naturazcoac beçala bay
 tuçu estimatzen goratzen eta ohoratzen heufcara çu
 ri neure iaun eta iabia beçala igortendarauritzut heu
 scarazco copblabatzurene ignoranciaren araura egui
 nac. Ceren iauna hayec iqhuçiric eta corregituric pla
 zer duçun beçala irudi baçautzu imprimi eraci diça
 çun eta çure eçcutic oroc dugum ioya ederra Imprimi
 turic heufcara orano içan eztena eta çure hatse ho
 netic dadin aitzinerat augmenta continua eta publica
 mundu gucietara eta balcoac berce beçala duten be
 re lengoagian scribuz cerbait doctrina eta plazer har
 ceco solaz eguitemo cantatzeco eta denbora igaraiteco
 materia eta ginendireneç gueso duten causa oboro ha
 ren abançartzeco eta obligatu guiren guciac ge yncoari
 A ij

LVP: Eskaintza epistolaren *recto*-a

Genettek azpimarratzen du eskaintza epistola klasikoan dedikatarioaren laudo-
 rioak aurkitzen zirela eta obraz informazioak ere, edo dedikatzaileak (“dedikatorea”)
 dedikatarioaren hautuaz egin justifikazioak:

²⁵ «et bien des incipits de romans et de chroniques du Moyen Âge témoignent, comme nous le
 verrons en considérant la préhistoire de la préface, d’une commande princière dont la mention vaut
 pour une dédicace d’œuvre» (Genette [1987] 2002: 121).

... l'épître dédicatoire classique pouvait abriter d'autres messages que l'éloge du dédicataire, par exemple des informations sur les sources et la genèse de l'œuvre, ou des commentaires sur sa forme ou sa signification, par quoi la fonction de la dédicace empêche clairement sur celle de la préface. Ce glissement de fonction est même presque inévitable; pour peu que l'auteur veuille justifier le choix du dédicataire par une relation pertinente à l'œuvre (Genette [1987] 2002: 126).

LVP-ren kasuan aurkitzen dugun testu liminarioak ez du titulurik, ez da generoki identifikatua baina ondoko elementuak badituelako «eskaintza epistola» bezala izendatzen dut; autoreak sinatzen du:

- norbaiti eskainia da (gure kasuan Lehet da dedikatariora);
- obraren funtzioaz informazioak badira;
- dedikatoreak dedikatarioraren hautua justifikatzen du.

Segidan, aurtorialtasuna nola emana den aipatuko da eta “epistola” bezala definitzeko diren elementuak. Gainerako elementuak (Leheti den eskaintza; poetaren funtzioa...), lan honen hirugarren zatian aurkituko dira.²⁶

1.3.1. Aurtorialtasuna

Eskaintza epistolaren edo beste LVP-ko edozein testuren aurtorialtasuna metodologikoki mugatzeko Lejeunek aipatu “itun autobiografikoa” (*le pacte autobiographique*) betea den bilatzen dut. Lejeuneren arabera, pakto autobiografikoaren aurkitzeko berdintasuna behar da autorearen (*identité de nom*), narratzailearen eta pertsonaiaren artean:

Pour qu'il y ait autobiographie (...) il faut qu'il y ait identité de l'auteur, du narrateur et du personnage. (...) L'autobiographie (récit racontant la vie de l'auteur) suppose qu'il y ait *identité de nom* entre l'auteur (tel qu'il figure par son nom, sur la couverture), le narrateur du récit et le personnage dont on parle (Lejeune [1975] 1996: 15, 25).

Bixtan dena, aurtorialtasunaren problematikaren erroan, enuntziatio problematika aurkitzen dugu: lehen pertsonan ari den 'ni'a (Genetten arabera narrazio «autodiegetikoa» dugu hor) autorea ote da? Hirugarren pertsonan aipatua den pertsonaia (Genetten arabera narrazioa orduan «heterodiegetikoa» da) autorea ote?

Nahiz artikulua honen gaia LVP-ren peritestiualitatearen inguruan datzan, erran dezadan halere, LVP-ren amodiozko poesien euskal literatura historietan gaizki ulertzeak (Etxepareren ustezko delako «lizunkeria» hura), hain zuzen enuntziatio problematikaren gaizki ulertzetik heldu dela. Dena den, Etxepareren testuetan itun autobiografikoaren funtzionamendua «Mossen Bernat echaparere[n] cantuya»-n da hobekien ikusten, autoreak tituluan bere burua eszenan ezartzen duelarik Maroten moduan.²⁷

²⁶ Ik. gero datorren artikulua honen zatia: “III.1. Euskararen gramatizazioaren hatzak LVPen”.

²⁷ Ik. Marotek lehen aldiz Anberesen 1539an argitaratu zuen *L'Enfer* poemaren titulua: «l'Enfer de Clément Marot de Cahors en Quercy, Valet de chambre du Roi, composé en la prison de l'Aigle de Chartres, et par lui envoyé à ses Amis» (arg. Lestringant 1987).

Eskaintza epistolari, “Mossen Bernat echaparere[n] cantuya”-n bezala, itun autobiografikoa errespetatua da: titulu-orrian den autore-izena, hemen hirugarren pertsonan aipatua den izena berdina dira, eta ondoko lerroetan agertuko den «ni»a eta «hi»a ere autore-pertsonaiaren mintzoak direlarik.

I.3.2. *Protokolo epistolarioaren markak*

Galda ahal dezakegu ez ote dugun begien aitzinean Etxeparek Leheteri igorri zinezko eskuizkribuzko epistola edo gutun pribatu bat inprimaturik, *a posteriori* peritestu bezala baliatu dena. Hasiera-protokoloan hierarkia argi bat bada lehen-dabizirik izendatzen dena Lehet baita aipatzen dituelarik igorleak haren ofizio ezaugarriak: «erregueren aduocatu vitezco eta noblea», «noblea» adjektiboa zentzu propioan hartu behar delarik, ene ustez. Leheten gibeletik, bigarren neurrian, kokatzen du Etxeparek bere burua eta gainera hirugarren pertsonan ezartzen du «kris-tau humilitatearen eta xinpletasunaren» seinale bezala:²⁸

Erregueren aduocatu vitezco eta nobleari virthute eta honguciez compli-tuyari bere iaun eta iabe Bernard Leheteri bernard echeparecoac haren certitzari chipiac gogo honez goraynci baque eta ossagarri.

Etxepareren auto-aipamenak testu guzian ohidurazko *topos modestiae*-an eta *excusatio propter infirmitatem*-ean agertzen dira, ohartzekoa delarik «osasun formula»: «gogo honez goraynci baque eta *osagarri*».²⁹ Pertsonaien artean den hierarkia, Lehet destinatarioarendako diren laudoriozko adjektibo eta kortesia formulak, osagarriaren aipamena barne, eta igorleari lotuak diren humilitate kodeak ere *captatio benivolentiae*-an sartzen dira.

Ernazimenduan *Artes epistolandi*-ez diren irizpideak aldatzen dira eta polemika luzeak izanen dira *subscriptio*-aren (igorlearen izena) eta *superscriptio*-aren (destinatarioa) leku kanonikoaz:

- i. Non koka *subscriptioa* —kontuan hartuz haren kokatze soziala edo autore-sinadura?—? Gutunaren hastapenean? Bukaeran?;
- ii. Non koka *superscriptio*-a? Igorlearen izenaren aitzinean? Ondotik? Gutunaren azalean? (Gueudet 2004: 316-372).

Erasmok Ertaroan erabili epistola-kode pisua aldatu nahi du «antzinako xinpletasunera» berritzuliz, hain zuzen Quintilianus eta Cicero etsenplutzat hartuz (Gueudet 2004: 340-341). Antzinako epistola-kode biluziari nahasten zaiolarik «christiana sim-

²⁸ Ik. Lejeune ([1975] 1996: 16): «Parler de soi à la troisième personne peut impliquer soit un immense orgueil (...), soit une certaine forme d'humilité (c'est le cas de certaines autobiographies religieuses anciennes), où l'autobiographe se nommait lui-même «le serviteur de Dieu»). Erran gabe doa narrazio literarioarendako pentsatuak diren Lejeunen ohar metodologikoak literaturako beste edozein generotan aplikatu daitezkeela.

²⁹ AASek azpimarratua. Ik. G. Gueudetek osasun formulaz nota batean dioena: «Bastiaenssen note que la formule de santé, qui avait presque disparu sous l'Empire, réapparaît sous une forme chrétienne au III^e siècle, mais s'efface au siècle suivant (...). Cette disparition, à partir du IV^e siècle, est observée également dans les lettres grecques (cf. J. O'Callaghan (...); cependant G. Karlsson suppose que la tradition a pu se maintenir dans des milieux plus modestes (...)) (2004: 292).

plicitas» ebangelikoa. Izan ere, Ernazimenduan humanistek editatzen eta irakurtzen dituzten Antzinateko greko eta latinezko gutunieretan —izan bitez literarioak ala ez— epistola-protokoloak aurkitzen dituzte eta modelotzat hartzen (Gueudet 2004: 292). Era berean, III. mendean geroztik grekerazko eta latinezko gutunieraren eboluzioan sartu den «zeremonialtasun epistoriala» baztertzeko dute. Garai horretatik landa, bereziki kristauen gutunetan, obserba daiteke, besteak beste, Gueudeten ustez, destinatarioaren izena lehenik ezartzen dela eta ondotik igorlearena LVP-en bezala.³⁰

Eskaintza epistolaren destinatarioaren izena lehenik, igorlearen izena baino lehen, ezartzeko ohidura aspaldikoa zen, beraz, Etxeparearen garaian, baina egia erran, gutunaren hastapeneko hierarkia ordenuari dagokionez, askotariko jarrerak aurkituko dira humanisten artean. Vivesek, adibidez, indulgentzia eskatzen du «duintasun-ordenuaren» kriterioen arabera, hots, humanismo girstinoaren arabera, bi erabiltzeko moldeak onartzen dituela erranez. Erran nahi baita artearen arabera igorlearen izenak beharko lukeela lehenik, baina aitortzen duela (Vivesek) modestiaren arabera, birtute girstinoaren arabera, alderantziz egin behar litzatekeela, LVP-en bezalaxe, lehenik destinatarioa bere kalitateekin agerrarazi eta gero igorlea bere *topos modestiae*-rekin.

Bukaera-protokoloak ere aldakuntzak ezagutzen ditu. Gueudetek azpimarratzen du haatik formula horren eboluzioa ezezagunago dela, gutun ofizialetan ez delako aurkitzen gehienetan. Aldiz, herri-hizkuntzetan idatziak diren familia-gutunak kasik beti otoitz formula batekin bukatzen dira: LVP-ko eskaintza epistolaren bezala, igorleak destinatarioari ospatzen diolarik «[jainkoak] dizum (sic) mundu honetan (sic) prosperoqui vicia eta bercian parabiçuya, Amen». Ez lekurik eta ez datarik ez delarik agertzen. Ikusten da, beraz, LVP-en den eskaintza epistolaren direla Europako garaiko «epistola» generoan ezagutzen diren kode ezaugarriak. Epistolaren hastapenean marka hierarkikoaren errespetatzean, testuak jarrera teologiko tradizionala segitzen du.

Azken oharra eskaintza epistolaren erabilia den forma alokutiboari, zutanoari, doakio. Gueudeten ustez, hizkuntzen arabera bi usantza aurki daitezke. Latinezko Ernazimenduko gutuneria eruditoan lehen humanistek hitano klasikoa defenditzen dute zizeronismoaren izenean eta girstinotasunaren xinpletasunaren (Erasmus) izenean. Horregatik, Ertaroan inposatu den «gortesiazko plurala», zutanoa, kentzen dute. Aldiz, frantses herri-hizkuntzan diren gutunetan alderantziz gertatzen da, zutanoaren erabilera da zabaltzen dena:

³⁰ Ik. Gueudet (2004: 293-295): «Dès cette époque [III. mende], le nom du destinataire est souvent placé avant celui de l'expéditeur, et un déterminatif est ajouté à la formule de salutation; au siècle suivant, des épithètes et des titres honorifiques s'y intègrent (...) Parallèlement le vœu initial réapparaît dans les épîtres latines, puis se transforme; cependant que la formule d'adieu évolue chez saint Cyprien en «Opto te semper bene valere», sous l'influence grecque, puis se christianise et s'enrichit dans les deux langues. Enfin, dans la correspondance de Symmaque, fait son apparition le vouvoiement, qu'on explique généralement par le cérémonial impérial; il devient courant au Ve siècle. L'alourdissement et la diversification du protocole épistolaire sont un fait accompli à la fin de l'antiquité. (...) Longtemps subsiste une suscription des lettres latines, patentes ou closes, qui procède directement de la *salutatio* romaine, remodelée à la fin de l'empire. En tête du message sont nommés les deux correspondants; par humilité épistolaire ou chrétienne, les rédacteurs avaient adopté l'ordre destinataire-expéditeur (...). Ainsi l'inversion du sujet subsiste-t-elle comme une marque de déférence pendant tout le Moyen Âge; en fait, la société féodale impose sa hiérarchie aux correspondants et l'ordre suivi dépend de leur rang respectif».

En effet, des exemples français indiquent une double évolution; alors qu'à la fin du xve siècle, on pouvait observer dans des lettres familières un usage analogue du tu et du vous en français et en latin, au xvii^e siècle, le retour au tutoiement classique s'impose dans la langue savante, tandis que le pluriel de politesse tend à se généraliser dans notre vulgaire. (...) Cette querelle du vous et du tu est donc caractéristique à plus d'un titre. La campagne menée par les humanistes reste fidèle aux mêmes objectifs de Pétrarque à Erasme et elle aboutit en effet à la restauration d'un tour classique en latin; mais ce succès aggrave le fossé entre le langage des érudits et la pratique contemporaine telle qu'elle se développe dans les langues vernaculaires. Et pourtant, au moment même où ils rétablissent la pratique classique, les humanistes n'ont pu ignorer que l'époque impose à l'épistolier des marques extérieures de déférence. Tout en respectant les règles classiques, ils doivent accepter dans leurs manuels deux entorses à la simplicité cicéronnienne, qui compensent en quelque sorte l'abandon du vouvoiement (Gueudet 2004: 402-403).

Horren ondorioz, «Contrapas»-ean ni auktoriala euskararen alegoriari zuzentzen zaiolarik hitanoa erabiliz («Heuscara ialgui adi cāpora») humanismoaren eragina ikusi behar da. Ohartzekoa da erlijiozko testuetan «Hamar manamenduyac»-en ni auktorial bera fededunari ere hitanoa erabiliz zuzentzen zaiola («Adoreçac iāgoycobat») ebangelismoaren “christiana simplicitas”-aren izenean (ik. Arcocha-Oyharçabal 2008). Bizkitartean Jainkoari mintzatzeko zutanoa da erabilia “Iaygoycua çuc veguira niri ere çucena” (“Mossen Bernat echaparere[n] cantuya”).

I.4. Bukaerako epigrafoa³¹

Epigrafo hori ez da, Oroz Arizcurennek uste duenaren kontra (2006: 353) *LVP*-ren “kolofoi latinoaren” parte bat. Ene ustez, arras funtzio berezia betetzen du *LVP*-en, paratestu independente bezala eta inondikan ere ez kolofoi bezala. Bukaerako epigrafo horrek letra erromatar kapitaletan dio *DEBILE PRINCIPIVM MELIOR / FORTVNA SEQVATVR* erran nahi baita: «hastapen xume honek fortuna ukan beza geroan».

**DEBILE PRINCIPIVM MELIOR
FORTVNA SEQVATVR.**

LVP, Bukaerako epigrafoa

LVP-ren bukaeran den elementu peritestal honen ezaugarriak Genettek “obra-
ren epigrafoaz” (*Épigraphe d'œuvre*) eta “erranaz” (*Devise*) dioenarekin baditu
pundu amankomunak. Halere, duda batzuen ondotik (hastapen batean “bukae-
rako errana” deitu bainuen), erabaki dut azkenean “bukerako epigrafoa” deituko
dudala nahiz Genettek dion xvii. mendea baino lehen horren arrastorik ez duela
aurkitzen.³²

³¹ «Epigraphe terminale», ikus Genette ([1987] 2002).

³² Ik. Genetteren definizio osoa: «Je définirai grossièrement l'épigraphe comme une citation placée en exergue, généralement en tête d'œuvre ou de partie d'œuvre; «en exergue» signifie littéralement hors d'œuvre, ce qui est un peu trop dire: l'exergue est ici plutôt un bord d'œuvre, généralement au plus près

1.4.1. Epigrafoaren ezaugarriak

Epigrafoari Genettek aurkitzen dizkion puntuak eta LVP-en den «errana» («devise»), «epigrafo» bezala definitzeko balio duten puntuak ondokoak dira. Lehenik, epigrafoaren testua autore-errana izan daiteke;³³ liburuan den testutik independientea da; epigrafo historikoa latinez da, gehienetan bezala; epigrafoa anitzetan titulua dagoen orrian kokatzen da, baina —LVP-en bezala—, testuaren bukaeran ere izan daiteke, gainerako *corpus*-etik zuri tipografiko batek bereizten duela, orduan betekizun berezi bat badu “bukaerako erran” bezala;³⁴ gehienetan ‘alografoa’ da, hots ez da obraren autorearena; funtzio bereziak betetzen ditu, ondoko lerroetan ikusiko den bezala.

1.4.2. Epigrafoaren lau funtzioak

Genetten ustez, epigrafoak lau funtzio betetzen ditu:

1. tituluaren erranahia argitzen du;
2. testua komentatzen du “erranahia zeharka zuzenduz”;
3. agerian den mezua azpian beste mezu bat gordetzen du;
4. kultura zeinu bezala, “intelektualitate pasahitza”³⁵ bezala agertzen da.

1.4.2.1. Lehen bi funtzioak: tituluaren eta bukaerako epigrafoaren arteko lotura

Lehendabiziko bi funtzioak aipatzerakoan argiki ikus daiteke titulua eta epigrafoa elkarriz semiotikoki lotuak direla tipografiaren bitartez (letra humanistiko kapitalean idatziak dira biak), hizkuntzaren bitartez (latinez biak) eta semantikaren bitartez (erranahi linguistikoa dute biak).

Kontsideratuz liburuaren arkitektura, erran daiteke LVP-ren eraikuntza zirkularra dela: epigrafoak tituluaren erranahia zehazten du, horrela liburu osoa geroari buruz irekiz. Lot bagenitza bi erranak, *rebus* humanistiko baten gisako erranaldia genuke: “Linguae vasconvm primitiae³⁶ debile principvm melior fortvna seqvatvr”. Bestalde, argi da ere eskaintza-epistolaren bukaerarekin lokarri zuzenak badituela gainera epi-

du texte, donc après la dédicace, si dédicace il y a. (...). Je n’en trouve aucune trace, au moins selon la définition susdite, avant le xvii^e siècle. Mais peut-être faut-il en voir l’ancêtre dans une pratique plus ancienne, qui serait la devise d’auteur. Le texte de la devise peut bien être une citation, comme le *Ab insidiis non est prudentia* emprunté à Pline que Mateo Alemán intégra au frontispice d’au moins deux de ses œuvres: *Guzman d’Alfarache*, et son *Orthographe castillane*. Ce qui distingue la devise n’est donc pas forcément le caractère autographe, mais son indépendance par rapport au texte singulier» (2002 [1987]: 147-148).

³³ Kasu honetan *devise*-aren definizioarekin konkordantzian da (ikus Genettek dioena aurreko oharrean).

³⁴ «Un autre emplacement possible, comme pour la dédicace, est la fin du livre: dernière ligne du texte, séparée par un blanc (...) l’épigraphe terminale est en principe, après lecture du texte, d’une signification évidente, et plus autoritairement conclusive: c’est le mot de la fin, même si l’on affecte de le laisser à un autre» (Genette [1987] 2002: 152).

³⁵ Azken puntu honi buruz: «La présence ou l’absence d’épigraphe signe à elle seule, à quelques francions d’erreur près, l’époque, le genre ou la tendance d’un écrit» (Genette [1987] 2002: 163).

³⁶ Hitzaren muturra letra etzanez agertzen da espazio faltaz.

testu honek, ideia berdina aurkitzen baita bereziki pasarte honetan: “... eta çure hatse honetic dadin aitzinerat augmenta continua eta publica mundu gucietara (...) et eginen direnec çüero duten causa oboro haren abançatzeço”.

1.4.2.2. Hirugarren funtzioa: mezu gordearen hipotesia

Genettek dio agerian den mezuaeren azpian gordea den beste mezu bat bada: “De la troisième fonction, j’ai dit qu’elle était la plus oblique. J’entends par là, bien sûr, que le message essentiel n’y est pas celui que l’on donne pour tel” (Genette [1987] 2002: 161). Hipotesis bezala aitzina daiteke «Debile principium melior fortuna sequatur» bukaerako erranaldi horren mezu linguistikoaren azpian badaitekeela bigarren mezu bat, ebangelikoa dena: *Imitatio Christi*-a osoki bizitzeko erreformistek garai hobekoak ukanen dituztela geroan. Euskararen inprimatzeari esker, zabalitzen ari dela beti gehiago Kristo kurutzifikatuaren ele unibertsala (ik. Arcocha & Oyharçabal 2008). Ondorioz, jakinez ingurugiroa zaila dela garai hartan Frantzian eta bereziki Bordelen (ik. Baranova 2002) ebangelistendako (hain zuzen «debile principium»), geroa oparoa izan den dela Kristoren zinezko legea zabalduko baita lur guzian («melior fortuna sequatur»).

1.4.2.3. Laugarren funtzioa: kultura seinaleak

Kulturaren seinaleetat hartu behar dira Erroma klasikoko epigrafien eran erabiltzen diren karaktere humanistiko kapitalen erabilera, eta epigrafoaren hautua bera. Epigrafo horren jatorria kultura humanistikoan kokatu behar litzateke dudarik gabe. Jadanik aipatu bezala, Ovidiok *Metamorfosiak*-etan erabili erran baten aldaera da, baina ene ustez ez du horrek erran nahi Ovidio ez zela aurreko beste iturri batzuek baliatu. Erran zahar edo sententzia moduan Ovidioren iturritik kanpo, modu paraleloan erabil zitekeelako.

Sententzia hori forma ezberdinetan aurkitzen bada³⁷ iturri ezberdinetan, dudarik ez humanisten artean arrakasta berezia baduela, *LVP*-ren garaian bederen beste bi lekukotasun humanistiko famatu identifikatzen ahal baitira letretan. Lehena ezaguna den Rabelaisek erabili “Debile principium melior fortuna sequetur”³⁸ eta bestalde, hitz-joko bat eginez, Julius Caesar Scaligerok erabiltzen duen aldaera antitetikoa: “Bona principium debile fortuna sequetur”.³⁹

³⁷ Ik. Oroz Arizcuren (2008): “FleBILE principium melior fortuna secuta est”; “FleBILE principium melior fortuna sequetur”; “DeBILE principium melior fortuna sequuta” www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/69623.pdf

³⁸ Ik. Rabelaisek Margarita Nafarroakoaren memorioari eskaintzen dion *Le Tiers Livre des Faicts et Dicts Héroïques du bon Pantagruel Composé par M. Fran. Rabelais docteur en Medecine (...)*-en aurkitzen den bertorio horietarik bat, *Comment naissent les procès, & comment ilz viennent à perfection* deitzen den XLII kapituluak: «La manière est telle que dict gl. p. q. j. c. Paulus DeBILE principium melior fortuna sequetur» (Rabelais, Michel Fezandat edizioan, Parise 1552). Ene erreferentzia F. Bon-en edizio numerizatutik heldu da. Edizio hau 1552koari aldakuntzarik ekarri gabe egina da [www.http://un2sg4.unige.ch/athena/rabelais/rab_tier.html](http://un2sg4.unige.ch/athena/rabelais/rab_tier.html)

³⁹ Ik. Oroz Arizcuren in *op. cit.* www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/69623.pdf

II. *Linguae vasconvm primitiae*-ren peritestualitate editoriala

II.1. *Kahier eta orrialdeketa*

LVP zazpi kainerrez moldatua da, kaier bakoitza lau orrialdetakoa delarik, beraz *In cuarta* da. Kaier bakoitza, orriaren azpian eskuinetik agertzen den “sinadurak” ezberdintzen du. Horrek erran nahi du zazpi kaierrak bat bertzearen ondotik ezartzen direla gero elkarri josteko, bost orrialde guziez honelako zazpi sinadurak agertzen direlarik: “Aij” (ik. Eskaintza epistolaren argazkia), “B”, “C”, “D”, “E”, “F”, “G”. Liburuak ez dauka bertze orrialdeketarik.

II.2. *Titulu-orria*

LINGVAE VASCONVM PRIMITIAE
titiz per Dominum Bernardum Dechepare
Rectorem sancti michælis veteris.



LVP: Titulu-orria

Titulu-orrian bi gune berezi badira. Orriaren lehen eremua latinezko idazkiak hartzen du eta bigarrena grabatuak. Gorago seinalatu bezala, lehen gune horretan seinalatzen zaizkigu: liburuaren titulua kapitaletan; autorearen nortasuna; autorearen kargua eta lan-lekua.

Bigarren eremua grabatuak hartzen du. Ohar horiek guziak frango berriak dira orduko liburu inprimatuetan. Komeni da hemen berriz gogoraraztea garai modernoan dela agertzen, autorearen izenaren finkatzeko kezka (Febvre-Martin [1958] 1999: 367); ik. *Onimatoaz* den zatia.

II.3. Kolofioa

¶ Sautrela
 Heuscara da campora, eta goacen oro dangara
 Oheuscara lande ezac garacico berria
 Ceren hanric vqhen bayruc beharduyan thoenu ya
 Lehenago hi baitinçan lengoagetan azquena
 Oray aldiz içaneniz orotaco lehena.
 Heuscaldunac nmindu orotan preciatu ciraden
 Bana hayen lengoagiaz berce oro burlarzen
 Ceren ece yn scripturan erideiten espaiizen
 Oray dute iccalliren nolagança honacen.
 Heuscaldun den guigon oroc alcha beça buru ya
 Eci huyen lengoagria içanenda florja
 Prince eta iaun handiac oroc haren galdia
 Scribatu halbalute iqhalteco desira.
 Desir hura conpitu du garacico naturac
 Eta haren adisquide oray bordeleu denac
 Lehen imprimçalia heuscaren hurada
 Basco oro obligatu iagonicoz hargana.
 Eray lelori bailele leloa çaray leloa
 Heuscara da campora eta goacen oro dangara.
 DEBILE PRINCIPIVM MELIOR
 FORTVNA SEQVATVR.

¶ Extrait des registres de Parlement.



Vpplie humblement François Morpain, maistre Imprimeur de ceste ville de Bourdeaux, que pour imprimer vn petit traicte intitulé, Linguae vasconum primitie, In y a conuenu faire plusieurs fraiz & mises. A ceste cause plaite a la Court inhibitions estre faictes a tous les Imprimeurs libraires de ce Ressort de imprimer ou faire imprimer ledict Traicte, & a tous marchés de nen vendre d'autre impression dans troys ans a peine de milleurs tourñ. & ferez iustice. Veue laquelle requeste la court fait les inhibitions requises par ledict Morpain a peine de milleurs tourñ. Fait a Bourdeaux en Parlement le dernier iour Dapuri, mil cinq cens quarante cinq. Collation est faicte.

De Pontac.

LVP, ezkerretik liburuaren azken testua (*Sautrela*) eta bukaerako epigrafoa eskuinetik, kolofioa

Liburuaren nortasunaren azpimarratzaile, zuzenbide tipografikoaren bilgune, eta falsifikatzaileen kontrako justizia larderien kokagune den eremu berezi hori, 1550 urteetaraino iraunen duen ohidura baten arabera, bukaeran kokatzen da (Brun-Toulet 1968: 29). Ohidura den bezala, bukaeran agertzen da *LVP*-en ere.

Zergatik kolofioa frantsesez idatzia den aipatu behar da laburzki. *LVP* euskaraz inprimatua izanikan ere, Bordeleko Parlamentuan De Pontac funtzionarioak sinatzen duen kolofioa frantsesez (eta ez latinez) inprimatua da, François I.aren 1539ko agorriaren 15eko Villers-Cotterêts-eko ordenantzaren 110. eta 111.en artikuluen arabera,⁴⁰

⁴⁰ Xehetasun gehiago urrunago artikuluko honetan berean in "III. Euskararen gramatizazioaren lehen urratsak". Villers-Cotterêts-eko ordenantzaren testuaz ikus <http://www.assemblee-nationale.fr/histoire/villers-cotterets.asp>; http://fr.wikipedia.org/wiki/Ordonnance_de_Villers-Cotter%C3%AAs

legezko arazoen frantsesez inprimatzeko obligazioa baita orain. *LVP*-ren kolofoiaren testuak dio:

Extraict des registes de Parlement

Svpplie humblement François Morpain, maistre Imprimeur de ceste ville de Bourdeaulx: que pour imprimer vn petit tracte intitule, Linguæ vasconum primitie, luy a conuenu faire plusieurs fraiz & mises. A ceste cause plaise a la Court inhibitions estre faictes a tous les Imprimeurs libraires de ce Ressort de imprimer ou faire imprimer ledict Tracte, & a tous march(an)s de nen vendre dautre impression dans troys ans a peine de milliures tourn(ois) & ferez iustice. Veue laquelle requeste la court fait les inhibitions requises par ledict Morpain a peine de mil liures tourn(ois). Faict a Bourdeaulx en Parlement le dernier iour Dapuril, mil cinq cens quarante cinq.

Collation est faicte.

De Pontac.

Kolofoiari frantsesez agertzen diren xehetasunek titulu-orrian latinez ezarriak ziren aipamenak ziurtatzen eta osatzen dituzte:

- i. Berriz aipatzen da liburuaren titulua, aldi honetan kolofoiari, erromatar minskuletan eta bariante ortografiko batekin (“primitie” “primitiæ”-ren orde): “Linguæ vasconum primitie”;
- ii. Testua frantsesez «petit *tracte*» («tratatu ttipi») edo “ledit *Tracte*”⁴¹ (“tratatu”) bezala kalifikatzen da. Izendatze horrek “liburu”-aren erranahia du dudarik gabe. Kontsidera daiteke ere “tratatuaren” zentzua (ikus *Diccionario de Autoridades*) ukan dezakeela “euskararen primiziaz” ari delako;⁴²
- iii. Zuzenbide tipografikoa agertzen zaigu inprimatzaile-editorearen eta beharbada liburu-saltzailea den François Morpainen izenarekin;
- iv. inprimatze-lekuarekin (Bordele);
- v. 1545eko apirilaren azken eguneko (“dernier iour Dapuril, mil cinq cens quarante cinq”) pribilegio datarekin.⁴³ 1545eko apirilaren azken egun horretan *LVP*-ren inprimatzea bukatua ote zen? Ez da segurantzarik.

⁴¹ Bi hitzak AAS-ek azpimarratuak.

⁴² Lehenago duda bat ukan nuen (ikus Arcocha-Scarcia 2005: 119). Argi da enetzat, orain, analisis peritestuala egin ondoan, *LVP*-ek badituela “liburu-objektuaren” marka guziak.

⁴³ Ik. Oroz Arizcurennek dioena:

En el texto que presentó Morpain para justificar un privilegio de la Corte en su favor, argumenta que, para imprimir ese libro, ‘luy a conuenu faire plusieurs fraiz & mises’ o habla mirando al futuro, de ‘fraiz necessaire à l’ouverture de ladict impression’, sino de gastos que ha tenido ‘pour imprimer un petit tracte intitule, Linguæ vasconum primitie’

De esta información podemos deducir llanamente que, al solicitar el privilegio, el trabajo de imprenta de este libro estaba ya en una fase avanzada, casi a punto de concluir. Razón suficiente para que supongamos que en los meses que faltaban hasta el fin del año se podía terminar cómodamente la impresión, y para que admitamos consiguientemente para ésta el 1545, sobre todo si consideramos que ese año duró, según el calendario francés, hasta Pascua Florida de 1546, que fue el 25 de abril. Pero computemos según el calendario romano, a la moderna. Para que supongamos o admitamos, sí; para que estemos seguros, no. Pues era un lugar común en la solicitud del privilegio mencionar los ‘plusieurs grans fraitz et mises’, a veces con *despens*, invertidos en proyecto, lo que desvirtúa algo nuestra suposición.

Kolofoiari irakur daiteke Morpainei gastuak “inprimatzeko” *judanik* aitzinatua izan zela, hots, pribilegioa ukan aitzin: “que pour imprimer vn petit tracte intitule, Linguæ vasconum primitiæ, luy a conuenu faire plusieurs fraiz & mises”. Uler daiteke, beraz, LVP-ren inprimatzea edo bukatua dela edo bukatuxea, baina zorigaitzez azken ohar hori ez da zehazki ezagutzen. Ohartzekoa da Oihenartek ere nahasten dituela pribilegio-data eta inprimatze-data 1665ean frantsesez euskal arte poetikoaz idazten ari den zirriborroan 120 urte lehenago «poesia euskaldun bat» inprimatu zela aipatzen du. Lehenik, barratua duen pasartean: «Le ne scay si Mossen bernad dEche- pare, En son Viuant curé d'Eyeralarre, au pays de Cize, qui Uiuoit, Il y a six Uingts ans, (...)» (Oihenart [1665] 1967: 35). Gero, barratua duena berriz garbira pasatzean: «Le ne scay si Mossen bernad dEtchepare En son Uiuant Curé deyheralarre au pays de Cize qui Escrivoit Il y a six Uingts ans (...)» (Oihenart [1665] 1967: 37).

Bordeleko Morpain inprimatzaileak eskatu hiru urteko pribilegio-eskaera legez onartu zuen Parlamentuak (*A ceste cause plaise a la Court*), eta, beraz, hiru urtez kopia faltuz zaindua zen liburua. De Pontac⁴⁴ funtzionarioak konstatatua zuen Parla- mentuan⁴⁵ (*Faict a Bourdeaulx en Parlement (...) Collation est faicte. De Pontac*).

1979an P. Altunak aitzinatu zuen hipotesian —Juaristik 1987an eta Kortazarrek 1997an errepikatua—, aditzera ematen zen pribilegio horren izateak adierazten zuela LVP-ek beste inprimatze bat ukan zuela lehenago. Ene ustez, frantsesez idatzia den kolofoiaren okerreko irakurketan eta garaiko inprimatze ohiduren ez ongi ulertzean oinarritzen da interpretatze hori.

Más seguridad nos habría dado un colofón en regla, una indicación expresa de la fecha (y del lugar) de la publicación, que solía acompañar al *Cum privilegio*, muchas veces con mención de la imprenta. (...)

Del análisis del Extraits des registres de Parlement de Burdeos en su ámbito no es posible sacar conclusiones definitivas sobre la fecha de publicación de *Linguae vasconum primitiæ*. Si suponemos que la impresión siguió por el cauce normal, y suponemos que el plazo de tres años de privilegio comenzaba el día 30 de abril de 1545. Sin embargo, debido al silencio del tipógrafo, barruntamos que han podido surgir problemas que retrasaron esa publicación.

“Que quede *sub iudice lis*.” (Oroz Arizcuren 2008: 443-457).

⁴⁴ Seguraski 1550 urtearen inguruan Bordeleko Parlamentuko kontseilari izan zen L. de Pontac (c. 1505-c. 1566).

⁴⁵ Formulazioa ohiturazkoa dateke. Marotek 1533an Villonen poesiez egiten duen edizio berriari iduriko formulazioa aurkitzen da. Lekua aldiz ez da berdina. Maroten edizioan hastapeneko paratestuen artean aurkitzen da eta ez kolofoiaren parte bezala, 1530 urteetarik landa gero eta gehiago inprimategiek liburuetan zuzenbide tipografikoari emanen dioten leku berezia hartuz (Brun-Toulet 1968: 27). Kasu honetan kolofoiak titulua eta inprimatze bukaerako data hartuko ditu soilik (Marotek Villonen poesiez egiten duen edizioan, adibidez, “1533ko irailaren ‘azken eguna’”). Abisuak honela dio:

«A monsieur le Bailly de Paris, ou son lieutenant.

SVpplie humblement Galiot du Pre libraire iure de l’universite, qu’il vous plaise luy permettre faire imprimer & vendre les œuvres de feu François Villon, puy nagueres a la dilige(n)ce. de Cleme(n)t Marot valet de chambre du Roy nostre sire reueues, corrigees, & ordonner deffenses estres faictes a tous qu’il appartiendra, qu’ilz n’ayent a imprimer ne vendre lesdictes oeures selo(n) la coppie dudict supplia(n)t iusques a deux ans apres ensuiua(n)s, affin qu’il se puisse rembourser des impenses qu’il luy conuiendra faire pour l’impression dudict liure: & ferez bien. Il est permis avec les deffenses ce que requiert ledict suppliant. Faict le xxj Septembre, mil cinq cens xxxij.» I. Morin.» (*Les œuvres de François Villon...*, Maroten ed. Parise 1533).

Ezaguna da XVI. mendearen hastapenean inprimatzaile humanisten tailerretarik atera liburu anitz bertze inprimatzaile batzuk faltsifikatu zituztela papera eta tipografia arruntetan eta prezio apaletan inprimatuz (Febvre-Martin).⁴⁶ Ekintza horrek diru galtze handiak sorrarazten zituen inprimatzaile humanistendako. Horregatik, inprimatzaileek eta editoreek argitaratze garrantzitsu bat egiten zutelarik, botere publikoen pribilegioa eskatzen zuten. LVP-ren kasuan, pribilegioa hiru urterena izateak, eta jadanik aipatu den izunaren inportantziak agertzen ote dute inprimatze horri inportantzia ematen zaiola Akitaniako eskualdean? Ezin erran.

LVP-ren harreraz, bi aipamen labur baditugu XVII. mendean. Lehena, Isastirena. Isastik irakurria zuen eta baiezki baloratua.⁴⁷ Bizkitartean, ez dakigu irakurri zuen alea Morpainen ala Morront(z)en ediziokoa zen. Dena den, Isastiren bertsoan Etxepareren bertsoak aldatuak aipatzen dira.⁴⁸ Interesgarri den datua da, halere Isastiren lekukotasunak frogatzen baitigu LVP mugaz bertzaldeko euskaldeen ere ezagutu zela XVII. mendeko lehen bi hamarkadetan (ez dakigularik zer neurritan).

Beste datua Oihenarten jadanik aipatu dudana euskal arte poetikoaz 1665an idazten ari zen zirriborroan agertzen dena da. Bi aldiz datu berdintsua aipatzen du: lehen aldi barratzen du idatzi duen guziaz eta bigarren aldi barratzen du barratu zuena. Zirriborro horietan bi edizio aipatzen ditu, 1545ean pribilegio ukan zuena, gaur ezagutzen dugun *unicum*-a, eta Erroango Morront(z) inprimategitik atera edizioa.

Oihenartek, 1656an, LVP-tik atera bertso bat zitazten zuen 1656ko *Notitia*-ren bigarren edizioko XIV. kapitulan. Liburua aurki zitekeen, beraz, 1545tik (Oihenarten LPB-ren arabera “duela 120”) 1656-1665 urteak arte bederen. Oihenartek LVP-ren bi aleak, 1545ko pribilegio-data duena, Morronten inprimategitik ateraia dena “Arte poetikoa”-z idazten ari duen zirriborroan idazten baitu azken edizioa akatsez betea dela, bai barratua duen bertsoan, eta bai garbira pasatua duen bertso

⁴⁶ Ikus Febvre-Martin ([1998] 1999: 339):

Les publications des imprimeurs humanistes furent (...) fréquemment contrefaites au début du XVII^e siècle. A Paris, les impressions de Josse Bade sont souvent copiées par un groupe de libraires et d'imprimeurs, et l'imprimeur Des Prés va même, pour que l'imitation en soit parfaite, jusqu'à faire tailler un encadrement reproduisant l'un de ceux que Bade faisait figurer en tête de ses éditions. De même, à Lyon, on n'hésite pas à reproduire les éditions bâloises et vénitiennes. Si bien qu'à cette époque un Erasme ou un Despautère avaient sans cesse la surprise de voir paraître un peu partout des rééditions de leurs œuvres, pour lesquelles ils n'avaient nullement donné leur accord.

Pour éviter ces inconvénients, les éditeurs qui entreprenaient une publication importante furent de plus en plus amenés à solliciter des pouvoirs publics un privilège leur accordant pour un temps le monopole de l'impression et de la vente du texte qu'ils publiaient.

⁴⁷ J. de Urquijok dio: «Hubo, sin embargo, un escritor vasco, Lope de Isasti, que en 1625, dejó consignadas las siguientes palabras, en su *Compendio Historial de Guipúzcoa*: «Muchos años que M. Echepare de Navarra la Baja compuso un libro en esta lengua a lo divino»; pero, como dicho *Compendio* no se imprimió hasta 1850, esa curiosa noticia no trascendió, por lo visto, a los escritores vascos, hasta que, en 1847, Gustave Brunet, a quien Francisque-Michel habla del *Linguae Vasconum Primitiae*, publicó en *Actes de l'Académie royale des Sciences, Belles-Lettres et Arts de Bordeaux* la primera reimpresión del Dechepare (...). Ikus «Introducción a nuestra edición del *Linguae Vasconum Primitiae de Bernard Dechepare*», in <http://www.euskomedia.org>

⁴⁸ Nik Isastiren izkribuen XIX. mendeko edizioa dut ezagutzen. Eskuizkribuak ikusiak ez ditudanez, ez dezaket balora zein kanbiamendu ekarri diren ala ez diren ekarri XIX. mendeko izkribuan; ikus 74. oh.

honetan: “Une poesie basque quil fist Imprimer a bourdeaux chez françois morpain Et laquelle a esté depuis reimprimee a Rouen chez adrian morront, *Mais fort In-correcte*” (AAS-en etzana, Oihenart [1665] 1967: 37).

Morpain inprimatzaileaz dakizkigun xehetasunak Robert Desgravesenganik heldu direnak dira (Desgraves 1998). Parisetik Bordelen finkatzeko heldu zen Gaspar Philippe inprimatzaileak zuen lehendabiziko inprimatze leku finkoa ireki Bordelen 1520ean. Parisetik zekarren materiala letra gotiko eta letra apaindu «frango higatuez» egina zela dio Desgravesek. Philipperen segida Jean Guyartek hartu zuen (1520-1542), hau gero ezkontzen delarik Ginette Moline Philipperen alargunarekin. François Morpainen izena garai horretan agertzen zaigu. Guyarten langilea da lehenik eta gero honen inprimategia du hartuko bere gain 1542an, 1563 arte. Inprimategia hartzen duen urte berean, hots 1542an, karaktere tipografiko berriak, humanisten *lettera antiqua*-k sarrazten ditu lehen aldikotz Bordelen. Karaktere tipografiko berri horiekin inprimaturen da *LVP*. Morpainen heriotzaren ondotik (1563), “La Veuve Morpain”, haren alargunak, hartuko du bere gain inprimategia 1570 arte eta gero Pierre de Ladimek (1571-1587).

II.3. “Aduertant...” Abisuaz

LVP-ren inprimatzaileei eta irakurtzaileei ezarria zaien abisua hau da:

“Aduertant Impressor, & lectores quod. z. nunquam ponitur pro. m. Neq(ue). t. ante . i. pronunciatu r pro. c. Et vbi virgula ponitur sub. ç. hoc modo quod fit dum prae ponitur vocalibus .a.o.u. Tunc. c. pronunciatu r paulo asperius quam z. vt in. ce. ci.”

[“Ohar bitez inprimatzailea, eta irakurleak z. ez dela sekulan *m.*-ren ordez ezartzen ez eta *i.*-ren aitzinean *t.* ez dela *c.* ahoskatzen. Eta modu honetan bezala *a. o. u.* bokalen aitzinean *ç*-ren azpian kakoa ezartzen delarik orduan *c.* ahoskatzen dela z. baino pixka bat latzago *ce. ci.*-n bezala.”]

¶ Aduertant Impressor, & lectores quod. z. nunquam ponitur pro. m. Neq. t. ante. i. pronunciatu r pro. c. Et vbi virgula ponitur sub. ç. hoc modo quod fit dum prae ponitur vocalibus. a. o. u. Tunc. c. pronunciatu r paulo asperius quam. z. vt in. ce. ci.

LVP: Abisua

Frantsesaren “gramatizazioan”⁴⁹ gertatzen diren fenomenoak inportanteak dira *LVP*-ko euskararen ortotipografiatze-sistemaz zerbait ulertzeko; “Aduertant”. (“Ohar

⁴⁹ Ik. Cerquiglini (2004: 52-53): «Plus généralement la langue française entre dans un processus de «grammatisation», selon de terme de Sylvain Auroux, qui désigne ainsi l'équipement technique dont une langue peut être dotée (grammaires, dictionnaires, etc.), et la conscience de cet équipement (politique linguistique, enseignement, etc.). Cette grammatisation du français que le Moyen Âge avait ignorée, et dont le latin était seul bénéficiaire, accompagne le rayonnement nouveau des langues vulgaires;» (etzanak AAS-enak).

bitez...”) “Abisua”-n “ç”-aren aipamenaren ikustea aski da gauza horietaz ohartzeko. “ç” edo “C buztanduna” 1530 urteetan sartu zen Parisen, eta LVP-ren garaietan sartu dateke Morpainen bidez Bordelen. Meigretrek *Traité touchât Le Commvn Vsage de L’Escritvre Françoise...* tratatua pasarte luzeak eskaintzen dizkio “C”-aren grafia-ahoskeraren problematikari, azpimarratuz “C buztandunak” dakarren aitzinamendua ([1542] 1545).

LVP-eko «Aduertant...» abisua latinaren eta frantsesaren irakurtze kodeak ezagutzen dituzten irakurleentzat egina da eta haren egileek irakurle aditu horrentzat beharrezkoak diren puntu problematikoko guti batzuk dituzte bakarrik aipatzen. Gainerako punduetan, oharraren egileek suposatzen dute irakurle letratuak oinarrizko kodeak ezagutzen dituela. Badaki zer balio foniko eman ‘v’ grafemari balio kontsonantikoa duelarik, “vihoça” hitzean bezala, edo bokalikoa “Vnharçuna” hitzean bezala; badaki tilde zeinu diakritikoak laburdura balioa duela ‘ã’ bokalaren gainean delarik “cãpora” hitzean bezala, eta “campora” duela irakurri behar; badaki puntuaren funtzioa zein den (zergatik puntuaren ondotik maiuskulak erabiltzen diren, edo zergatik puntua koplen bukaeretan aurkitzen den), etab.

«Aduertant» abisua inportantea da euskararen gramatizazioa nola arrazoitzen den LVP-en agertzen duelako. Erakusten du bereziki euskal “ortotipografiaz”⁵⁰ izan zitezkeen eztabaidetan oinarrizko eztabaidetarik bat euskararen fonetikaren arabeko transkripzio egokien aurkitzea zela. Hain zuzen, garai hartan frantsesaren gramatizazioan puntu hori oinarrizkoa baitzen eta prezeski Meigreten “fonozentrismoan” (Cerquiglini 2004: 70-71)⁵¹ ikus daitekeen bezala.

Berriz ere ohartzeko gara euskararen normalkuntza linguistikokoaren ulertzeko frantsesarenean zer gertatu zen behatu behar dela. Bertzalde, aitzinatu behar da ene us-tez, Etxeparek LVP-en egin hautu linguistikoen eta Leizarragarenean artean suma daitekeela *continuum* bat, eta are gehiago aitzinamendu bat. Morpainen inprimategian gauzatu den euskararen gramatizazioaren hastapenak itxura guzieren arabera jarraiki du 1545 eta 1571 artean Akitaniako inprimategietan.

⁵⁰ Hitza —N. Catach-ek sortua— Cerquiglinik bere gain hartzen du (2004: 53-54): «Les années 1530 paraissent à bien des égards fondatrices. Faisant émerger le thème de la fixation orthographique, proposant des linéaments d’une pratique, elles orientent ce qui deviendra plus tard un véritable courant réformateur. Moins pour l’inspiration générale (le phonocentrisme préoccupe peu des éditeurs désireux seulement de procurer une copie probe, régulière et lisible) que pour les méthodes, et les solutions proposées. La réforme orthographique naît dans ce que Nina Catach a justement nommé l’«*orthotypographie*» (AAS-ek azpimarratua). Elle s’inscrit dans le labeur éditorial, relève de l’activité humaniste qui apprête le texte: dessin et choix des caractères, mise en page, séparation des mots, majuscules, ponctuation. Elle est fondamentalement un toilettage de la graphie, et comme son édition; les réformateurs sont toujours des professeurs, des philologues émendant l’orthographe comme ils corrigent les textes, les pourvoient de signes diacritiques et de ponctuation, les annotent. De cette activité seconde, le meilleur exemple est la mise en œuvre d’une accentuation. Nouveauté dans la graphie française, les accents sont significatifs de cette orthographie des années 1530, ils constituent l’acquis principal de la modernité renaissante («le seul vrai progrès est ici»), fondent et illustrent le geste réformateur».

⁵¹ Cerquiglinik Meigretrek bere *Traité*-an hartzen dion jarrerari, «idatz ahoskatzen duan bezala» («escris comme tu prononces»), «fonozentrismoa» deitzen dio, hitzaren ahoskatzean, soinuak, oinarritzen delako izkribu konbentzioen erabilera gramatikokoaren finkatzeko.

Abisuan ikusten da ortografiaren finkatzeko ahoskera oinarriztat hartu behar dela eta ortografia ahoskeraren menpe dela.⁵² Meigreten gomendioaren arabera frantsesaren ortografiaren erreformatzeko:⁵³

«& escrits comme tu prononces. (...) L'écriture secondement peut estre mauuaise, quant elle est composée de plus de lettres que ne requiert la pronôciation: par ce que telle écriture donne occasion de faire fausse lecture, & et de prononcer voix, qui n'est point au vocable» (*Traité... Des causes de Fausse Ecriture Avec leur blasme. Chapitre premier*)

«ayans tousiours comme ie vous ay dict la prononciation deuant noz yeux: car cest le vif, & le refrain de nostre écriture» (*Traité... Des diptongues. Chapitre III*).

LVP-eko «Aduertant»-en arazoak txistukari frikari ahoskabearen soinuarendako hautatu behar den grafiaren inguruan dabiltzala ikusten da. Kontua delarik hau: soinu batek ez ditzan grafia ezberdinak ukan. Helburuak arrazionala behar du, eta aterabideak ere bai. Kausitzen da hemen ere berriz humanismoaren “aztaparraren” seinale seguru bat xinpletasunaren erabilpenean datzala: Ciceroren, Quintilianusen, Erasmoren sinpletasuna jarrera linguistikoetan, eta Kristok Ebangelioan praktikatzuen sinpletasuna jarrera ebangelikoan.

Humanismoaren izpiritua eta zentzu praktikoa —ikus Toryren lanak, Maroten Villonen edizioa, Doleten gramatika, Meigreten tratatua— ortotipografia printzipio ahal bezain sinple eta argietan oinarritu behar da, letrak irakur errexak behar dira, ez gotikoak bezalakoak. Inprimatzearen bidez humanismoak sustatu «herri-hizkuntzen dantzara» lehen aldiz sartzen den “heuscara” ildo horretan sartzen da. Erran gabe doa, “herri” hitzak ene lumapean zentzu jakintsuena duela, XIX. mendeak sustatu duen “herri”, “populu” ikuspegi neo-erromantikoarekin ezer ikustekorik. Kontra-zentzu oso bat da Etxepare “herri” (= ez letratu) ildo horretan kokatzea.

Erran dut gorago euskararen ortotipografiatzeak pausatzen zituen arazoei aurre egiteko ikusten diren aterabideak, 1530-1545 inguruan frantses humanistek frantsesaren ortotipografiatzeko ukan zituzten saioetara hurbildu behar direla. Euskaraz txistukari frikari ahoskabearen ortotipografiatzeko «Aduertant»-en agertzen den oharra salatzen du “C” grafiak “nahasmenduak” ekartzen dituela euskararendako ere. Pundu horri doakionez, beheago ikusiko den bezala, Etxepare-Lehet-Morpainek euskararendako hautatu aterabidea Meigretekin bere “Traité”-an frantsesarendako proposatu aterabidea kontuan hartuz egina dateke “Ç”-ren inguruan zabaltzen duen solasaldiak erakustera ematen duen bezala. Horrek, halere, ez du frogatzen Meigret iturria zuzenean ezagutzen zutenik Etxepare-Lehet-Morpainek, Toryk 1529-1532 datetan, Doletek 1540ean, besteak beste, aipatzen baitzuten txistukari hortzkari gogorraren ortotipografiatzeko “C”-ak zekartzan arazoak. Dena den, frantsesaren ira-

⁵² Ideia, ikuspegi aristoteliko zaharretik datorrelarik (arima/hitza/eskritura) (Cerquigliani 2004: 72).

⁵³ Ik. berriz Cerquiglianik dioena: “Louis Meigret avait pourtant publié en 1542 (et conçu sans doute, d’après son aveu, dès les années trente) une réforme radicale, cohérente et qui fait l’admiration des historiens de la graphie. Pour la première fois, l’orthographe française traditionnelle était critiquée dans son principe et ses défauts, ses incertitudes examinées et dénoncées; pour la première fois, la fixation de cette orthographe était envisagée concrètement, par le biais d’une simplification, et assortie d’une formulation d’ensemble. Meigret énonce en effet une idée simple et qui fera fortune: il convient d’écrire comme on parle» (Cerquigliani 2004: 70-71).

kurlearendako “C”-aren grafiaren ahoskera zuzenaren inguruko arazoa eta “Ç”-k dakarren salbabidea problematika berria da oraino 1542an Frantzia, frantsesaren normalkuntza bidean. Frantsesarendako dio Meigretrek “C”-ren grafia bereizi beharko dela soinua “S” delarik eta “K” delarik —“Car il me semble qu’il est aussi raysonnable de diuersifier le C, quant il sonne en S, de celuy qui sonne en K— ikusiz “ahoskera ere dibertsoa dela” —“attendu mesmement que la prononciation est diuerse”— eta kontseilatzen du “ç”-ren sartzea, espainolen ohidurari jarraikiz, nahaskeria hori zuzen dadin:

Pour nous oster doncques de ceste confusion du C, i’ay aduisé que les Hespaignols ont vng ç crochu, ou à queue, dont nous pourrôs vser deuant toutes voyelles: deuât lesquelles nous vsurpôs le C, en S (*Traité... Des consonâtes. Chapitre III*).

Impressor⁵⁴ & lectores”-i «Aduertant» baten gehitzeak, agerrarazten du, izan ere, aipatuak diren hiru punduei ekartzen zaien aterabidea berria dela, eta ez dela ongi ezagutua, edo ez dela batere ezagun Bordeleko elite kulturalen eta Akitaniakoan. Alderantziz izan balitz, ez zen «Aduertant» baten gehitzeko beharrik izanen... «Aduertant»-en erredakzioa gobernatzen duen printzipioa, erran bezala Meigretrek 1542an aipatu sinpletasunaren bidetik doa, eta, hain zuzen, aitzinatu zuen printzipio oinarritzakoaren arabera: soinua da lehen, gero izkribua, “gure hizkuntzaren erabilerak bakarrik gobernatu behar duelako gure ahoskera”, “Car le seul vsage de nostre lague doit gouverner nostre prononciation”.

Abisuan letratuarendako berriak diren aldakuntzak ondoko lerroetan aipatuko dira.

II.3.1. *M*-ren abrebizioaz

“quod. z. nunquam ponitur pro. m.” «z. ez dela sekulan m.-ren ordez ezartzen”.

Adibidez, “cuz”-ek ez du “cum”-en balioa izanen; ikus Oroz Arizcuren (2008: 453). Dirudenez, kasu honetan ere irakurketa erraxaz nahi da “Z” letra bezala erabiliz, ez zeinu diakritiko gisa. Beharbada arazo hau agertzen da gero aipatuak diren txistukarien ahoskatzearen grafiarekin lotua delako “Z” letra greko honen kasua.⁵⁵ Horregatik uler daiteke zergatik “Z” letra bezala agertzen den *LVP*-en eta nehoiz ez laburdura bezala, adibidez: “oroz”, “ezac”, “eztaguiten”, “partizia”, etab.

⁵⁴ Ohar hau barnekoendako (euskarafonoendako) bezainbat kanpokoendako (latin klasikoaren irakurle eta frankofonoendako) egina da. Oharrak informazio bat dakar liburuaren ofizioko jendeendako («Impressor») eta irakurle orokorrendako («lectores»): *Aduertant*-en adierazia zaigu liburu guzia nola behar den hartu, errezebitu eta kulturalki kokatu, bere materialitatean, eta nola irakur daitezkeen euskararen ahoskeraren arabera.

⁵⁵ Garai berean frantsesaren gramatizazioaren arloan ere, beste era batez hizkuntzek fonetika diferentak dituztenez, *Z* letraren inguruan arazoak badira, Meigreten oharrek agertzen duten bezala:

Car au lieu du z que nous prononçons souuent, nous escriuons vne s, mesmement entre deux voyelles, comme en disons, saisons, & ainsi de tous les autres. Au contraire aussi comme quasi pour recompense, nous escriuons vng z final, là ou souffiroit vn s. (*Traité... Des consonâtes. Chapitre III*).

II.3.2. ‘TI’-ren / ‘CI’-ren ahoskatzeaz eta ortotipografiatzeaz

“Neq(ue). t. ante . i. pronunciatur pro. c.” “eta i.-ren aitzinean t. ez dela c. ahoskatzen”.

Etsenpluak, ahoskera eta grafiaren (“pronunciatur pro. c.”; “t. ante.i.”) arteko arazoa planteatzen du eta euskararendako egin den hautua zehazten du. Oharrak irakurle latinista eta frankofonoa latinaren eta frantsesaren ahoskatze/idazte ohiduretara bidaltzen du. Alegia, “-TIU/-TIO” grafia latinez “-CIO/-CIU” bezala ahoskatzeko ohidura bada txistukari frikari ahoskabe soinuarekin, “*dictio*”-ren (AASen etzana) kasuan bezala, baina Meigretendako ohidura hori okerra da “-TIU/-TIO” leherkari belare ahoskabe bezala ahoskatu behar bailirateke. Kasu hori du LVP-eko abisuak aipatzen. Ohar gaitzke Meigretrek latinarendako gomendatzen duen jarrera bera hartzen dela euskararendako LVPeko Abisuan: <t> zeinu grafikoa, horzkari herskari gogor bezala ahoskatzen da <i>-k segitzen duelarik.⁵⁶ Ez da txistukari horzkari ahoskabe bezala ahoskatu behar Meigreten ustez, frantsesez egiten den eran, latinezko ahoskera okerra hartuz etsenpluztat. Eta Meigretrek hartzen du etsenplu bezala, “-TIO” “*manifestation*” (AASen etzana) hitza frantsesez, “-CIO” bezala ahoskatzen baita txistukari baten soinuarekin eta ez “TIO” bezala herskari gogor bezala.

Frantsesez den ohitura hori salatzen du Meigretrek erranez “abusu” bat dela beti defendituko duen printzipioaren arabera: ahoskatzen den bezala idatzi behar da. Dio “latinoek [latinzaiek] berek latin hizkuntzan egiten duten ahoskatze okerretik datorrela” ohidura txar hori, eta frantsesean sarrarazi duten usantza okerrarengatik <t>-aren “korrupzioa” sarrarazi dutela “*diction, manifestation, malediction*” hitzen ortografian; “latinoak ez direnek” aldiz, ahoskatzen duten bezala idazten dutela, “*prononciacion*” idatziz adibidez <c> batekin, <t>-aren ordez.

LVP-en egina den oharrak erakusten du euskararen gramatizazioarako hartua den ikuspundua sinpletasunaren izenean egin dela. Ikuspundu hori hartuz aztertu behar litzateke hurbiletik obra guziaz berifikatzeko ea aplikazioa beti zehazki obserbatu den. Baina jadanik ikus daiteke LVP-en agertzen den ahoskeraren arabera idazteko oharra, Meigreten filosofiarekin bat doala. Meigretrek beti argitasuna gomendatzen du, haren oharrak “fonozentrismoan” oinarritzen dira nahaskerien ebitatzeko, xinplesunaren izenean. LVP-en tazitoki “abusuak” dira salatzen, ohartarazten delarik <ti> idazten delarik ez dela sekulan “ci” ahoskatu behar. Eta larderiako adbertentzia horietan den borondate didaktikoa (“*neque* pronunciatur” [AAS-en etzanak]) argi da. Irakurleari erakusten zaio latin korruptoan (eta frantsesez) segitzen den okerezko ohiduraren segitzea *debequetua* dela euskaraz.

Jadanik LVP-ren inprimatzea baino lehenago hasia zitezkeen euskararen idazteko normez gogoetak, eta jadanik bazitekeen euskaraz idazteko “ohitura” bat. Halere, pentsa daiteke humanismo garaian dela sustatzen eta finkatzen euskararen “gramatizazioa” LVP-ren inprimatze ekintzaren bitartez. Hori dukete frogatzen “Aduertant”-en fonozentrismoan zentratuak diren ohar ortotipografiko guziek. Pundu honen agerian ezarritzea oinarritzeko da hizkuntzaren historiarentzat.

⁵⁶ Seguraski ez da bakarrik “T + I” zalantzan baizik eta T + I eta bokal guziaz, hain zuzen, “T + IA/IE/IO/IU”.

“Advertant”-en hiru hautu aipatzen dira:

1. ‘TI’-n den ‘T’ euskaraz ez da txistukari hortzkari baten soinuarekin ahoskatuko, baizik eta hortzkari herskari baten soinuarekin, latin klasikozaileen ahoskatze moldea hartuz;
2. Euskaraz soinua txistukari hortzkari gogorra delarik “C” grafia erabiliko da adibidez, “CI” etsenpluarekin gelditzeko, “reputacione” idazten da LVP-en;
3. Sekulan ez da grafia bera erabiliko bi soinu ezberdinendako. Eta hortzkari herskari gogorrendako “T” grafia erabiliko da bi ahoskerendako bi grafia erabiliz. “TI” eta “CI” etsenpluekin gelditzeko LVP-en “*ecitian*” aurkitzen dugu.

Anekdotaz bezala, aipa daiteke frantsesaren gramatizazioaren prozeduran Meigreti “CI” grafiaren ahoskatzearen inguruan agertzen zaion beste arazo bat. Kanona, Meigretrek kontuan hartuz latinaren ahoskatze/idazte prozedura dela, beti bezala salatzen du frantses latinistek “Cicero” hitzaren duten ahoskatze okerra. Obserba daitezke bi ahoskatze mota grafia berarendako eta hori ezinonartuzkoa da Meigretendako ikusi dugun bezala. Haren erabakia latinaren ahoskatze klasikoan finkatuko da humanismo puristenaren izenean (Erasmoren bidea segituz). Kikeroren izenaren ahoskatzea hautatzen du etsenplutzat. Ondorioz, “CICERO” frantsesez Meigreten ustez ahoskatu behar da “KIKERO”. Erran nahi da, herskari belare ahoskabea erabiliz, ez “SISERO”:⁵⁷

Je laisse à pèsér aux Latins de quelle autorité ilz prononcent le c, en s, auant e, & i, & en semblable le g en i consonâte, & combien est estrange la pronôciation de Cicero en pronôçant Sisero, au pris de dire Kikero. Pensez comme nous trouueries estrange en nostre langue si quelqu’vng prononçoit Safet pour Caquet. Toutesfois quelque chose qu’en dye Quintilian, & Priscian: & apres eux Erasme, on y voyt point d’amendement. Et au lieu de prendre peine (qui ne seroit pas grande) de bien prononcer selon l’ancienne coustume des Latins, chascun s’excuse sur la faulte d’autruy, disant que les plus sauants en vsent ainsi» (*Traité... Des consonâtes. Chapitre III*).

Dena den, euskararen kasuan zalantzak badirela ikusten da LVPen, bereziki afrikatuen kasuan.⁵⁸

II.3.3. “Ç”-aren kasua

Et vbi virgula ponitur sub ç, hoc modo quod fit dum prae ponitur vocalibus .a.o.u. Tunc. c. pronunciabitur paulo asperius quam z. vt in. ce. Ci, «Eta modu honetan bezala a. o. u. bokalen aitzinean ç-ren azpian kakoa ezartzen delarik orduan c. ahoskatzen da z. baino pixka bat latzago ce. ci.-n bezala”.

⁵⁷ Frantsesez “si” / “se” txistukari hortzkari ahoskabe bezala ahoskatzen dira eta Meigretrek idazten duelarik “Sisero”, euskaraz gaurko ortografian idatz genezake “Zizero”.

⁵⁸ B. Oyharçabalen ustez “euskarari berari (eta ez frantsesari) dagozkion arazoetan ez da hain argi LVP”. Bereziki afrikatuen kasuan: *ecitian/etzitian*, non ‘c’ = /tz/.

Ikusten da txistukari hortzkari gogorraren⁵⁹ ortotipografiatzeko frantsesaren bidea hartu dela eta, beraz, euskaraz “Ç” grafiaren erabiltzeko erabakia hartua da, frantses humanistek erabaki zutelako 1530 urteetan gaztelarren ohituraren segitzea. Tory bezalako frantses inprimatzaile humanistek, Marotek (1533), Doletak (1540) eta Meigretak (1542) azken 12 urteetan frantsesarendako egin gomendioak aplikatuz euskararendako.

Abisua egiten da “Ç”-aren usantza oraino arrotza delako. “Ç” grafiaren erabilerak anbiguotasunak argituko ditu frantsesez. “C” erabiltzen zen *garçon* (“mutikoa”) eta *maçon* (“argina”) hitzetan “co” silaba txistukari balioarekin erabiliz “sso”, eta ez herskari “ko”. Hemendik aitzina *garçon*, *maçon* erabiltzen ahalko da soinu batentzat grafia bat erabiliz. Horregatik dio Geoffroy Toryk *Champ Fleury*n (1529):

C. deuant O. en prononciation & langage Francois, aucunesfois est solide, cōme en disant Coquin, coquard, coq, coquillard. Aucunesfois est exile, comme en disant Garcon, macon, francois, & aultres semblables.

Toryk ortotipografiaren erreformaz duen ideia zabaltzen duelarik Frantzia *Champ Fleury*-n, saiatzen da lehenik txiskukari hortzkari ahoskabearen grafiaren arazoaren zuzentzen frantsesez, ‘C’-ari ‘E’ bat, edo ‘Z’ bat, lotuz «piecza» edo «decza»-n bezala ([Tory 1529, 1931] Cohen: 1), Rabelaisek eginen duen moduan. Baina arazo hori konpondu «Ç»-ak du konponduko. Izan ere, 1533an Toryk berak zabalduko du ‘Ç’-aren erabilera Frantzia Maroten *L’Adolescence clémentine*-ren laugarren edizioa inprimatzen duelarik «azentu batzuk notaturik (*avec certains accens notez*) eta *Briesve doctrine pour deuement escrire selon la propriété du langaige françois* lanean (Febvre-Martin [1958] 1999: 447).

Ikusi dugu Meigretak, *LVP*-ren garaian, *Traité...*-an «Ç»-ren erabilera defenditzen duela. Meigretak, anekdota bezala agerrazten du «Frantziako emazteek» erabiltzen dutela Espainiatik heldu du grafia berria ere, «gure gizonen arteko sabantenek» baino zentzu gehiago erakutsiz. Meigretak «C»-ren «bereizkuntza» bat nahi baitu, «S» soinua eta «K» soinuarentzat:

Car il me semble qu’il est aussi raysonnable de diuersifier le C, quant il sonne en S, de celuy en K: attendu mesmement que la prononciation est diuerse, comme en façon, & facond, que de faire diuerse l’écriture de nous, primitif, & de noz deriuatif: qui ne sont en rien differens en leur prononciation. Pour nous oster doncques de ceste confusion du C, ont vng ç crochu, ou à queue, dont nous pourrōs vsere deuant toutes voyelles: deuat lesquelles nous vsurpōs le C, en S, en escriuant de ça çeçy façon, non pas que ie veuille dire que S, ne s’y puisse bien mettre, quoy que les homes de france se moquent des Dames le faisant ainsi. Des quelles si nous recherchons la façon d’escrire, nous la trouuerōs⁶⁰ beaucoup plus raysonnable, & mieux poursuyuiu selon l’Alphabeth, que celle des plus sauās homes des nostres (*L’Ecriture François. Des consonātes. Chapitre III*).

⁵⁹ Ikus Toryk dioena: «Zeta comme dit Galeotus Martius (...) non est litera, sed duplex sibilus, Id est, duplex SS (...). C’est-à-dire, Z nest pas lettre, mais est vng siflement double, qui vault deux. SS.» (Tory [1529] 1931: lxiii).

⁶⁰ Aurreko orriaren bukaeran: «trouuerons».

II.5. Tipografia/Ortotipografia

Orain arte LVP-en erabilia den tipografiaren berezitasuna ez da azpimarratua izan, alta erran nahi handikoa da liburuaren sorkuntza-alorraren agerrarazteko. LVP “littera antiqua”-n, hain zuzen, humanistikoak diren “karaktere erromatarretan” idatzia da.⁶¹ Bizkitartean, puntuazioa minimala da eta tipografiako aitzinamendu finenak falta dira, karaktere italikoak eta azentuazioa (Aldo Manuciok Venezian, 1501ean Virgilio-ren editatzeko erabiliak lehen aldiz).

Italikaren (gure “etzana”-ren) erabilera eta azentu tipografikoa⁶² (ez bakarrik diakritioa dena) pundu garrantzitsuak izanen dira frantses humanistendako. Euskararen azentuazioa Pierre Haultin semearen inprimatzaile humanistaren prentsetan gauzatu da lehen aldiz Leizarragaren itzulpenen argitaratzearekin (Arcocha 2001). Humanismoaren barnean agertzen den euskararen azentuatzearen sarrera, berriz aurki-

⁶¹ Ikus Febvre & Martin (1999: 113-114 eta 120-121):

Vers 1450, à l'époque où naissait l'industrie typographique, les textes étaient copiés selon leur nature ou leur destination dans des écritures très différentes. On pouvait distinguer quatre types principaux d'écriture, dont chacun avait sa destination propre.

D'abord la gothique des écrits scolastiques, la traditionnelle «lettre de somme», chère aux théologiens et aux universitaires.

Ensuite, la gothique plus grande, moins ronde, avec des traits droits et des brisures dans les caractères: la «lettre de missel» employée dans les livres d'église.

Puis un dérivé calligraphié de l'écriture cursive employée dans les chancelleries (dont chacune avait type traditionnel); la gothique «bâtarde», écriture courante des manuscrits de luxe en langue vulgaire, mais aussi de certains textes latins généralement narratif (...)

Enfin, une dernière venue, promise à un grand avenir puisqu'elle deviendra l'écriture normale des textes imprimée dans une grande partie de l'Europe occidentale: l'écriture humanistique, la «littera antiqua», la future «romaine» (...) mise à la mode par Pétrarque et ses émules, était seulement employée vers 1450 par de petits groupes d'humanistes et de grands seigneurs bibliophiles (...). Le caractère romain prend donc une place chaque jour plus grande à mesure que croît la faveur de l'humanisme. (...) Mais le nouveau caractère n'a pas encore droit de cité partout. Pour quelque temps encore les universitaires lui préfèrent la lettre de somme: celle-ci ne disparaîtra qu'au cours des décennies suivantes, d'abord des traités juridiques, puis des textes de théologie; elle se maintiendra plus longtemps encore dans les livres liturgiques. Surtout l'immense masse des bourgeois et des gens du commun, habitués à déchiffrer l'écriture manuscrite, restent longtemps fidèles à la gothique bâtarde qui s'en rapproche plus que le romain ou l'italique. (...) longtemps donc, on continue d'utiliser la lettre bâtarde traditionnelle pour imprimer les livrets populaires, almanachs et «plaquettes gothiques»; les typographes, d'ordinaire fort pauvres, qui tirent ces ouvrages à des milliers d'exemplaires, utilisent jusqu'à usure complète ces alphabets qu'ils rachètent à bas prix aux imprimeurs plus riches lorsque ceux-ci n'en veulent plus. C'est plus tard, dans la seconde moitié du siècle, qu'obligés d'acheter un matériel nouveau, ils se décident à adopter le caractère romain que leur public a, peu à peu, appris à connaître.

⁶² Ikus Cerquiglini (2004: 54):

Les grammairiens latins faisaient des accents un usage didactique; les humanistes en font un signe typographique. Cette innovation est promptement adoptée par les imprimeurs français; significative, la position d'un Robert Estienne, très attaché à l'orthographe ancienne, et rétif à tout changement: dès 1526, pour son Térence, Estienne accentue ses textes latins exclusivement. Mais ses confrères, favorables dans leur ensemble à un progrès graphique du français, trouvent là une aide précieuse, et l'expression exacte de leur aspiration. L'accent est le signe de la réforme. Participant de la toilette du texte, de l'émendation de l'écriture, surajouté au mot et dominant la ligne, il est cette thérapeutique de la lettre que désire la pensée réformatrice.

tzen da, modu ezberdinean, Oihenartekin 1657-1665 artean bere poesien eta erran zaharren inprimatzerako eraikitzen duen azentuazio-kodearen bitartez.

II.5.1. Karaktere erromatarrak

Lehenago erran bezala, karaktere tipografiko erromatarraren sartze ofiziala Frantziar Geoffroy Tory humanista eta inprimatzaileari zor zaio *Champ Fleury ou l'Art et Science de la Proportion des Lettres* deitu "tipografia tratatua"-ren ateratzearekin (ik. Cerquiglini 2004: 54) 1529an zabaldu zelarik liburu hori, oihartzun handia lortu zuen François 1^{er}ren gortean, eta erreinuko humanista eta letratuen artean. Toryk bere italiar kolegek biziberritu duten antzinako alfabetoa Frantziar sarrarazi nahi du. Dürer-en eta Leonardo da Vinciren bidea segitzen du alfabetoa geometrikoki eraikiz, laukiari eta haren eraikuntzari esker (diagonalak, medianak, zirkulua). Leonardoren-tzat bezala, gizakiaren gorputzarendako kokagunea da Toryrentzat laukia.⁶³

...
go iauna nola batere ezten affay atu
briaren fauoretan heufscaraz ce rbait
ributan imeitera ceren ladin publi
a berce lengoagiac beçala hayn scri
sta caufa honegatic gueldit zenda a
putacione vague eta berce nacione
denfere scriba dayteyela lengoage
oroc baitu te scribatzen beryan Eta
na noble et naturazcoac beçala bay
oratzten eta ohoratzten heufcara gu
bia beçala igortend arauritzut heu
tzurene ignoranciaren araura egui
hayec iqhuuffiric eta correçituric pla
irudi baçautzu imprimi eraci diçã
ic oroc dugum ioya ederra Impri
orano içan eztena eta çure hatse ho
erat augmenta continua eta publica
eta baçoec bercec beçala duten be

Linguae Vasconum Primitiæ

LE TIERS LIVRE.

DEle I, toutes les autres lettres, côme iay dit, pres n'ont eue cōuenant a estre faictes & escriptes. Cest a scauoir, ou en estant garde en sa droite ligne, ou en estant resleue & courbe, ou en estant brise. Et iuy seul entre toutes les lettres garde sa droite ligne perpendiculaire, a limitation du corps humain, qui luy estât sus ses pieds tout droit la represente. En luy ouurat les bras & iambes peu ou plus monstre la dite brisure, comme il peut estre facilement entendu en la sequente figure q' iay faicte apres celle que vng myen seigneur & hō amy Jehan Perreal, autrement dict Jehan de Paris. Variet de chambre & excellent Peintre des Roys, Charles hui tiesme, Loys douzieme, & François Premier de ce nō, ma communiquee & baillee moult bien pourtraicte de sa main.




Jehan Perreal, autrement dict Jehan de Paris.

I.V.L.
M.C.D.
Q.X.
Lettres
seuuant a
nombres

Pource que a lais de de Dieuie su is venu a propos de dire commant nostre dit I, est seuuant mis en nōbre, il me semble neire inutile dire ausi quelles autres lies font prises pour nombre, sans en Latin quez Francois.

Donques ie dis qui ya huit lettres qui seuuant a nōbre, Cest a scauoir, Deux vocales. I. & V. Deux Semi-vocales. L. & M. Trois Mutes. C. D. & Q. Et vne double Consonne. X. Le I. seul est mis pour vng. Quant il est double, il en vaut deux. Quant il est triple, il fait trois. Et quant il est quadruple, il signifie quatre. Et notez quil ne se multiplie plus oultre avec soy mesmes. Il se multiplie avec les autres dites




Champ Fleury

⁶³ Cf. "Dans son *Champ Fleury* qui est d'abord un traité de typographie, Tory se propose d'introduire en France l'alphabet antique, restauré par ses collègues italiens; un alphabet que, suivant Dürer et Léonard de Vinci, il établit de façon géométrique, à l'aide du carré et de sa construction (diagonales, médianes, cercle), un carré où, comme Léonard, il inscrit le corps humain" (Cerquiglini, *ibid*).

Toryren ortotipografiaren helburuetan diren ardatz nagusiak:

- i. grafia tradizionalaren finkatzea;
- ii. konposizio-protokoloen erabakitzea;
- iii. episkripzio baten bidez foniarekin loturen egitea. Hitz batez, Toryrentzat oinarrizkoa dena da norma baten eraikitzea frantsesa herri-hizkuntzarendako. Horrela da hasi “frantsesaren lehen gramatizazioa” (Cerquigliani 2004: 55).

Frantsesaren gramatizazio prozedura oinarrizkoa denez, euskararen inprimatzeko orenean egiten diren hautu ortotipografikoen ulertzeko.⁶⁴ Etxepare-Lehet-Morpain-ek LVP editatuz euskararen lehen ortotipografia agertzen dute; euskararen finkatzeko eta normatzeko helburua LVP-ren agertzearekin eta publikatzearekin egiten da



unduy áde
langoycoa
Bere irudi
Memoriaz vorondat

Vp
pai
de l
pet.
pri
frái

Court inhibitions e
libraires de ce D. G.

LVP: karaktera erromatarak



Champ Fleury: karaktere tipografikoen mustra
hemen gotiko bastardoaren minuskulak

⁶⁴ XVI. mende hastapenetik hasita Frantzia eta Alemania dira, Espainia eta Italia ez bezala, liburu inprimatuaren industria modu aktiboenean atxikitzen dutenak Europan (Febvre-Martin [1958] 1999: 271-272). Beti Febvren ustez, Espainian, nahiz 1514-1517an Biblia poliglota inprimatu zen, inprimategia ez da aitzinatzen eta denbora luzaz karaktere gotikoen erabilerak segitzen du, kontuan hartu behar delarik anitzetan kanpoan, Anberesen edo Lyonon, inprimatuak diren liburuen leitzen segitzen dela. Hiru zentru dinamikoak Salamancakoa, Barcelonakoa eta Sevillakoa direlarik (...) XVI. mendearen bigarren erdian dira ugaltzen hasten inprenta-tailerak Espainian. Madrilen, XVII. mendetik landa da liburuaren industria loratuko (Febvre-Martin [1958] 1999: 271-273).

eta, humanistek dutenez gauzatzen inprimatze proiektu hori garaiko bide modernoan obratu da. Azpimarra dezagun berriz hemen karaktere tipografiko erro-matar (kapitala eta minuskuletan) humanistiko berrian ortotipografiatua dela *LVP*, Akitaniako, Frantzia gainerakoko eta Margaritaren Nafarroako erreinuko poesia-zaleak gotika bastardoan inprimatuak diren liburuen irakurtzen ohituak direlarik. Modu horretan gauzatzen da, ene hipotesiaren arabera, euskararen gramatizazioaren hastapena. Kontuan hartuz, «Aduertant»-ek argi uzten duen bezala, euskararen gramatizazio hori Meigretrek, besteak beste, frantsesaren gramatizazioarendako defen-ditu zuen xinpletasunaren bidea segituz, ahoskerari pribilegioa emanez, egina izan dela.

II.5.2. Puntuazioa

LVP-en diren testuei behako bat eginez, ohar gaitzke bost urte lehenago Etienne Dolet humanistak *La manie de bien traduire d'une langue en aultre* (Paris, 1540) lanean *Daduantage. De la punctuation de la langue Francoyse. Plus. Des accents d'ycelle* sailean puntuazioaz egin gomendioak ez direla aplikatzen. Doletrek dio puntuazioaz diren erregelek inprimatzea “aberasten dutela anitz” («car telles choses enrichissent fort l'impression») eta erakusten dutela “ez dugula deusik egiten ignorantziaz” («que ne faisons rien par ignorance») (Dolet 1540: 18). Humanistentzat, puntuazioaren berrikuntza hori garai berrien marka aurreratua da. Horregatik dio Doletrek “doktoki puntuatzea” (Dolet 1540: 24) «imitatio»-aren parte dela. Puntuazioa solasaldi oratorioaren edo solasaldi poetikoaren “periodoen” sailkatzeko modua da. Eta “periodoa”, bere aldetik «comprehensio uerborum» bat, puntuak nabarmentzen eta biderkatzen dutena (Dolet 1540: 19-21). *LVP*-ren kasuan bi puntuazio mota aipatu behar dira, koma eta puntua.

II.5.2.a. koma («point a queue»)

Doleten ustezkakoak “puntu kakodunak dikzioak eta lokuzioak elkarren artetik ezberdintzeko balio du” («Le point a queue ne sert d'autre chose, que de distinguer les diction, & locutio(n)s l'une de l'autre»), latinoek egiten zuten gisan («Il a pareillement tel usage en la langue latine»).

LVP-en, euskaraz, arras kako guti erabiltzen da: eskaintza-epistolaren bukaeran, «Amen» terminalaren aurrean, dirudienez erakusteko “punto eta aparte” bat izan den dela; «Sautrela»-ren aurreko leloan, «campora»-ren ondotik den hemistikioaren markatzeko («Heuscara da campora, eta goacen oro dançara»).

othoyz eguitera dizum mundu honeten prosperoqui
vicia tabercian parabiçuya, Amen.

LVP: kakoaren erabilera

Latinez den «Aduertant»-en, eta frantsesez den kolofioan puntuak, kakoak eta punto eta koma bat behin («Aduertant») aurkitzen dira. Obserba daiteke frantsesez den kolofioan, kakoaren erabilpenari doakionez, Doleten erregela errespetatzen

dela (Dolet 1540: 21), eta baita «&» perlueta⁶⁵ erabiltzen dela ere «et» juntagailu latinoaren zentzuan.⁶⁶ Ordea, bai euskarazko testuan, bai frantsesez den kolofoian falta dira Doleten manulean frantseserendako presente diren harridurazko eta galderazko puntua eta apostrofeak (LVP-en: “nen vendre”).

Ohartzekoa da nola agertzen den Doleten baitan, humanismoaren unibertsalismoaren eragina dioelarik puntuazio-sistema hizkuntza guziendako berdina dela: «Si toutes langues generalement ont leurs differences en parler, & escripture, toutesfoys non obstant *cela elles n'ont qu'une punctuation seulement*» (Dolet 1540; AASen etzana).

17

LA PUN- CTVATION DE LA LANGVE FRANCOYSE.



Si toutes langues generalement ont leurs differences en parler, & escripture, toutesfoys non obstant cela elles n'ont qu'une punctuation seulement: & ne trouueras, qu'en ycelle les Grecs, Latins, François, Italiens, ou Hespaignolz soient differents. Doncques ie t'instruiray briefuement en cecy. Et pour t'y bien endoctriner il est besoing de deux choses. L'une est, que tu congnoisses les noms, & figures des poincts. L'autre, que tu entendes les lieux, ou il les fault mettre.

Toutes langues n'ont qu'une ne punctua-tion.

Quant aux figures, elles sont telles, qu'il s'en suiuet.

Les figures des poincts.

- 1 , ou en ceste sorte / .
- 2 :
- 3 .
- 4 ?
- 5 !
- 6 ()

c Le

Etienne Dolet: *La manie de bien tradvire d'une langve en aultre* (1540)

⁶⁵ Frantsesez *perluète* edo *espeluette* eta ingelesez *ampersand* deitu karakterea. Tipografia zaharrean “&” perlueta “et caetera” lokuzio latinoaren abrebiazioa zen. Ikus «perluète» in *Le Trésor de la Langue Française informatisé* (TLFI): <http://atilf.atilf.fr/tlf.htm>.

⁶⁶ LVP-en «&» «et» juntagailu latinoaren zentzuan erabilia da.

¶ Sautrela

Heuscara da campora, eta goacen oro dançara

O heuscara laudr ezac garacico herria
 Ceren hantic vqhen baytuc beharduy an thornuya
 Lehenago hi baitinçan lengoagetan azquena
 Oray aldiz içaneniz orotaco lehena.

Heuscaldunac mundu orot anpreciatu ciraden
 Bana hayen lengoagiaz berce oro burlatzen
 Ceren eceyn scripturan erideiten ezpaitzen
 Oray dute iccassiren nola gauça honacen.

Heuscaldun den guicõn oroc alcha beça buruya
 Eci huyen lengoagia içanenda floria
 Prince eta iaun handieç oroc haren galdia
 Scribatus haibalute iqhañteco desira.

Desir hura conplitu du garacico naturac
 Eta haren adisquide oray bordelen denac
 Lehen imprimicãlia heuscara ren hurada
 Basco oro obligatu iagoiticoz hargana

Eray lelori bailelo leloa çaray leloa
 Heuscara da campora eta goacen oro dançara.

**DEBILE PRINCIPIVM MELIOR
 FORTVNA SEQVATVR.**

LVP: koplen bukaerako puntuazio eta zuri tipografikoa

II.5.2.b. Hondarreko puntua («point final; point rond»)

Beti sententziaren hondarrean ezartzen da puntua, dio Doletak, eta puntu horren ondotik normalki maiuskula bat erabiltzen da (Dolet 1540: 23). *LVP*-en diren neurri ezberdineko «koplak», edo bertso edo ahapaldiak, anitzetan laukoak dira. Koplak, neurtitezko edo bertso-lerrozko multzoz eginak dira, koplen artean den zuri tipografikoak irakurtzea errazten duelarik. Zuri tipografikoak konposizioaren tempusean eginkizuna badu, eta funtzio praktikoaz gain, begien bistan den funtzio estetikoa.

Multzo hori azken neurtitzaren puntuak zerratzen du.⁶⁷ Neurtitz bakoitza maiuskularekin hasten da eta lerro tipografikoak markatzen du, gehienetan, batasun semantikoa eta gramatikala. Puntuatua den neurtitz bakarra multzoaren, bertso edo ahapaldiaren azkena da (ahazte tipografikorik ez baldin bada izan bederen).

⁶⁷ Kasu honetan, ikus daiteke beharbada humanismo italiarraren eragina espainol humanis-tengandik (Nebrija, Encina) pasatuz zabaldua (cf. Redondo 1976). Ikus, bereziki, Juan de Encinak (1468/1469-1533), "Arte de trobar", zatian koplaren puntuazioaz dioena: «en fin de la copla ha se de poner colu(mna) q(ue) es un pu(n)to solo» (Encina (*Cancionero* [1496] 1928: vj).

II.6. Grabatuak

LVP-eko titulu-orrian eta eskaintza-epistolaren bukaeran diren zurezko grabatuak, kristikoak dira, Pasioko gurutzea delarik bi grabatuetan, zentrala, eta bereziki lehenean. Lehen grabatuan Kristo gurutzeratua ikus daiteke Golgotan, haren ama eta Jondone Joane gurutzepean eta Jerusalemeko herria zerumugan.



LVP: Lehen grabatua

Ttipiagoa den bigarren grabatuan, Kristo ikusten da eskuinera so, eskuekin atxikiz sorbalda ezkerrekoan pausatua duen gurutzea. Hura bera behatz indizearekin seinalatzen duten bi aingeruk inguratzen dute (Vinson [1891] 1984: 1).



LVP: Bigarren grabatua

Bi grabatuek “Imitatio Christi”-a seinatlatzen dute ene ustez. Mota horietako iko-noak Frantziako ebangelisten gustukoak dira. Eta, nahiz ez daitekeen baieza *LVP*-en deliberatuki erabiliak direla, azpimarratu behar da Kristoren itxuran zentratuak diren bi grabatu horiek Erasmoren erran kristozentrikoa gogorarazten dutela: «Batek Kristo koka beza bere buruaren aurrean helburu bakar bezala» (Erasmus 1992: xci-xcii). Bestalde, Kristoren presentzia honen azpimarratzeko moduak gogorarazten du 1527an edo 1530ean Margarita Nafarroakoari eskaini zitzaion *L'Initiatore Instruction* deitu katixima erreformistan den estampa iluminatua: Margarita eta Nafarroako Henrike errege-erreginak Pasioko Kristoren gibeletik ikus daitezke, haiek ere bizkarrean gurutzeta daramatela eta haien atzean gorte osoak berdin egiten duela.⁶⁸

Dena den, mezuaren aldetik *LVP*-ren titulu profanoaren eta grabatu erlijiozkoen artean den kontrastea nabarmena da. Genettek epigrafoaren erranahiaz aipatzen zuen hirugarren funtzioaren “oblikuotasuna” edo zeharkakotasuna⁶⁹ aplikatzen ahal genioke tituluari. Erran dut lehenago, bukaerako epigrafoan badaudela bi mezu, agerian dagoen linguistikoa, profanoa; eta belo batekin erdi estalia dagoen mezu ideologikoa, hots, mezu ebangelista. Horren arabera, grabatu hauen eginkizuna Kristoren pasioan oinarritzen den mezu ideologikoaren agertzeta litzateke: *Imitatio Christi*-arena.

II.8. Estalia

LVP-ren estaliaz Julien Vinsonek egin zuen deskribapenean ondoko lerroak idatzi zituen:

Il [*LVP*] est relié en veau brun plein ancien, doré sur tranches; le dos porte dix doubles filets, dorés, groupés deux par deux avec un ornement doré en forme de S couché entre chaque double filet or avec une fleur de lys à chaque coin: au centre est un écusson ornementé d'azur aux trois fleurs de lys d'or avec la barre de gueules. Le livre vient donc de la Bibliothèque du prince de Condé. (Vinson ([1891]1984: 2)⁷⁰

Y-6194-A kodepean, Tolbiac-eko BNF-eko egoitzako liburu bakanen erreserban zaindua den *LVP*-ren materialtasunaz jakin nahian gehiago, zuzenean etsaminatu nuen bi aldiz (2006, 2007). Liburutegi nazionaleko arduradunek abisatu zidaten *LVP*-ren larruzko estalia izigarri preziatua zela *testuaren garaikoa zelako*, xvi. mendearen erdialdekoa. Informazio kapital horrek pista ineditoak irekitzen zituen euskal literatura-historiografian. Hemendik aitzina *unicum* horren jabea identifika zitekeen lehen aldiz. Izen bat ematen ahal geniezaiokeen liburuaren garaiko jabeari, eta izen horren ezagutza bera liburu horren historiaz, autorearen ingurugiroaz behar bada, eta harreraz mintza zekigukeen.

⁶⁸ Ikus *Marguerite de Navarre, Poésies chrétiennes* (1996) edizioaren estalian den ilustrazioa.

⁶⁹ Ikus aitzinago «Bukaerako epigrafoan» errana.

⁷⁰ «Fer frappé sur: “Linguae Vasconum primitiae”. par B. Dechepare. Bordeaux, Morpain, 1545 (Bibl. Nat. Rés YO-Vitrine n.º 377)». Olivier, Hermal & Roton (1935)-ek zitazten ditu beste iturri hauek: «Guigard T.I. p. 46; La Chenay-Desbois, T.3. col. 756 et 757; Dussieux. *Généalogie de la Maison de Bourbon*. Paris Lecoffre, 1869, p. 68 et Bouillet. *Atlas d'Histoire et de Géographie*, tableau 90 et Hoefler».



LVP-ren estalian (aurkialdean) Louis 1.^{er} Condé printzearen armarrria. Argazkia: BNF



LVP-ren estalian (infrentzualdean) Louis 1.^{er} Condé printzearen armarrria. Argazkia: BNF



LVP: bizkarra. Argazkia: BNF

Armarriaren analisiak agertu zuen *LVP* Louis I^{er} de Bourbon Condé (1530-1569) kalbindarrarena izan zela, haren liburutegietarik batean izan zela. Condé printzearen izenaren lortzea euskal literatura historiografiarendako datu interesgarria da, frogatzen baitu *LVP* (eta kasu honetan beharbada autorea) Nafarroako erregeen gortetik hurbil egon zela. Condé printzea, Frantziako errege leinukoa, Joana Labriten koinata, eta higanoten⁷¹ burua baitzen. Hain zuzen, Joana Labrit, Margarita Nafarroakoaren alaba, Frantziako François I.aren iloba, 1548 geroztik Antoine de Bourbon Condé (1555-1562), Louisen anaiarekin, ezkondua zen.

Printze honek⁷² erlijio gatazketan leku oinarrizkoa hartu zuen, higanoten buruzagitzara helduz:

Louis I^{er} de Bourbon, prince de Condé, comte de Soissons, d'Anisy et de Valery septième fils de Charles, duc de Vendôme, et de Françoise d'Alençon et frère cadet du roi de Navarre, fut appelé successivement Monsieur de Vendôme, le prince de Condé et Monsieur le Prince; né le 7 mai 1530 à Vendôme, il fut nommé gentilhomme de la chambre du roi, pair de France, colonel général de la cavalerie légère en 1556 et général de l'infanterie en 1559; après avoir participé à la guerre contre Charles Quint, il prit part à la conjuration d'Amboise, fut emprisonné et condamné à mort (1560), mais la mort de François II le sauva, il fut mis en liberté et nommé gouverneur de Picardie par Charles IX; s'étant converti au calvinisme, il devint le chef du parti huguenot à Orléans en 1562 et se trouva mêlé aux guerres religieuses; blessé au combat de Jarnac le 13 mars 1569, le prince de Condé s'était rendu prisonnier lorsqu'il fut tué d'un coup de pistolet par Montesquiou, capitaine des gardes du duc d'Anjou. Il avait épousé en premières noces, le 22 juin 1551, Eléonore de Roye et, en secondes, Françoise d'Orléans-Longueville, fille du marquis de Rothelin.



LVP: saihetsa. Argazkia: BNF

Eugénie Drozek dio Longjumeau-ko bakearen ondotik (1568) Condé printzea Noyers-sur-Serein-eko bere gaztelura itzuli zela baina jakinik haren etsaiek haren kontra atentatu bat prestatzen zutela, Errotxelara buruz ihes joan zela 1568ko agorriaren 23an, bere familiarekin, Coligny, Andelot anderea eta etxeko jende guzietan. Condé helduko zen 1568ko irailaren 9an eta Labriteko Joana hilabete bat berantago, urriaren 15ean, Nafarroako Henri III.a bere seme gaztearekin. Errotxela, euskal literatura historiografian Leizarragaren itzulpenen argitarazearekin (1571) hain inportantea izanen den portua, urte batzuz kalbinismoaren hiriburu bilakatzen da

⁷¹ *Huguenot* («Higanot») hitza Frantziar XVI. eta XVII. mendean modu pejorativoan erabiltzen zen «kalbindar» errateko: «Surnom [péjoratif à l'origine] donné par les catholiques aux protestants calvinistes, en France, du XVII^e au XVIII^e siècle» *Le nouveau Petit Robert de la langue française* hiztegian. Gaurko frantsesean hitzak bere erranahi pejorativoa galduta du. Antonimoa: «papista»: «Catholique romain (spécialt. dans le langage des polémistes protestants, du XVII^e au XIX^e s.)».

⁷² Hemen, Louis I^{er} de Bourbon Condéren historiaz zabaltzen ditudan datuak Droz-en (1960) ikerketarik eta Olivier-Hermal-Roton (1935)-etik hartuak dira.


orduan,⁷³ buru politikoak direlarik, Joana Labrit Nafarroako erregina eta Condé higanoten zuzendaria.

1545ean Condé printzeak 15 urte zituen, badakigu 1545 pribilegio urtea dela eta ez inprimatze urtea, baina halere 1545 inguruan inprimatu zitekeela pentsatzen baita. Iduri luke LVP-ek printze Condéa baino lehenago beste jabe bat ukan zukeela. Nor-baitengandik errezebi ote zuen oparizatut liburua? Joanarengandik? Eta Joanak berriz Margarita *Heptameronen* autorea eta ebangelisten zaintzailea zenarengandik? Jakina da Margaritak liburutegi onak bazeuzkela Nafarroako bere lurretan, Pauen, Odosen, Nérac-en eta handik kanpo. Eta 1545ean LVP-ek pribilegioa lortzen duelarik Margarita bizi zen oraindik, 1549an hil baitzen.

LVP-ren aleak kurri ibili zirela pentsatzea, gorago erran bezala, arrazoizkoa da baitakigu bigarren edizio bat aurkitzen dela Erroanen, mugaz bestaldean [Espainiako Gortean] den Isastik 1620 urteetan ikusia zuela ale bat,⁷⁴ eta Oihenartek bi, Bordelekoa eta Erroanekoa. LVP eros zitekeen eta estali ere beharbada, Morpainen etxean pribilegioarekin 1548 arte. Imagina daiteke haren alargunak aleak bazituzkeela 1570 arte, 1563an Morpain hil ondoan 1570 arte alargunak baitu imprimategia beregain hartzen, gero Pierre de Ladime-ri utziz.

Beste galdera bat bada: noiz iritsi ote den liburua Bibliothèque Royale-ra, gaur Bibliothèque National de la France deitzen den lekura? Titulu-orrian den zigilu gorria⁷⁵ aztertu behar da horretarako. Zabaltasuna neurtuz (14 milimetro), erran daiteke LVP 1735 urtearen inguruan sar zitekeela «Bibliothèque royale» errege-liburutegian.

LINGVAE VASCONVM PRIMIZ
per Dominum Bernardum Dechepare
Rectorem sancti michaelis veteris.



LVP: Bibliothèque Royale-eko zigilua

⁷³ Ikus Droz (1960: 75): «Maintenant, les huguenots avaient «une capitale, un port, république marchande de l'ouest, où venaient les rejoindre l'indomptable Jeanne d'Albret, amenant avec elle son fils, le jeune Henri III de Navarre, roitelet de quinze ans, les Gascons et aussi les «vicomtes», c'est-à-dire les petits seigneurs terriens du Dauphiné et de la Haute Provence. Dans cette ville, qui devint en 1568 la capitale du calvinisme français, la souveraine arriva le 15 octobre».

⁷⁴ Joseba Lakarrak diostanez, gauzak poxi bat nahasiago izan litezke ahoz-aho zabalduak balira Isastik 70-75 urte beranduago gogoratzen zituen Etxepareren bertsoak; aipuaeren tankera gatik ez dirudi liburua edo idatzizko kopiaren bat begien aitzinean zuelarik egina.

⁷⁵ Vinsonek zigilu hori modu honetan aipatzen du: «il y a le cachet en rouge: 'Bibliothèque royale' avec la couronne simple et les trois fleurs de lys.» (Vinson [1891] 1984: 2). Ikus lanaren hasierako oharrean aipatu interneteko edizioa.

Ordea, ikusiz Frantses Iraultzako urteetan (1789-1790ko hamarkadaren hastapenak), izan nahaskerien ondorioz orgatraka Pariseko eta inguruetako abadia, komentu, nobleen jauregi eta gazteluetako liburategietatik hartu liburuak lehen deitu «Bibliothèque Royale»-en sartzen zirela eta edozein zigiluz markatuak zirela, *LVP*-ren data sartzea ene ustez 1735-1790 hamarkadetan kokatu behar litzateke.⁷⁶ XVIII. mendean «Bibliothèque Royale»-en sartu aitzin jadanik Parisen ote zen liburuak? Ez ote zen Pouvreauren euskal liburu kolekzio barreaturik heldu? Badakigu hau Bidarteko erretor izanik, gero Parisera itzuli zela, han hil zela eta bederen 12 euskarazko li-



Condé printzea. Argazkia: <http://upload.wikimedia.org>

⁷⁶ Hemengo oharrak Tolbiac-en den BNF-ko egoitzako «Liburu bakanen Erreserban» diren ardura-dunek eman xehetasunak dira.

buru bazituela bere Pariseko liburutegian (Vinson 1921). Bizkitartean, Pouvreauk ez du Etxepare iturri bezala bere Hiztegian aipatzen.⁷⁷

Jakitearekin Condé printzeak eskuratua zuela LVP, hobekiago uler dezakegu Etxeparek aipatu “Prince eta iaun handi”-ak nor zitezkeen. Etxeparek ezagutu izan ote zuen pertsonalki Condé printzea? Leheteren bitartez zituen harremanak ote ziren? Zer lotura Nafarroako gortearekin (Margarita, Henri II, Joana Labrit)?

Funtsean, liburuaren materialitateak eta paratestuaren azterketak salatzen dute ingurugiro fin eta letraduna, eta zehatzago, humanismoaren eta ebangelismoaren presentzia. Ingurugiro horretan ulertu behar da ene aburuz “iaun handi”ez eta hauek euskararen “iqhasteco» duten «desira”-z egiten den aipamena Sautrelan. Hizkuntza bakana zitzaielako beharbada.

III. Euskararen gramatizazioaren lehen urratsak

Herri-hizkuntza baten “gramatizazioa” aipatzerakoan, Auroux-Cerquigliniren definizioaren arabera, hizkuntza batek ukan ditzakeen hornikuntza teknikoez ari gara (gramatika, hiztegi, etab.), eta hornikuntza horretaz den konzientziaz (politika linguistikoak, irakaskuntza, etab.) ere.

Cerquigliniren iritzi, frantsesaren ‘duintasunaren’⁷⁸ konkista hori 1400 urteen bukaeran suma daiteke. Diskurto berri horren iturrietan faktore ezberdinak aurki daitezke. Italiaren eragina elementu nagusia da, han xv. mendean herri-hizkuntzak ‘duinak’ direlako ideia jadanik sartua baita. Beste faktore bat datza zientzien eraginean eta bereziki zirujiarenean: latina ez dakiten gizonak eramaten dituzten arloak izanez geroz, beharrezkoak dira hiztegi espezializatuak herri-hizkuntzan. Aurreko bi elementuei gehitu behar zaie Frantzia sortzen ari den sentimendu nazionala. Erregetzaren boterea eta batasuna Frantziak kanpoan eramaten dituen gerlek sustatzen dute eta erregetzak, ber denboran, bere atributoen barnean kokatzen du frantses hizkuntza.

Gorago aipatu bezala, François I.aren erreinupean, 1539ko agorrilaren 15ean, Villers-Cotterêts-en sinatzen den ordenantzaren 110. artikulua dioen bezala, eta partikularzki 111.ak, engoitik lege ekintzendako frantses herri-hizkuntzaren erabilera obligazioa izanen baita erreinuan:

CXI. Et pource que telles choses sont souventeffois ad-venues sur l’intelligence des motz latins contenuz esdictz arrestz, nous voulons que doresnavant tous arrestz ensemble toutes autres procédeures, soyent de noz cours souveraines ou autres subalternes et inférieures, soyent de registres, enquestes, contractz, commissions, sentences, testamens et autres quelzconques actes et exploitcz de justice, ou qui en dépendent, soyent prononcez, enregistrez et délivrez aux parties en langage maternel françois, et non autrement.⁷⁹

Ohar bezala erran behar da, ordenantza hori, anitzetan uste izaten denaren kontra, ez dela Frantziako beste herri-hizkuntzen erabileraren kontra mintzo. In-

⁷⁷ Ikus orain X. Etxagibelen lana ale honetan Pouvrearen hiztegiatako iturriez. Pouvreauk aipatu gabeko iturriak eta iturri ezagunetako aipurik gabeko pasarteak erabili zituen arren, Etxepare iturritzat hartzeko segurtasun urria da Joseba Lakarrak diostanez.

⁷⁸ Ikus «Une éminente dignité» atala, in Cerquiglini (2004: 51-52).

⁷⁹ Iturria ikus in *op. cit.*: <http://www.assemblee-nationale.fr/histoire/villers-cotterets.asp>

portantea da azpimarratzea bakarrik lege ekintzez ari dela eta latina dela ikusmiran. Ordenantza horrek bakean uzten ditu Frantziako beste herri hizkuntzetan idatziak diren sorkuntza lanak, adibidez eta *LVP* etsenplu ezin hobea da: poesiak euskara hutsean uzten dira, arazorik batere gabe, aldiz legearen menpean baita Parlamentuan inprimatzaileak egin duen akta, honen testua frantsesez agertzen da kolofoiari.

Cerquiglinik aipatzen duen bosgarren faktorea erlijioa da. Frantsesaren gramatizazioaren lehen urratsetan aurkitzen da hain zuzen Erreforma erlijiozkoa: espiritualitate berriaren bideek, ebangelismoak eta gero kalbinismoak, Jainkoaren hitza unibertsala dela diote eta haren hitzaren hedatzeko modu eraginkorra herri-hizkuntzetan hedatzea dela. Seigarren faktore nagusia inprentarena da. Cerquigliniren ustez, arrazoi tekniko hau da frantsesaren 'duintasunaren' lortzean izanen den elementu nagusia, inprimatzeari esker frantsesa denetan zabaltzen delako. Modu horretan, hizkuntza eta haren estatusa finkatzen eta "autentifikatzen" dira. Inprimatze-prentsak animatzen dituztenak humanismoari atxikiak dira. Badakite frantsesak ez dezakeela hizkuntza klasikoen "estabilitate monumentalak" lortu erregelarik gabe, kaligrafia irakurgarri bat gabe, gramatikarik gabe. Horrela dira sartzen Frantziari, 1530 inguruan, bi karaktere tipografiko: karaktere "erromatarra" eta karaktere "italikoa".

Ene ustez, alor kultural eta politiko konplexu horretan sortzen da *LVP*-ren inprimatzeko helburua eta hozitzen da helburu horren bukaeraino eramateko euskararen gramatizazioaren beharra. Ondoko lerroetan saiatuko naiz hipotesis horren zehatzago gauzatzeko. Alegia, *LVP*-ren inprimatzea gogoeta fase baten ondotik jin dela, ez dela fenomeno espontaneo bat izan, ez bakartasunean eraman daitekeen prozesu bat ere.

LVP-ren inprimatzeko, gorago erran bezala, argi da euskararen grafiaren finkatze «normalizatu» bat behar zela aitzinetik eta behar izan zela ere aitzinetik erabaki fonetika oinarritzat hartuko zela eta hautu hori irizpide humanistikoaren arabera izanen zela. Euskararen idazteko eta inprimatzeko moldeez izan zen ingurugiro horren lekuko da *LVP*. Aztarnak liburu osoaren epitestualitatean eta materialitatean aurki daitezke, baina bereziki hizkuntzari doakion diskurtsoan, hau da, Eskaintza epistolari, «Contrapas»-ean, «Sautrela»-n, azken latinezko epigrafoan, tituluan, Abisuan («Aduertant...»). Testu horiek euskararen gramatizazioaren, normalizazioaren prozeduraz XVI. lehen erdian izan zatekeen gogoetatze eta obratzearen ernamuinaren lekuko dira.

III.1. Euskararen gramatizazioaren hatzak *LVP*-en

Eskaintza-epistola Bernard de Leheti zuzendua da, ordea, argi da autorearen «itxoite-horizontean» diren hartzaileetan hiru irakurle mota badirela: 1. Pertsonalki izendatua den Lehet; 2. «sciencia gucietan letratu»-ak direnak (humanistak eta beste letratuak), horietan barne direlarik euskara dakitenak eta ez dakitenak; 3. irakurle «xehea», alfabetizatuak diren «basco»-ak euskaraz irakurtzeko gai direnak latinez eta herri-hizkuntzetan irakurtzeko gai direlako; eta behar bada latina batere ez dakitenak baina irakurtzeko gai direnak lehenik frantsesez eta idazteko ere gai direnak batzuetan beste hizkuntzetan ikasia dutelako.

Ulertu nahi bada euskararen gramatizazioan egiazki zer den jokoan bi puntu etsaminatu behar dira:

- hizkuntzaren alor lexikaleko zenbait hitz aipatu behar dira. Bereziki, «scriptura» (lat. *scriptura*) eta «scriba» (lat. *scriba*) sustantiboak, gehi «scriba» aditz-erroa (latinez: *scrib(ere)*; «thornuya» (lat. *tornus*) eta «floria» (lat. *flora*) sustantiboak;
- aztertu behar dira eskaintza epistolaren diren helburu perpausak. Euskararen gramatizazioaren prozedura ikus daiteke Etxepareren erretorikan, bai lexiko berezi baten erabileran, bai eraikuntza sintaktiko berezietan. Analisis hori egin gabe ez daiteke uler ingurualor literarioa.

Azterketa honen espazioa horrelako funtsezko lan baten kuadroa ez denez geroz, ondotik heldu diren lerroak etorkizuneko gogoeta pistak bezala hartuak izan daitezten beraz.

III.1.a. Lexikoan

1. SCRIBUTAN IMEITERA / SCRIBADAYTEYELA / SCRIBATZEN / SCRIBUZ / SCRIBAÇAI-TEYEN / SCRIPTURAN / SCRIBATUS:⁸⁰

Gramatikalki forma ezberdinetan (sustantibo/aditz konjugatu/aditz-izen/partizio) zortzi aldiz agertzen da eta beti hizkuntzaz diren hiru testuei lotua, eskaintza-epistola, «Contrapas» eta «Sautrela»:

- Eskaintza-epistolaren (bost aldiz): «miraz nago iauna nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait obra egitera eta *scributan imeitera*⁸¹ ceren ladin publica mundu gucietara berce lengoagiac beçala hayn *scribatzeco* hondela»; «eta berce nacione oroc vste dute ecin de[u]sere *scriba*

⁸⁰ P. Altunak horrela definitzen ditu (1979: 165):

«(ESKRIBATU) (du) (v): «escrito, compuesto»; «écrit»

—scriba (skriba): Pról.; XIV, 9

—scribatus (skribatuz): XV, 13

—scribatceco (skribatzeko): Pról.

—Scribatcen (skribatzen): Pról.

No figura en Azkue; sí en Lhande

(ESKRIBU) (n): «escrito»; «écrit»

—scributan (skributan): Pról.

- escributan imeni = poner por escrito
No figura en Azkue; sí en Lhande

(ESKRIPATURA) (n): «escritura»; «écrit, écriture»

—scripturan (skripturan): XV, 8 (15)

No figura en Azkue; sí en Lhande»

Ikus ere ondoko oharretan biltzen ditudan OEH-an diren emaitzak.

⁸¹ ESKRIBUTAN. «Eskributan emaittea, mettre en écrit» SP. * Heuskaraz zerbait obra egitera eta skributan imeitera. E 5. Ioaiten ziraden guziak skributan iartera. Lç Lc 2, 3. (OEH <http://www.euskaltzaindia.net/oeb>)

- dayteyela* lengoage hartan nola berce oroc *baitu te scribatzen* beryan»; «eta bascoec bercec beçala duten bere lengoagian *scribiz*⁸² cerbait doctrina (...)»
 —«Contrapas»-en (behin): «Berce gendec vsteçuten / *Ecín scribaçaiteyen*»
 —«Sautrela»-n (bi aldiz):

«Bana hayen lengoagiaz berceoro burlatzen
 Ceren eceyn *scripturan* erideiten ezpaitzen
 Oray dute iccassiren nola gauça honacen.»
 (...)

Eci huyen lengoagia [euskaldunen] içanenda Floria
 Prince eta iaun handiecoroc haren galdia
Scribatus halbalute iqhasteco desira.»

Ene hipotesia da “scribu” inprimatze-ekintzaren prozeduran sartzen den eskribitzeari edo idazteari, zuzenki lotua dela. Ez dela soilik zentzu hertsian ikusi behar. Erran nahi dut idaztea jakitea hemen ez dela zalantzan ezartzen. Hain zuzen, “Contrapas”-en erraten delarik ordurarte bertze jendek uste zutela “Ecín scribaçaiteyen” hizkuntza zela euskara, ez da erran nahi uste zela ez zela “idazten ahal”, baizik eta uste zela ez zela “inprimatzeko duin”.

2. BEHARDUYEN THORNUYA/BEHARDUYAN THORNUYA:⁸³

Bi aldiz erabilia da, bietan sustantibo bezala eta bietan testuinguru berean, hain zuzen solasaldia metalinguistikoa delarik.

- “Contrapas”-en:
 “Garacico herria
 Benedica dadila
 Heuscarari emandio
Beharduyen thornuya.
 Heuscara
 Ialgui adi plaçara”

⁸² ESKRIBUZ (*eskiribuz* SP). Por escrito. * *Duten bere lengoajian scribiz zerbait doctrina.* E 7. *Ethor baitzedin ordenanza bat Cesar Augustoren partez, scribiz iar ledin mundua oro.* Lç Lc 2, 1 (He *skribuz*; TB *iskribuz*). *Etzait iduri asko dela kadiratik predikatur probetxu egitea baiña are uste dut eskiribuz ere behar dela enseiatu.* Mat XII. *Errezibitze hau eskiribuz bartuko da.* Harb 424. *Kortesia hura dute / eskiribuz ezarriko.* EZ Eliç 336. *Ezta edireiten egin zuela egundaino Iondone Paulok iuramenturik eskiribuz baizen.* Ax 255s (V 171). *Eskiribuz emazu orhoitu zarena.* SP *Phil* 24. *Nabi dut ene libruto hontan ezkiribuz ezarri.* Tt *Onsa* 125. *Gure agradamentia ezkiribuz emanik.* Mercy 43. *Berak ezkiribuz ezarri dutianak.* Egiat 179. v. tbn. Gy 114. *Itzez erakutsi ezin zien urrutikoai, eskiribuz gaztigatzen ziezten [...] ikasbide andiak.* Lard 532. *Atondu daiguzan eskiribuz / Al diran kantuzko lanak.* AB *AmaE* 147. *Ezkiribuz utzi derauzkiguten egiak.* Arb *Igand* 194. (OEH <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>)

⁸³ Ikus P. Altuna:

«(THORNU) (n): „rango“; „rang“
 —thornuya (thornuia): XIV, 5; XV, 3
 No figura en Azkue con esa acepción; en Lhande sí” (EH/LLD 1979: 168)
 “—Behar duyen thornuya: ikus XV, 3” (LVP *Edizio Kritikoa*, 1980: 251).

—“Sautrela”-n:

O heuscara laud[a] ezac garacico herria
 Ceren hantic vqhen baytuc *beharduyan thornuya*
 Lehenago hi baitinçan lengoagetan azquena
 Oray aldiz içaneniz orotaco lehena.”

Bi kasuetan “thornuya” hitza “behar duen thornuya/behar duan thornuya” forma berdinean agertzen da. Autorialtasuna hirugarren pertsona emana da subjektu bezala, metonimiaz, “garacico herria”-ren bidez “Contrapas”-ean (“beharduyen”), eta “Sautrela”-n hitanoan emana da “ni” auktorialaren bidez, “ni” hori euskararen alegoriari ari zaiolarik mintzo (“beharduyan”).

Altunak ez du hitza esplikatzeko, bakarrik informazio hauek ematen ditu: non agertzen den hitza testuan, Lhanderen hiztegian agertzen dela eta Azkueren hiztegian ez, itzulpena erdaretan “rango/rang” duela, dirudenez itzulpen hori Akesolori hartua diotelako eta honek Lafoni (“rang”).⁸⁴ Lafonek, ez du hitza esplikatzeko “rang” itzul-tzen du iduriz, ondotik heldu diren bi neurtitzekin analogia eginez: “Lehenago hi baitinçan lengoagetan *asquena* / Oray aldiz içaneniz orotaco *lehená*”.

Etxeparek herri-hizkuntzen konpetentzia, paralelismo, antitesia, eta hiperbolaren bidez agertzen baitu. Pouvreauren hiztegiak biltzen ditu *tornus/tornum*-ek latinez eta “tour”-ek frantsesez ukan ditzakeen zentzu konkretu eta figuratiboak, “itzuliaren” ideian eraikiak denak:

Tornua: tour.
 Tornuz eguina: fait au tour.
 Tornu eder bat eguin deraut: Il m’a fait un beau tour.
 Tornatzea: tourner. s’en retourner.”⁸⁵

B. Oyharçabalen ustez⁸⁶ Etxepareren «thornu»⁸⁷ hitza «itxura, zerbaiti ematen zaion forma, manera» bezala uler daiteke: “euskarari egin behar zuen itzulia eginarazi

⁸⁴ Ikus Lafonen itzulpenak (1951ko itzulpenak berriz argitaratzen dira in *LVP* 1545-1995, 1995): [1951] 1995 (290-291): «Que le pays de Cize / soit béni ! / Il a donné à l’euskara / le rang qu’il doit avoir.» («Contre-Pas»). [1951] 1995 (292-293): «O euskara, loue le pays de Cize, / Parce que c’est de là que tu as reçu le rang que tu dois avoir.» («Sautrelle»): /292-293. Patxi Altunaren gaztelera-zko itzulpenak in *LVP* 1545-1995, 1995: «El país de Garazi / ;bendito sea! / El ha dado a la lengua vasca / el rango que le corresponde» (“Contrapas”) (1995: 173-174). “;Oh euskara, ensalza el país de Garazi! / pues has recibido de allí el rango que mereces” (“Saltarel”) (1995: 175). AAS-en etzanak. Ikus Lino Akesoloren gaztelera-zko itzulpena (1968) ere.

⁸⁵ BnF, FCB7. *Dictionnaire basque-français du diocèse de Bourges Anc.* Colbert 3104-Regius 7700, 3.

⁸⁶ B. Oyharçabalek emana didan ahozko informazioa.

⁸⁷ Ikus in *OEH* TORNU hitzaren zentzu konkretuak: “2 *tornu* (gral.; SP, Ht *VocGr* 321 y 419, Lar, Añ, Lecl, Arch *VocGr*; th- *VocBN*, Dv, H), *dornu* (V-gip; Lcc). Ref.: A; Lh (*thornu*); SM *EiTec*2 130; Etxba *Eib* (*dornua*); Elexp *Berg*. ♦ **I.** Torno. “Rodaja, txirrikoa, *dornua*” Lcc. “*Tornuz egiña*, fait au tour. *Tornu eder bat egin deraut*, il m’a fait un beau tour” SP. “Torno para labrar” Lar. «Tornátíl, *tornuan egiña*» Ib. «Machine à façonner les objets en rond. *Zango sagar, beso, esku, tornuan eginak*» H. «(S; Foix), rouet à filer, tour» Lh. «*Dornua* (armería), tornillo de banco. *Aberastu zalakuan, lelengo ein eban gauzia, dornua ibaira jaurti*» Etxba *Eib*. * [Indian] *itsuek ere, tornuan edo arrodan bedere, hari behar zuten*. Ax 33 (V 19) (Añ *GGero* 23 *tornuan edo errotan*). *Egiten bere tornuan onzibat lurréskoa*. LE *Doc* 235s. *Zure zila uraska tornuan egiña* (V, G). *CantCS* 7, 2 (Dv *thornuan*). *Lepo biribil diruriyena / egin berriya tornuan*. Bil 37 (v. tbn. Otag *EE* 1882c, 578 *tornuz egoki egiñak*, Azc *PB* 122 *tornuan legez eginik*).

dio autoreak, hala nola ‘giltzari itzulia eman’ erraiten baita, orduan kanbiamenduaren ideia azpimarratua bailitaike”. Hizkuntzari aplikatuz hitzak lortzen duen zentzu figuratiboa Etxeberri Sarakoarengan aurki daiteke *LVP* baino 160 bat urte geroago, XVIII. mendearen lehen laurdenean. Baina Etxeberrirentzat euskarak ez du “tornu”-rik behar, jatorriz betegina baita, hizkuntzaz duen mitologia eta ideologiaren arabera: “Hizkuntza adi ahal ditekenez, bernizadurarik eta tornurik eman gabe, lanoki eta garbiki”.⁸⁸

LVP-ren aldiz euskarak “tornua” behar du letra hizkuntza bilakatzeko. Hizkuntzak “behar duen thornu”-a, behar duen “itzuli”-a 1545 urte inguruan (“orain”) inprimatzeari esker lortu denez, aurreko mundu zaharrarekin den haustura markatzen du. Grafikoki erakusten den haustura da *LVP*-n: Bordelen garai hartan ziren karaktere tipografiko modernuenekin, erromatarrekin, egiten da. Kontuan hartzekoa da edizioa arta handiz, biziki huts gutirekin eta humanisten ikuspegiaren arabera egiten dela. Modu horretan du, Etxepareren ustez, euskarak behar duen “tornu/itzulia” lortzen. Ohartzekoa da ikuspegi hori garaiko humanistek Europan zabaltzen zuten ikuspegia dela. Beraz, Etxeparek dioelarik euskarak “behar duen thornuia” lortu duela, erran nahi du *badakiela hizkuntza bat konbentzioz egina dela* frantsesaren normalizazioa daramatenek dakiten bezala. Rabelaisek gogorarazten duen bezala:⁸⁹ “Rien moins, répondit Pantagruel. C’est abus dire que nous ayons langaige naturel. Les langaiges sont par institutions arbitraires et convenence des peuples» (*Tiers Livre*, XIX. kap.)⁹⁰

Kontzientziate linguistikoaen seinalea ikusten da «behar den” tornu/itzuli-aren erabileran. *LVP* “behar den bezala” inprimatzeko euskararen ortotipografia eta gramatizazio gogoeta, arras kontzienteki eta metodikoki eramanak izan dira. Galderak eta hautuak eginak izan dira. Zein karaktere tipografiko hauta? Zer egin zeinu diakri-

Urrengoan sarturik tornu baten / okelea erretako jirak emoten. AB *AmaE* 204. *Tornu burdina berri bat.* HerVal 188. [Tallarrian] *ankiak in erainda ibiltzen zan tornu zar bat.* SM *Zirik* 106. *Kaikua, oporra eta abatza lantzeko, Santestebanek tornuan lotzen du zura lenbizi.* Garm *EskL* 1 98. *Ederki biribildurik, tornu-tik irten berriak bezala.* MEIG III 83» (OEH <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>)

⁸⁸ Zitazioa ortografia gaurkotuan. Ikus in OEH: «2 *tornu* (gral.; SP, Ht *VocGr* 321 y 419, Lar, Añ, Lecl, Arch *VocGr*; th- *VocBN*, Dv, ● (Uso fig.). * *Hizkuntza adi ahal ditekenez, bernizadurarik eta tornurik eman gabe, lanoki eta garbiki.* ES 396.» (EOH <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>)

⁸⁹ Ikus Cerquiglinik dioena: «Cette grammatisation naissante du français, que le Moyen Âge avait ignorée, et dont le latin était seul bénéficiaire, accompagne le rayonnement nouveau des langues vulgaires; elle tient également à une pensée renaissante qui voit dans le signe linguistique une convention, et dont Rabelais dans son *Tiers Livre* se fera l'écho: «Rien moins, répondit Pantagruel. C'est abus de dire que nous ayons langaige naturel. Les langaiges sont par institutions arbitraires et convenence des peuples» (chap. XIX). Les langues peuvent être décrites (la grammaire est l'étude de cette convention) et nommées, voire guidées. Cette grammatisation, technologie de la langue, n'est pas étrangère (...) aux conditions matérielles et techniques de sa diffusion: des hommes de savoir et de métier la disposent sous la presse, fondant des caractères à son intention, élaborant sa lisibilité» (Cerquiglini 2004: 53).

⁹⁰ Zitazioa bere testuinguruan F. Bon-en ediziotik hartua:

Comment (répondit Panurge) l'entendez ? (...) Vous doncques ne croyez ce qu'écrypt Herodote des deux enfans gardez dedanz une case par le vouloir de Psammetic roy des Egyptiens, & nourriz en perpetuelle silence ? Les quelz après certain temps prononcèrent ceste parole Becus, laquelle en langue Phrygienne signifie pain ?

Rien moins, répondit Pantagruel. C'est abus dire que nous ayons langaige naturel. Les langaiges sont par institutions arbitraires & convenences des peuples: les voix (comme disent les Dialecticiens) ne signifient naturellement, mais à plaisir». Ikus Rabelais, *Le Tiers Livre* (1552: 44): http://un2sg4.unige.ch/athena/rabelais/rab_pant.html

tiko berriekin (“ç”) Orria nola molda? Hitzaurre bat gehi ala ez? Hondarrean epigrafoa ezar ala ez eta zergatik?

Inprimatze ekintzaren bere helburura eramateko jadanik hizkuntzaren idazteko ohidura bazitekeen, eta seguraski finkatuak ziren jadanik usantzak nola iskribatu behar ziren elementu gramatikalak, zergatik bereizi, edo zergatik lotu behar ziren hitzak, zein gramatika-irizpide bidez.

3. FLORIA:⁹¹

Behin erabilia da sustantibo bezala. Prolepsian geroari buruz irekia den “Sautrela”-n agertzen da hitza, hizkuntzaren estatus berriari lotua.

O heuscara laud[a] garacico herria
 Ceren hantic vqhen baytuc beharduyan thornuya
 Lehenago hi baitinçan lengoagetan azquena
 Oray aldiz içaneniz orotaco lehena. (...)
 Heuscaldun den guiçon oroc alcha beça buruya
 Eci huyen (sic?) lengoagia içanenda *floria*⁹²
 Prince eta iaun handiec oroc haren galdia
 Scribatus halbalute iqhasteco desira. (“Sautrela”)

Lehen ahapaldian, autoreak dio, euskarari buruz ari dela, duela guti (“vqhen baytuc”) euskarak “behar duen tornua” lortu duela eta ondorioz, behar duen “itzuli/tor-

⁹¹ Ikus P. Altuna:

«(FLORE) (n): “flor”; “fleur”

—floria (floria): XV, 11. No figura en Azkue; sí en Lhande».

⁹² AAS-ek azpimarratua. FLORIA/LOREA, Ikus OEH: “1 *lore* (G, AN-larr-egüés-erro-ilarb-olza, L, Ae, Sal, R; Volt 79, SP, Urt I 142, Ht *VocGr*, Lar, Añ, Arch *VocGr*, *VocBN*, Dv, H), *lora* (V, G-nav; Mic 6v, Lar, Añ, Izt, H), *flore* (AN-ulz-ilarb-olza, R; Lcc, H). Ref.: Bon-Ond 146; *VocPir* 542; A (*lore, lora*); Holmer *ApuntV (lora)*; Iz *Als* y *ArOñ (lora)*, *Ulz (flore)*; Elexp *Berg (lora)*. ● *Tr.* *Lore* es la forma propia de la tradición guipuzcoana y oriental no suletina y *lora* de la vizcaína. Hay con todo *lora* en algunos autores guipuzcoanos de los ss. XIX y XX (en varios de ellos junto a *lore*), y *lore* en algunos autores vizcaínos modernos. La forma *flore* (documentada principalmente para la 2.^a acepción) se encuentra al Norte en Dechepare, Leizarraga, Etcheberri de Ziburu, Axular, Haraneder, Mihura, *UskLiB*, Etchahun, Bordel y *ChantP*, y al Sur en Xenpelar y Aresti. En Leizarraga, Etcheberri de Ziburu (junto al más frec. *lore* para la 1.^a acepción) y dos baladas suletinas recogidas en *ChantP*, hay *flore* tanto para la 1.^a como para la 2.^a acepción. El único ej. de Bordel corresponde a la 1.^a (v. *infra* LOREAN). El resto de los ej. recogidos pertenecen a la 2.^a, alternando en los casos de Axular, Haraneder, Mihura (56) y Aresti con *lore* para la 1.^a. Hay además (tbn. sólo para la 2.^a acepción) *plore* en *AzpPr* y *flora* en *GAlm*. En *DFrec* hay 49 ej. de *lore* y 13 (10 dialectales vizcaínos) de *lora*. OEH-aren arabera FLORIA hitzaren zentzu figuratiboak Etxepareren LVP-en, Leizarragan, Axularren...: “2. (V-gip ap. Etxba *Eib*; Urt, Izt, H), *flore, flora, plore*. (Lo) mejor. “Adolescentia flos aetatis, [...] *adinloréa, adinaren lorea, adin lorátua*” Urt I 215. “*Guzien lorea ta koroia ze*, del principal, como la flor nata, corona” Izt 52r. “*Berekin eraman du gure gazterien lorea, [...] la fleur de nos jeunes gens*” H. “*Adinaren lorea, la flor de la edad*” LE-ir. “*Arrate balleko loria izan zan bere gazte denboran*” Etxba *Eib*. v. IRIN-LORE. ● *Tr.* Documentado desde Dechepare en autores de todas las épocas y dialectos. * *Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia / ezi haien lengoajia izanen da floria*. E 259. *Bere adin florea iragan*. «La fleur d’âge». Lç I Cor 7, 36 (TB *bere adineko lilia*). *Guztien gañetik izan / ezak karitatea / ezen berthutetan har[k] dik / eramaren florea*. EZ Eliç 120s. [Gizonak] *bere gaztetasuneko lorea eta berdetasuna iraganez gero [...]*. Ax 191 (V 129). *Florea, irina, hoberena, gaztetasuna, eramaiten du etsai gaixtoak*. Ib. 182 (V 123).” (EOH <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>)

na” lortuz, estatus ez, heinez (“rang”-“rango”, Altuna/Lafon) aldatu dela. Ordea, hirugarren ahapaldian, gradazioa gero eta gorago doa: “Eci huyen lengoagia ičanenda floria”. Hiperbole horrek erran nahi du izan daitekeen itxura ederrenera, finenera heldu dela euskara. Jadanik azpimarratu bezala, mundu zaharraren eta berriaren artean amildegi bat bada.

Bestalde, Hizkuntzetan “floria” izatea, ez ote da elegantzia lortu delakoaren seinalea? Hizkuntza hortara heldu da “behar den bezalako tornua” lortu delako. Argi da “tornua” eta “floria”-ren lortzea hizkuntzarendako txanpon beraren bi alderdiak direla. Elegantziaren ideiak hizkuntzaren estetikaren ideia badakar. Elegantzia lortu du euskarak autorearen eta Leheten adiskidetasunaren bitartez (“adisquide oray bordelen denac”, “Sautrela”) obratu den inprimatze humanistikoaren bidez.

Euskara elegantea bilakatu da, hain zuzen, humanisten altzoan gramatizatu delako eta horregatik orain printzeen eskuetara hel daiteke, haien munduko kodeez jabetu delako: “Prince eta iaun handieci oroc haren galdia / Scribatus halbalute iqhasteco desira” (“Sautrela”). Ulertzeko herri-hizkuntzek [grekerak eta latinak duten] lortzen duten “elegantzia” gramatizazioaren ondorioa dela, Lemaire de Belges (1473-1525?) aipa daiteke: “Plaise aux lecteurs supporter benignement la grosse tornure du langage peu elegant” (1509).⁹³ Lemaire de Belges herri hizkuntzaz mintzatzean antiesaldiz mintzo da. Hots, hemen ulertu behar da elegantzia guti duen hizkuntzaren (“*langage [peu] elegant*”) “tornu larria” edo “tornu arrunta” (“*grosse tornure*” [AAS-ek azpim.]), “elegantzia handiko hizkuntza”-ren “tornu fina” dela. LVP-n hizkuntza eta estetikaren arteko loturak argiki berbalizatuak agertzen zaizkigu “ioya ederra” metaforaren bidez (“oroc dugum (sic) *ioya ederra*” [AAS-ek azpim.]).

Azkenean, “behar den tornua” lortuz, “floria”ra iritsiko da euskara inprimatzearen bidez. Modernitatean sartuko da, modernitatean sartua da jadanik. Irakurleak hori du ulertzen liburu inprimatua ikustean eta/edo irakurtzean.

III.1.2. *Sintaxian*

Eskributan emateak “ceren”-ek hasten duen helburu perpausak erakusten duen bezala, “mundu gucietara” publikatzea du ondorioztat: «miraz nago iauna nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait obra egitera eta scribuban imeitera ceren ladin publica mundu gucietara».

“Mundu gucietara publikatzea” ez du eskuizkribuzko testu batek lortzen ahal, bai aldiz testu inprimatuak. Gainera, erranaldiari ongi begiratzen bazaio ikusten da ordenu progresiboan emana zaigula ekintza: lehenik “obra egin” (eskuz izkribatuz) eta gero «eskributan eman» (inprimatuz). Dударik gabe, eskributan ematea inprimatze ekintzaren prozeduran sartzen da.

Perpau horren paraleloa eskaintza epistolaren bukaera aldean aurkitzen dugu. Bi helburu perpausak klarki oihartzun egiten dute testuan, eta merezi du ene ustez konpara ditzagun LVP-ren ingurugiro kulturalaz zerbait erran baitiezagukete. Ohartzekoa

⁹³ In *Légende des Vénitiens...* TLFi <http://atilf.atilf.fr/tlf.htm>

da bi perpausek testuan duten lekua ez dela kasualitatezkoa, eta erretorikaren arkitekturari lotua dela. Badirudi halere dituela Etxeparek erabiltzen alde batetik iraganezko subjuntiboa (“*ladin publica*”) eta bestetik orainekoa (“*dadín publica*”), ondoko etsenpluetan ikusten den bezala:

- «miraz nago iauna nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait obra egitera eta scributan imeitera *ceren ladin publica mundu gucietara*» (Hemengo eta ondoko etsenpluak AAS-ek azpimarratuak).

Dirudienez, iraganezko subjuntiboa erabilia da erakusteko ez daitekeela uler zergatik ordu arte inprimatze-helburua ez den kunplitu. Horrek erran nahi du inprimatzen ahal zela lehenago. Lehenagotik euskal testuendako inprimatze-ekintza bat obra-zeko gai ziren euskal adituak, humanistak, bazirelako (“*Ceren bascoac baitira* abil animos eta gentil eta hetan *içan baita eta baita* ciencia gucietan lettratu handiric”); -“eta çure hatse honetic dadin aitzinerat augmenta [dadín] continua eta [*dadín*] *publica mundu gucietara*”.

Lehen aldiko, euskal liburu baten inprimatze-ekintza gauza daiteke. Helburu humanista obra daiteke orain euskararen faboretan, liburua inprimatuz. Horregatik, subjuntibozko oraina dugu hemen; -«eta berce nacione oroc vste dute ecin de[u]sere scriba dayteyela lengoage hartan nola berce oroc baitute scribatzen beryan».

Hitz hauek frogatzen dute liburu inprimatua euskararen gramatizazio prozeduraren ondorioa dela. Hausnarketa linguistikoak izan direla. Argi da autorea herri-hizkuntzek inprimatze ekintzari esker lortzen duten letra-estatusaz ari da, ez eskuz idazteko ahalaz. Era berean, autoreak “*Contrapas*”-ean diolarik: “*Berce gendec vs-teçuten / Ecin scribaçaiteyen*». Euskarari buruz zebilen ideia agertzen da: gramatikaliza ez zitekeen hizkuntza zela, hain zuzen, aurrerago erran bezala, inprimatzeko duin ez zen hizkuntza. Inprimatzen ahal izateko hizkuntzak lortu behar du kodifikazio linguistiko *inprimatua*.

2006an, André Thevet (1512-1590) kosmografo eta humanistaren *Description de plusieurs Isles par M. André Thévet* eskuizkribu ineditoaren irakurtzen ari nintzela Pariseko BNFe-an, ohartu nintzen Thevet-endako «gotiko» kalifikazioak garai zahar eta ilunak zituela izendatzen. Hain zuzen, karaktere gotikoak «zailak dira irakurtzeko» dio. Zentzu horretan, euskara eta bretoiera bezalako hizkuntzak gotikoak dira haren-tzat bertze hizkuntzetarik —oil eta oc hizkuntzak ote ditu gogoan?—: «le Breton bretonnant est incommunicable aux aultres. Le Basque de mesmes».

Argi da, xvi. mende bukaera aldean (1580 urteen inguruan gara), Thevet-endako euskara kuriositate-gabineteen gordetzeko objektu bat dela, humanismoak hunkitzen ez duen hizkuntza. Jakina zukeen Testamentu Berria euskarara itzulia zela, eta ematen ditu ondotik, irakurle argituak euskararen opazitatearen etsenplu bezala, bi otoitz: «*Gure Aita*» eta «*Sinesten dut*», Leizarragaren lanetan aurkitzen diren bertsiotze-erarik arras hurbilekoak direnak, Jainkoaren tratatze hitano ebangeliko eta humanistikoarekin:⁹⁴

⁹⁴ Ikus «*Oraison Dominicale en Basque*» eta «*Le Symbole des Apostres en Basque*» in Fonds français: ms. 17174 Bibliothèque nationale de France, Richelieu: *Description de plusieurs Isles par M. André Thévet* (folio 7 aurkia eta folio 9 aurkia/infrentzua).

«[folio 9 aurkia]

Estenduë de la France

(...) le Breton bretonnant est incommunicable aux aultres. Le Basque de mesmes: Voire qvâvcums se sont pour ce vould faire accroire, que c'ettoit vn Langage Gotthique, tant parce que Lon y trouve des monnoyës, Et medalles antiques fort di(s)filles à Lire, Et Le ditz pour en avoir deux vers moy dans mon Cabinet, marquées par des

[folio 9 infrentzua]

marquées par des Caracteres Gotthiques, que pour autant auSsy que le Biscain a vn fort bigerre idiome. Je vous propose en Sa Langue L'oraison Dominicale, et le Symbole de nostre creance, à celle fin de donner plaisir, et cõtatement au Lecteur.» (André Thevet)

Thevetek hemen idazten duena baino 40 bat urte lehenago dugu *LVP*-ren inprimatze ekintza. Pentsa dezakegu Theveten iritzi hurbila zuketela orduan ere batzuek *LVP*-i buruz: kuriositate gabinetean kokatzeko liburu bat. Ahatik, Etxepareri kasu egiten bazaio, autorearen ingurugiroan ziren kanpoko letradunek ez zuten euskara, hizkuntza bereizi eta «gotiko» bezala ikusten baizik eta erreforma humanistikoan koka zitekeen hizkuntza. Karaktere erromatarrez inprimatzen zen hizkuntza, latinetik itzul zitekeen hizkuntza (*LVP*-en den doktrina), eta ikas zitekeen hizkuntza zen. Ondorioz, ulertzen da erromatarrez inprimatzeak hizkuntzari ekartzen diola «floria»:

Eci hayen lengoagia [euskaldunen] içanenda floria
Prince eta iaun handiecoroc haren galdia
Scribatus halbalute iqhasteco desira.

Jadanik aipatu bezala, estatus altuko jende letradunek, kodifikazio horri esker, “har” dezakete *LVP*. Alde horretatik, *LVP*-ek justu Theveten kontrako ikuspegi baten fruitu da: euskara ez da gehiago “gotikoa”, mundu zaharrekoa: modernitatean sartua da inprimatu delako, eta inprimatu humanisten kriterioekin.

Azkenean, “scributan imeite”-a, “imprimi”-tzea, “publica”-tzea, “behar duen thornuia” lortzea euskararen estatusari lotuak diren ekintzak dira. Euskararen ortotipografiak euskararen gramatizazioaren esistentzia erakusten du. Eta hori frantse-sarendako 1530 urtetan gauzatu zen fenomenoaren ondorio zuzena da.

“Grafia da lehenik normara heltzen. Ortografia gramatika baino lehen” dio Cerquiglini (2004: 52-53).⁹⁵ Erran nahi da hizkuntzak behar duen ekipamendu tek-

⁹⁵ Ikus Cerquiglini (2004: 53).

C'est par une réflexion sur la langue écrite, dans son aspect le plus matériel (la pâte concrète de l'encre et des mots), que cette grammatisation a commencé. Le fait est d'importance: l'écriture est l'objet du premier regard savant. La graphie accède d'abord à la dignité de la norme, l'orthographe précède la grammaire; il en sera ainsi jusqu'à nous; L'établissement des règles pour la langue écrite est le préalable de l'analyse grammaticale: Meigret lui-même publie son pamphlet orthographique huit ans avant sa grammaire (...) Plus généralement, c'est dans le milieu des imprimeurs que s'entend d'abord l'appel à une normalisation de la langue vulgaire, et qu'un embryon de réforme est mis en œuvre, par le biais d'améliorations typographiques.

nikoz janzten dela. Azken batean, *LVP*-ren mundura sortzeak berak frogatzen du euskararen gramatizazioaren esistentzia.

III.2. *Ebangelismoaren eragina*

Humanismoak herri-hizkuntzaren normalizazio prozeduran ukan duen eraginaren fruituetarik bat da *LVP*, baita ebanjelismoaren ere. Frantsesarendako gogoraraz dezagun berriz ebangelismoak ukanen duen indar berezia Lefèvre d'Étaples-i esker, eta haren inguruan den Margarita Nafarroakoaren kofesaria den Briçonneti esker. Margaritak berak frantses letren eta ber denboran ebanjelismoaren zaintzaile bezala duen eginkizuna oinarrizkoa izanen delarik, Marotekin duen lotura bereziki.

Humanismoak, ebangelismoak, unibertsalistak izanez, herri-hizkuntzen gramatizazioa sustatzen dute, bereziki XVI. mendearen lehen erdian: Kristoren mezua inprimatze-teknologia berriaren bidez, erregelak dituzten herri-hizkuntzen bidez eta katekizazioaren bidez zabalduko da.

LVP-ren *corpus*-ean euskaraz bakarrik —itzulpenik gabe— doktrina baten lehen aldiz tipografiatzea oinarrizkoa da euskararen gramatizazioaren hastapeneko prozeduran. Alderdi hori euskal literatura historiografian ez da kontuan hartu izan, Etxepareren erlijiozko testuak, oro har, baloratu ez diren bezala. Bizkitartean, testu erlijioezkoen hizkuntza euskaraz inprimatzea erreformazaleen keinu ideologiko marka azkarra zen garai hartan. Eta Etxepareren testu erlijioezkoen diskurtsoaren analisiak konfirmatzen du ebangelismoaren presentzia (ikus Arcocha-Oyharçabal 2008).

Etxeparek berak azpimarratzen du Eskaintza-epistolaren bukaeran, geroari buruz prolepsian irekitzen delarik erranaldia, “duten” oraineko subjuntiboaren medioz; lehengo garaietan kunplitu ez zen helburua, orain kunplituko dela: euskaldunek euskarazko “doctrina” bat ukanen dutela:

([lehen]: “miraz nago iauna nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait obra eguitera eta scributan imeitera deren ladin publica mundu gucietara”):

[orain]: “eta bascoec bercec beçala duten bere lengoagian scribuz *cerbait doctrina* eta plazer harceco solaz eguiteco cantatzeco eta denbora igaraiteco materia eta ginendirenec güero duten causa oboro haren abantçatzeco.” (AAS-en etzanak).

Etxeparek bere liburuari ikusten dizkion beste funtzio konkretu guziak, garaiko klase sozial altuko jendeek asti aldien betetzeko ukan zitzaketan espazioen betetzeko dira, *otium*-ari lotuak diren aktibitateak: solasaren artea, kantatzea bezalako aktibitate musikala, astiaren non nola pasa ibiltzea. Gogorarazten digute Margarita Nafarroakoak bere *Heptameron*-en eszenan ezartzen dituen aitoren seme eta alaben (denak ebangelistak bestalde...) portamoduak.

Etxepareren aipamen horiek gogorarazten dute geroago berriz aipatuko dugun Eustorg de Beaulieu-ren (1500-1552) neurtitzezko epistola bat. Taula gainean ezartzen ditu “Bernard Lahet”, Janequin (1485-1558) musikari ezaguna eta bere burua, Leheten etxean gertatzen den soinu ekitaldi batean. Etxeparek liburuari jendearen distraitzeko ikusten dion funtzioa euskararen ohoretan ikusten du. Euskara neurri so-

zial altuko distrakzioetan presente izatea, printze handien estimuan, hizkuntzaren defentsaren egitea da.

Etxeparek aipatzen duen helburu-zerrendan, “solaz eguite[tik]”, kantatzetik, eta astiaren iragatetik kanpo kokatzen da klarki “lengoagian scribuz” emana den “doktrina”. Doktrina *LVP*-en da lehen aldiz inprimaturik euskaraz agertzen. “Bascoec” beren doktrina euskaraz lehen aldiko inprimaturik ukatea gertakizun nagusia da. Helburu hori lortu da normalizazio linguistikoaren prozeduran sartua zelako euskara, beste herri-hizkuntzak bezala (“bascoec berceç beçala duten bere lengoagian scribuz cerbait doctrina”). Latina eta frantsesa dituzke gogoan. Hain zuzen, Etxeparek aipatzen duen “doctrina” liburuaren *corpus*-aren hastapenean den “Doctrina Christiana” dateke baina beste erlijiozko poesiak ere bai. Titulu hori zati partikular batena kontsidera daiteke ala erlijiozko testu guztiak biltzen dituen titulu orokor bezala.

Nafarroako Artxibategian den iturri historiko batek⁹⁶ konfirmatzen du Etxeparek ideia erreformatzaileak zituela. Mendikoaga Garaziko arzapezpikuaren gobernantza-pean kleroak egin zituen abusuen erreformartzeko izendatua izan baitzen eta hori Baionako apezpikuak egin baitzuen Garaziko “jurutuek” eskaturik, informeak dioen bezala:

Que el Obispo de Vayona ultimo que fue a rogaría y por muchas inportunaçiones que le hizieron los jurados de la villa y tierra de Sant Johan, a causa de la mala ministracion de la justicia y dissoluçiones de los ecclesiasticos y otras cosas no debidas que se hazian en tiempo de don Pedro de Mendicoaga exercitaba el Vicario Generalado de Sant Johan, me scribió tubiesse por bien que el hiziesse mutaçion en el dicho Vicariado por lo que convenía al descargo de su conçiencia y buena ministracion de la justicia.

Y que así al dicho Obispo considerando la avilitat suffiçiencia y letras y otras virtudes y buena fama de Mossen Bernart de Chapare Rector de Sant Miguel proveyó a él del dicho Vicariado⁹⁷

⁹⁶ Urquijok zitazten du Huarte (1927). Ikus Urquijo (1933).

⁹⁷ Ikus J. de Urquijo: «Introducción al *Linguae Vasconvm Primitiae de Bernard Dechepare...*» *RIEV*, 1933. J. de Urquijoren iturria J. M. de Huarte da (*Euskalerriaren Alde*, 1926). Dokumentuak aipatzen dituen zati inportanteenak zitazten ditut duten balore historikoarengatik:

Informearen izenak dio: «Instrucciones reservadas dadas al alguacil Bastida acerca de cuanto en nombre de S.M. debía manifestar al vicario general del Obispado de Bayona respecto a la confirmación del título de vicario general de San Juan Pie del Puerdo hecho en favor de Mosen Bernart Dechepare, rector de San Miguel y sucesor en el expresado cargo de don Pedro Mendicoaga». Urquijoren ohar hau egiten duelarik: “El pliego de este papel que contiene la instrucción precedente lleva al dorso y en letra de la época (comienzos del siglo xvi) el epígrafe que sigue: «Treslado de la Instrucción que levo Bastida sobre vicario generalado de Sant Joan».]

Dokumentuak dioena hau da: “Bastida mi agoazil: Lo que abeys de decir e infformar de mi parte al Vicario General del Señor Obispo de Bayona, es lo siguiente:

[hemen dator testuan eman dugun zatia] (...) dicho Vicariado General de Sant Johan lo qual yo tuve por bien por ser el dicho Mossen Bernart muy abil para el exerciçio del dicho offiçio y scribí y mandé a los de la dicha villa y a los otros del Obispado de Bayona que obediesen y cumpliessen lo que el dicho Obispo mandaba pues hera en serviçio de Dios y para la buena ministracion de la justicia.

Y que despues de muerto el dicho Obispo visto que el dicho Mossen Bernart exercitaba bien el dicho offiçio, yo scribí al Capitulo de la Yglesia Catedral de Vayona que no hiziesen mutaçion en el dicho offiçio ni quitassen aquel al dicho Mossen Bernart lo qual así se hizo.

Euskal literatura historiografiak ez du testu historikoa *LVP*-en diren erlijiozkoekin gurutzatu eta ez du baloratu. Alta, Etxepareren erlijiozko testuetan agertzen den jarreraren informazio osatzaile inportante bezala. Datarik gabe den baina Orellaren ustez 1518ko urtea baino geroagokoa datekeen dokumentu horretan, “Bastida algua-zilari” idatziak zaizkion sekretuzko gomendioek,⁹⁸ argirik uzten dute, gorago erran bezala, Garaziko kleroak ez dituela onartu Etxepareren erreformak eta nahi duela Bikario Jeneral kargua Baionako apezpikuak ken diezaion, beste norbait izendatuz... Gutunak agertzen du egin ahalak egiten dituela informearen idazleak, hots, Micer Juan Renak veneziar kapelauak (Orella 1987, Esarte 2001)⁹⁹ Bastidari argiki agerrazteko zer dioen erran behar Baionako Arzapezpikuari harek Etxepare berriz konfirma dezan bere karguan.¹⁰⁰ Beharbada Renaren Etxepareren aldeko jarrera kidetasun erlijiozkoak du bultzatzen eta ez, uste izan den bezala, politikoki oso konplexuak diren garai horietan, Etxeparek Carlos V.arentzat duen ustezko aldekotasunak:¹⁰¹

Y que agora parece ser an infformado a la Magestad del Rey nuestro Señor en nombre de la villa de Sant Johan, deziendo que la dicha villa tiene privilegio que el Vicario General que ha de ser en Sant Johan a de ser hijo natural y residente de la dicha villa y otras cosas, lo qual es contrario a la verdat porque no tiene la dicha villa tal privilegio y ququando lo tuviesen mostradolo a mi yo ternia forma como se les goarde y cumpla ququanto mas que el dicho Mossen Vernart vibe a media legoa de Sant Johan y sus audiençias tiene en Sant Johan. (...)

[Ondoko hiru ahapaldiak testuan aipatuak beherexego]

Y assi le rogat de mis partes que no haga mutaçion en el dicho officio de Vicario General, mas antes le dé nuevo título al dicho Mossen Bernart, que en ello servirá a Dios, y a mi hará singular complazimiento y descargará a su conçiencia.

Y que en las cosas que tocaren al Señor Obispo siendo requerido por él yo lo haré y mandaré con mucha voluntad como lo verá por obras, y cobrad respuesta del.

Y si por caso no quisiere hacer esto que le ruego, le dezid que no se dará lugar a otra cosa ni es cosa que cumple al seruiçio de Su Magestad que otro sea Vicario General en Sant Johan sino el dicho Mossen Bernart, ni se consentirá que en el dicho officio ni en otro alguno en este Reyno se pongan perssonas sino que sean acceptas al seruiçio de Su Magestad. Esto ultimo le direys ququando mas no pudieredes hazer, y sea bienf dicho de manera que conozca que otra cosa no se dará lugar.»

⁹⁸ Ikus Orella (1987: xii-xiii): “De fecha posterior a 1518 debe ser la información que nos propone el segundo documento o memorial, redactado a juzgar por el fondo en que se halla por Micer Juan Rena con acuerdo del Virrey y consulta del Real consejo de Navarra”.

⁹⁹ Renaren lanetarik bat da nabartar legitimisten helburuen eta mugako joan jinen zaintzea espioiak bilatuz eta pagatuz 1513-1515 urteetan bereziki, François Iaren tronura igatearekin beldur baita Carlos V, Nafarroako legitimistei (Labriteko leinukoei) Frantziako errege berriak laguntza militarra ekarriko diela galdu duten erreinu historikoaren errekuperatzeko. Espioi lana Nafarroa Beherean biziki intentsoa izanen da urte horietan (Esarte 2001: 261). Veneziakoa den Juan Rena, Carlos V-k 1520ko urtarrilaren 23an naturalizatuko du (Esarte 2001: 347).

¹⁰⁰ Ikus Orella (1987: xii-xiii):

En el nombramiento de este cargo [Bikario Jenerala kargua] intervenían en primer lugar el Obispo de Bayona y en su caso el Vicario General del obispo el Capítulo de la Iglesia Catedral de Bayona; además debían ser atendidas las exigencias del rey, ya que se le consulta en la sustitución del que ejerce el cargo, lo mismo que los privilegios de la villa y tierra de San Juan y sus presiones ejercidas por medio de sus jurados. El ámbito de actuación de esta autoridad judicial era San Juan, en su villa y tierra, y “otros del obispado de Bayona”.

¹⁰¹ Orellak plazaratzen duen galdera zentzuzkoa dela iduritzen zait, hain zuzen: “...es verdaderamente curioso el que se edite esta obra en prensas francesas si, como luego hablaremos, el autor fue un «súbdito» del rey español y era además de mentalidad beamontés” (1987: vii).

(...) Y que el dicho Mossen Vernart ha seydo y es muy buen seruidor de Su Magestad y que yo infformaré a Su Magestad de su persona y virtudes como se aya descargo de la carta que Su Magestad ha scripto al Señor Obispo.

Y si os dixiere el Vicario General de Vayona que la clerecía le suplica que quite del offiçio al dicho Mossen Vernart, vos le dezid que no es la clerecía en general sino algunos particulares a quien *el ha corregido y traydo de mal y desonesto vivir al bueno, y porque les ha bedado los juegos y otras dissoluciones lo quoyal se consentia en tiempo de don Pedro de Mendicoaga.*

Y assi le rogat de mis partes que no haga mutaçion en el dicho officio de Vicario General. (AAA-en etzanak)

Garaziko eskualdeko kleroaren kexuek aditzera ematen dute zer motakoak izan ziren Etxepareren erreformak. Eta ohar guziek, baina bereziki argiki aipatzen den jokoaren kontrako jarrera karakteristikoak, salatzen dute Etxepareren ebanjelismoa. Dokumentu horri esker, bestalde, ageri da Arzapezpiku izateak, kargu inportantea zenez, letrak eskatzen zituela, eta Etxeparek eginbarrekin betetzen zuela:

Y que así al dicho Obispo considerando la avilitat sufficiencia y letras y otras virtudes y buena fama de Mossen Bernart de Chapare Rector de Sant Miguel proveyó a él del dicho Vicariado General de Sant Johan lo quoyal yo tuve por bien por ser el dicho Mossen Bernart muy abil para el exerciçio del dicho offiçio.

Orellak aditzera ematen du unibertsitare batean zuzenbideko graduazio bat ukana zukeela.¹⁰² Aitzina daiteke teologian izan daitekeela graduatua, ez dakigu zer unibertstatetan (Akitanian? Tolosa aldean, Lehet bezala?).

III.3. Lehet eta LVP

B. Lehetek, edo Lahetek, Sarako leinu noble izen bereko familian zituzkeen oinarririk (Oihenart [1665] 1967, Urkizu 1999). 1514ean Tolosan zegoen legegintza ikasten. Bordelen erregeren abokatu izan zen Guyenne-ko Amiralgoan (1524-1529) (Baranova 2002) eta abokatu jenerala 1529-1560 urteetan. Antonie de Guilloche, izen bereko Kontseilariaren arrebarekin ezkondu zen (Baranova 2002) eta hil Bordelen 1562ko urriaren 10ean. Bordelen mezena baten rola betetzen zuen poetak eta musikariak ukanez bere inguruan. Eustorg de Beaulieu poeta eta musikariari esker ezagutu zuen Clément Janequin musikari famatua.¹⁰³ Hain zuzen, Eustorg de Beaulieu-ren neurtitzeko epistola eder bati esker (Urkizu 1999: 110-111) Lehet errepresentatua

¹⁰² “De Mossen Bernart se afirma su habilidad, suficiencia y letras, lo mismo que otras virtudes y buena fama. Ciertamente no erraríamos demasiado, si dijéramos la necesidad de tener «licentia ubique docendi in utroque iure», impartida por una facultad en derecho, para poder ejercer este cargo. Además el documento nos notifica que Bernart fue nombrado para este cargo por el obispo de Bayona, refrendado por la autoridad del virrey, confirmado en el cargo por el capítulo de la Iglesia Catedral de Bayona en sede vacante.” (1987: xii-xiii).

¹⁰³ «[Clément Janequin] s’était lié avec le poète Eustorg de Beaulieu qui l’introduisit dans le cercle de l’avocat Bernard de Lahet, lequel jouait les mécènes.» http://www.universalis.fr/encyclopedie/K100801/JANEQUIN_c.htm

zaigu 1529 urtean, modu bizian Eustorg berarekin eta momentuz identifikatu ez den “Blaise” batekin hiru bozeko kantu polifonikoaren interpretatzen, Clément Janequin (Jennequin) Europan fama handia lortuko duen akitaniar musikariarekin kantari, eta mezena rolean bere egoitza artistei eta intelektualei irekitzen diela. Eustorg 1539tik landa eliza erreformatuan sartzen da eta Suizara joaten bizitzera. Ez dakigu zuzen Lehet zer ideiatako zen, garai horietan ez dira oraindik alderdiak katoliko eta ebanjelisten artekoak bortizki zatituak Bordelen Montmorency Konetableak han egin sarraskien kontrako satira den “Pasquille” baten irakurketak erakusten duen bezala (Baranova 2002: 489). Baranovak transkribatzen duen “Pasquille”-ean (<http://www.persee.fr/web>), “Lahet”-i ahoan ezartzen zaizkion leak arras anbiguoak dira Salmo 55aren erabilpenak gogorarazten baititu erlijio polemikak eta erreformatuen “fede justifikazioa”¹⁰⁴ iduri baitu, hain zuzen, afera horretan Lehet kalomniatua izan dela, eta ez da, itxura guzien arabera, topiko baten erabilera (ikus ere LVP-en, Etxepareren gartzelatze episodioa beste kontestu batean).¹⁰⁵

Bordele xvi. lehen erdian, “Ernazimenduko zentro handienetarik bat da”, Italia-tik zuzen heldu dira hango Guyenako Kolegiora Europako humanista handiak (ik. Baranova 2002: 487). Lehetek mezenas bezala eginkizun inportantea du hirian eta dirudienez Parlamentuan badira beste Letra ederren maitaleak, horien artean Rabelaisen adiskide den Briand de la Vallée bat, eta baita Zuberoako jatorria salatzen duen deitura duen Jehan d’Ybarolle bat ere (Gaulleir Baranovak aipatua 2002: 487).

Etxepare eta Leheten artean den adiskidetasuna esplizituki aipatua da “Sautrela”-n. “Adiskidetasun” hori, beharbada, antzinako moduan ikusi behar delarik (Kikero: *De amicitia*), eta euskararen gramatizazioaren proiektuan delarik gauzatzen, agian Guyenako Kolegioko eta Parlamentuko ingurugiro intelektualean mugitzen diren beste pertsonaia batzuei ere lotu behar zaielarik horrelako proiektu baten esistentzia.

... à scientifique & Tres-prudent Seigneur. Monsieur Maistre Bernard de Lahet
aduocat du Roy, en sa court de parlement à Bordeaux. (...)

Le pense fort si ton cueur se delecte
Comme iay veu, au ieu de lespinete
Et j’ayme tant le doulx bruyt organique
Comme autresfois, & la douce musique

¹⁰⁴ Gogorazi behar delarik mendearen bigarren erdian prokuratore jenerala izanen den (1564) Leheten seme Joanes protestanta zela eta “eliza erreformatuko Guilloche kontseilariaren lehengusua (...) katoliko zenbaitek salatu egin zute[la] haren jauregia erreformatu iraultzaileen babeslekua bilakatua zelako” (Urkizu 1999: 107). Nahiz ikerketa honen denbora-mugak gaintzen ditugun Leheten semearen ingurumen ideologikoa aipatuz, iduritzen zait merezi duela puntu horren markatzea, behar bada bade-lako hor xvi. mendearen hastapenetik badabilan ideia berrien aztarna.

¹⁰⁵ «Quels rôles ont joué ces personnages dans la révolte ? L’auteur [Pasquilla-ren autore edo autoretak anonimoa(k) d(i)ra] L’auteur parle de tentatives d’ennemis visant à accuser l’avocat Bernard de Lahet d’un comportement indigne» (Baranova 2002: 487). Hona Lehet aipatzen duen «Pasquilla»-ren zatia: «L’advocat du Roy Lahet. Adversum me susurrabant omnes inimici mei adversum me cogitabam mala mihi» (Baranova 2002: 492). Ohartzekoa Lehet pertsonaia eszenifikatzen duen fikzionalizazio honetan, aurkitzen dugun iturri bibliko berdina aurkitzen dela Etxeparek bere gartzelatzeaz egiten duen testuan. Iturria, erran bezala: 55 Salmoa, 40, 8.

Ou ie tay veu prendre tant de plaisir
 Que bien souuent, ains que t'aller gesir
 Pour de soucy, & peyne, estre deliure,
 Si tu trouuoys de musicque aucun liure
 Toy, Blaise: & moy, chantions iusqu'a mynuict (...)
 Tu t'acointois de Clement Iennequin
 Et d'autres mains, tous gens d'experience
 Et ou gisoit musicalle science.
 C'estoit, en lan mil cinq cens vingt & neuf (...)
 Tu tins maison ouuerte, à plusieurs gens
 Ien suis tesmoing qui ne le puis nyer
 (...)

Leheten presentzia oinarrizkoa da Eskaintza-epistolaren autoreak hari dedikatzen baito salatuz ber denboran haren eginkizuna zuzena izan delako iduriz *LVP* osoaren inprimatze-ekintzan.¹⁰⁶ “Ni” auktorialak argitzen du hautuaren arrazoia: «baytuçu estimatzen goratzen eta ohoratzen euscarā». Subordinatu kausatibo horren egitura hirukoitz sinesten badugu, deduzitzen da Lehet *LVP*-ren inprimatze-proiektua baino lehenagotik sartua dela euskararen gramatizazio gogoetan, Etxeparek horren berri badauela, eta biak euskaraz alfabetizatuak direla *LVP* baino lehenagoko garaietan (hots, irakurtzen eta idazten dutela euskaraz).

Agertzen da Lehetek duela liburuaren inprimatze-ekintza bideratu, bi fase ikus daitezkeelarik. Lehenik Etxeparek eskaintza epistolaren proiektu bezala aipatzen du inplikatzeko hori “...inprimi eraci diçaçun” subordinatu finala erabiliz, helburua ez baita gauzatua. Lehetek *LVP*-ren testu liminariotzat hartu badu Etxeparek igorri dioten zinezko obraren aurkezpen-gutuna logikoa da helburu bezala aipatzea. Aldiz, “Sautrela”-n, ekintza bukatutzat emana da, baina prolepsia bat da “Lehen imprimiçalia heuscararen hurada” idazten duelarik Lehetendako, Etxeparek inprimatu-ekintza aitzin duelako hori idazten, eskuizkribuan bien arteko lankidetzaren ekintza kunplitu aitzin:

Desir hura conplitu du garacico naturac
 Eta haren adisquide oray bordelen denac
 Lehen imprimiçalia heuscararen hurada
 Basco oro obligatu iagoiticoz hargana

Beraz, Leheten presentzia liburuaren edizio inprimatuari lotua agertzen da. Etxeparek Lehetez egiten dituen bi aipamenak inprimatzeko prest den aitzin-testua bukatu ondoan eginak dirateke Lafonen arabera, hiru testu horiek, eskaintza-epistola, “Contrapas” eta “Sautrela”, liburu guzira bukatu ondoan idatziak dirateke forma linguistiko amankomunek aditzera ematen duten bezala.¹⁰⁷ Gehitzen dut eskaintza-

¹⁰⁶ Ikus artikuluan, protokolo epistolarioaren markak § I.3.4.

¹⁰⁷ Etxeparek eskaintza-epistolaren erabiltzen duen arrazoibidea (inprenta herri-hizkuntzen zabalbide), bi azken piezetan, «Contrapas»-ean eta «Sautrela»-n aurkitzen da. Zubiak nabarmenak dira. Lafonek agertzen ditu hiru testu horien artean badirela amankomun linguistikoak. Adibidez: «bague» eskaintza epistolaren (Lafonendako «Préface»), eta «Contrapas»-ean bakarrik agertzen dela; «tz» grafia soilik eskaintza epistolaren, «Contrapas» eta «Sautrela»-n. Horregatik, Lafonek dio eskaintza-epistolak, «Contra-

A scientifique seigneur. Monsieur
 maistre Bernard de Lahet advocat
 du Roy, en la court de parle-
 ment, à Bordeaux.
 ¶ Epistre premiere.



Combien que craincte en t'escrepant
 s'auance
 De m'appeller, fol, plain d'oultreuidance
 Espoir me pouille, & me dict, tu fais mal
 Si tu te crainctz qu'un cœur noble, & loyal
 Tant enrichy de vertus à souhait
 Comme celuy de Bernard de Lahet
 Aye en desdain la teneur de la lettre
 Quoy qu'elle soit en rude stile, & metre
 Et que plus est qu'il soit en dignité
 [Non sans merite] & grande auctorité
 Car la pour ce ne t'en tiendra mespris
 Et n'en feras aucunement repris
 Joinct, que les biens, & les honneurs du monde
 N'ont rien changé les meurs & sa faconde
 Et ne fut onc plus doux, & liberal
 Auant qu'il fust advocat general

Eustorg de Beaulieu-k Lehet-i eskaini neurtitzezko epistola¹⁰⁸

(*Les Diuers rapports...*, 1540)

epistola egiterakoan argi dela autoreak liburuaren ikuspegi globala baduela, doktrina idatzia duela, astia iragaterko diren beste testuak idatziak dituela. Eta ikuspegi global

pas»-ek eta «Sautrela»-k batasun linguistiko bat formatzen dutenez garai berean idatziak izan daitezkeela, hain zuzen, beste testu guziak bukatu ondoan:

Ainsi les deux poèmes en l'honneur de la langue basque et la Préface paraissent bien former un ensemble à part du reste et ont dû être écrits à la même époque et après le reste. Les deux poèmes développent l'idée maîtresse de la Préface, prouvée et illustrée par le reste du recueil: le basque qui n'avait pas jusqu'ici de littérature, peut et doit en avoir une, car il est «aussi bon à écrire» que les autres langues. Il est probable que Dechepare, après avoir montré par le fait que sa langue maternelle était aussi apte que les autres à exprimer les sentiments les plus élevés et les plus profonds, le sentiment religieux, la passion amoureuse, l'amour de la justice et de la liberté, a tenu à célébrer la langue basque elle-même et sa promotion au rang de langue littéraire (Lafon [1951] 1999: 731-732).

¹⁰⁸ Eskertzen dut P. Urkizu, Eustorg de Beaulieu-k Bernard Leheti (Lahet bezala izendatzen duela-rik), eskaini epistolaren erreprodukzio inprimatua aipatu eta helarazirik. Epistola inprimatu horren lehen orria erreproduzitzen dut artikuluan. Azpimarratzekoak dira orrialde horretan humanismoaren seinaleak. Adibidez, liburuaren omnipresentzia, ikasketa eruditoez egiten den alusioa, idazlearen eszenifikatzea, tipografia erromatarra eta 'C' letra apainduaren elegantzia.

berdinaren arabera dituela “Contrapas eta “Sautrela” idatzi, liburu osoa duelarik perspektiban, ohartzekoak delarik *oray* denbora-adberbioaren indarra: (“orai” garai berriak dira bukatua baita liburua) eta inperatiboaren erabilpenak markatzen duelarik (“orai” manatzen ahal zaio euskararen itxura alegorikoari atera dadin kanpora —hots, inprimatua izan dadin— bukatua baita).

Autoreak eskaintza-epistolari ongi sailkatuak diren informazioak ematen dizkigu eskuizkribuak inprimatu aitzin eraman duen ibilbidearen ulertzeko preziatuak direnak:

1. *“igorten darauritzut heuscarazco coplabatzu ene ignoranciaren araura eguinac”*: Etxeparek eskuizkribua Bordelera doan posta-bidez edo Baionako portutik ateratzen den ontziz helarazi du eskuizkribua. Orainean idatzia izateak ageriarazten ahal du, besteak beste, postaz igorri pakete hori laguntzen zuen gutuna dela gero eskaintza-epistola bezala erabilia;
2. *“Ceren iauna hayec iqhussiric*: “ikus” hemen “irakurri”ren zentzuan erabilia da, irakurtze hau zuzenketan sartzen den prozesua da;
3. *“eta corregituric plazer duçun beçala”*: “hutsen” “zuzentzeak” gramatizazioaren prozesuan dela euskara frogatzen du. Hain zuzen, zeinu linguistikoa kontentzio bat delakoaren kontzientzia bada, hori Ernazimenduko pentsamendu karakteristiko delarik (Cerquigliani 2004: 53). Lehenago aipatu bezala, Rabelaisek ongi adierazten du kontzientzia hori dioelarik hizkuntzak ez direla “naturalak” baizik eta “instituzio arbitrarioak eta populuaren konbenientziak”. Nolabait euskararendako norma batzuk finkatuak daitezke bestela ez baitaiteke LVP-ren eskuizkribua “korregi”. Euskararen ortotipografiaz bada ideia bat. Toryk hartu erabakiak zabalduak dira. Hain zuzen, erabakia da euskararen grafia frantsesaren grafia bezala latinaren arabera moldatu behar dela latina aspalditik finkatua den (gramatizatua den) hizkuntza delako,¹⁰⁹ eta ahoskeratik deduzitu behar dela eskritura “foniarekin den harremana unibokoa bilakaraiz” (Cerquigliani);¹¹⁰
4. *“irudi baçautzu inprimi eraci diçaçun eta çure escutic oroc dugum (sic) ioya ederra Imprimituric euskara orano içañ eztena”*: euskararen ortotipografiaz Lehet dateke arduratzen inprimategiko jendearekin (“inprimi eraci deçaçun...”-“çure escutic oroc...”); “irudi baçautzu” *topos modestiae*-a izan daiteke, zeren itxura guzieren arabera LVP-ren inprimazteko erabakia Etxepare-Lehet-en artean aurretik erabakia den gauza da; “ioya ederra”-k hizkuntzaren estetika materialera igortzen gaitu (“Imprimituric euskara orano içañ eztena” zatiak ongi frogatzen du euskararen etikotasuna ez dela pentsa daitekeen bezala abstraktutasun huts bat). Hizkuntza gauza “ederra” eta “preziatua” izan dadin inportantea da ortotipografian (ikus Tory). Inprimatze karakteria erromatar tinta, orri antolakuntza, hitzen mozteko ala ez mozteko moldea, abrebizioa, zeinu diakritikoa, puntuazioa, azentuazioa, etab. elementu material horiek dute egi-

¹⁰⁹ Ikus, osagarri bezala, Leizarraga, «Hevscaldvnei» in *Iesus Chist Gure Iavnaren Testamentv Berria* [1571, 1900] 1990: 254).

¹¹⁰ «les années 1530 voient l'équipement progressif de la langue française en traités et manuels; quelques innovations».

- ten ortotipografia, erran nahi da hizkuntzak *begia hunkitzen* duela, *gorpuztu* dela, inprimatzearen bidez. Inprimatzeak du hizkuntza apaintzen.
5. “*eta çure hatse honetic dadin aitzinerat augmenta continua eta publica mundu gucietara*”: subordinatu honen ekibalenteak dira ondotik heldu den “eta ginendire nec güero duten causa oboro haren [“çure hatse honetic”] abançatzeo”] eta *LVP*-ren bukaeran den azken latinezko epigrafoa “*Debile principivm melior/fortuna seqvatvr*”. Lehetek lehen aldiz inprimarazten duen euskarazko liburuarekin (“çure hatse honetic”) inprimatze prozedura geroari buruz irekitzen da etorkizunean jinen diren beste euskarazko testuendako. Hemen ere agertzen da badakitela Etxeparek eta Lehetek herri-hizkuntzaren bizitzea “populuen konbenentzia” dela, modernitatean sarturik egon nahi badu euskarak hautu kulturalak eta instituzionalak egin beharko direla modu kolektiboan. Badakite *LVP* lan pioneroa dela orainean (*oray*), eta gerorako. Gerorako desiratzen denak pisu berezia hartzen du hiru subjuntiboen presentziarekin “*dadin aitzinerat augmenta*”, “[*dadin*] *continua*” “[*dadin*] *publica*”. Anitz aldiz bederen errepikatua delarik ideia bera (azken epigrafoak dioena eta “*Contrapas*” eta “*Sautrela*” kontuan hartuz): autoreak idatzi duenari (aipamen hori hemen *topos modestiaez* gordetzen du autoreak berak), eta Lehetek inprimarazi duenari segida eman beharko zaio anplifikatuz (anplifikazioaren figura erretorikoaren eta klimaxaren erabilpenekin): “*dadin augmenta*”, normalizazio linguistikoari esker, gramatizazioari esker euskarazko obren presentzia inprimatua sustatu behar da geldigabe lan kolektiboari esker (hirugarren pertsona pluralak dudarik ez du uzten: “ginendire nec güero”), etorkizunean (“aitzinerat”) idazte-inprimatze-publikatze ekintza etenik gabe eramanez (“[*dadin*] *continua*”) “*mundu gucietara*” publikatzeko. Gradazio horren bidez subjuntiboan diren hiru aditzek Etxepare-Lehetek euskararendako pentsatua duten programa humanista zaigu hemen erakutsia. Anplifikazio maximal horrekin da bukatzen euskararendako Etxeparek eskaintza-epistolaren elaboratua duen programa linguistikoa. Gero, pietate-formula heldu da epistolaren zerratzeko: “*eta obligatu guiren guciac geyncoari othoyz eguitera dizum (sic) mundu honeten (sic) prosperoqui vicia eta bercian parabiçuya, Amen*”.

* * *

Etxepare, itxura guzien arabera, *LVP* idatzi aitzin Lehetekin euskararen gramatizazioaz gogoetatzen hasia zen ortotipografiatzen protokoloen eraikitzeo. Behar bada Etxeparek, Leheten bidez, Bordeleko Guyenako Kolegioaren inguruko eta Parlamentuko sare humanistikoarekin harreman intelektualak bazituen. Bestalde, Condé printze kalbinistaren liburutegitik heldu den *unicum*-a dela kontsideratuz, pentsa daiteke “Nafarroa Berri”-ko gortean ezaguna zela liburua bederen, eta behar bada autorea.

Dena den, peritestualitatean oinarritzko lekua duen Eskaintza-epistolak, konfirmatzen du Etxepare ez zela zoko batean isolatua, *LVP* komunikazio baten fruitu dela eta modernitate osoaren lekukoa dela. Argi da humanismoak hunkituak zituen goi mailako aristokratek, “Prince eta iaun handi”-ek (“*Sautrela*”) sustatzen zuten frantse-saren gramatizazioaren urratsak hartu direla etsenplutzat *LVP*-ren inprimatzeko ore-

nean. “Contrapas”-ean Etxeparek dio: “Eceyn ere lengoagerik / Ez francesa [AASen etzanak] ez berce ric”.

Eskaintza epistolak *LVP*-ren inprimatze aitzineko urratsen berri ematen digu. Bereziki, testu inprimatuaren aitzin-testuaren mugimenduen berri. Ikusi da zirriborroak egin bidaia geografikoaren lekukotasun bakarra eskaintza epistolari dela aurkitzen.

Ez ote da *LVP*en hasten den euskararen gramatizazioa gizaldi bat geroago 1571ean segitzen eta zabaltzen Haultin-en prentsetan, Leizarragaren itzulpenekin, karaktere tipografiko erromatar kapital eta minuskulei, italikoa (etzana) eta azentu tipografikoak euskal hitzei gehitzen zaizkielarik? Continuum bat ez ote daiteke ikus bi obren gramatizazioan? Ene ustez erantzuna baiezkoa da. Bestalde, hari ideologikoa hor da. XVI. mendearen lehen erdian zen erreforma mugimendua Lefèvre d’Etaples-ena, Margaritarena, erreformen aldekoa dena baina ez zismatikoa, 1571an arras erradikalizatu da. Margaritaren alaba Joana Labriten erregetzapean erreformak kalbinismoaren itxura du, Europan su pindarretan dira orduan bazterrak, “papisten” eta “protestanteen” arteko erlijio gerlak hasiak Frantzian. Louis I^{er} de Bourbon Condé Frantziako kalbinisten zuzendaria, *LVP*-ren jabea, Joana Labritekin zegoen Errotxelan, Haultin han zelarik (eta Leizarraga?). Hipotesi bezala aitzina dezakegu Leizarragak ezagutzen zukeela urrundik hala hurbiletik *LVP*-ren esistentzia eta Joana Labritek berak, Condé printzea haren koinata zenez... Hain zuzen, Leizarragak Joana Labriti zuzentzen dion hitzaurrean den eranaldi lakoniko batean, Leizarragak beste inprimatze ekitaldi bat izan dela bere “traslazioa” aitzin, aditzera ematen du. Ene ustez ez da dudarik, kasu honetan, Leizarragak “scribatu”/”escrit” Etxeparek erabiltzen duen zentzuan duela erabiltzen: inprimatzeaz ari dela:

cembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetaric eta diuersenetaric: eta oraino, *tráslationetá behinçat*, vsatu gabea. (Leizarraga [1571; 1900] 1990: 252)

que la langue en laquelle i’ay escrit est des plus steriles & diuerses, & du tout inusitee, *pour le moins en traduction*. (ib 246)

Argi da Etxepare ez dela nehandikan ere “herrikoia”. Arras erraturik ibili zela, —etsenplu bat hautatzeko beste anitzetan—, Aristimuño zioelarik, neo-erromantiko-tasunez bete da den iritzi honekin:

Ni la inspiración, ni el ropaje de las poesías son dignas del ideal que canta. Aquella pobre, éste tosco. Pero late el alma de un enamorado en esas humildes composiciones. Es por eso, precisamente, por lo que apreciamos los sencillos versos de Etxepare (Aristimuño 1933: 17).

“Sencillos versos” dio Aristimuñok. Letragabearen zentzua ematen bazaio “sencillo” adjektiboari, erran daiteke arrunt kontrazentzuan zebilela, eta hain zuzen “sencillo” “ximple”-ren zentzuan erabili behar baldin bada Etxepareengan, humanismoaren eta ebangelismoaren seinale bezala behar dela ikusi, eta jarrera linguistiko hori garaiko Akitaniako giro errefinatuenetarik heldu dena dela, euskararen gramatizazioaren seinalea dela. Hori da hemen zabaldu nahi izan dudana hipotesia.

Frantziako, Akitaniako, eta Nafarroako erreinuetako humanistek eta haien inguruan ziren letratuek, Europako edozein humanistak bezala, liburuaren ikustera heltzen baziren, ulert zezaketen istantean, herri-hizkuntza horretan gramatizazioa-

ren seinale argiak bazirela, liburua bera zeinuen ekarle zelako bere materialtasu-nean. Uler zezaketen berehala liburuaren titulua eta azken epigrafoa irakurriz, grabatu kristikoa eta tipografia mota ikusiz, ideologikoki eta kulturalki non eta nola kokatzen zen. Hots, *christiana simplicitas*-arekin bazuela zer ikus. Frantziako eban-gelisten artetik jalgia zela eta pentsa daiteke beharbada Condé printzeak LVP bere liburutegian zuela, hain zuzen bazekielako filosofia ebangelista iturritik heldu zela.

Aristimuñok aipatzen duen neurtitzen «xinpletasuna», Lafonek beste modu ba-tez espresatzen du «monotonia» aipatuz; ordea, Lafon konturatzen da anakronismoz duela gaurko irakurleak inpresio faltsu hori (ik. Orpustan 1996: 32-33 ere). Etxepa-রেরen koplak «arte seguru»-aren lekuko direla, hizkuntzaren jabe den poeta dela, eta beraz letratu fina:

Si la suite de ces vers qui presque jamais n'enjambent les uns sur les autres pro-duit au premier abord une impression de monotonie, on s'aperçoit vite qu'un art déjà sûr préside à leur composition et à leur mise en place. Le poète utilise avec adresse les procédés variés, anciens ou plus récents, que la langue lui offrait (Lafon [1951] 1999: 756).

Mitxelenak azpimarratu izan du Etxepareren obra gehienik ikertuenetarik dela idazle klasikoetan (Altunaren 1979ko hitzaurrean), baina ene ustez, hori egia baldin bada ere, bizkitartean ausarta ninteke aitzinatzeraz paradoxalki gutienik “irakurria” den testua dela *Linguae Vasconum Primitiae*, eta gutienik ulertua haren sortzea posible egin zuen ingurugiroa. Etxepareren obra euskal kritikaren anakronismoaren biktima da, dudarik gabe.

Bibliografia

- Akesolo, L., 1968, *Bernat Dechepare, Olerkiak*, Txertoa, Donostia.
- Aldekoa, I., 2008, *Euskal literaturaren historia*, Erein, Donostia.
- Altuna, F. M., 1979, *Versificación de Dechepare, Métrica y pronunciación*, Mensajero, Bilbo.
- , 1979, *Etxepareren hiztegia, Lexicón dechepariano*, Mensajero, Bilbo.
- , 1980, *Linguae vasconum primitiae (Edizio Kritikoa)*, Patxi Altunak paratua, Mensajero, Bilbo.
- , 1981, «Etxepare herri poeta», in ZZEE, *Euskal linguistika eta literatura bide berriak*. Deustuko Unibertsitatea, Deustu: 321-341.
- Arcocha-Scarcia, A. (Arkotxa, A.), 1996, «Bernat Etxeparekoaren maitasunezko kopletaz», *Sancho el Sabio* 6, 211-234.
- , 2001, «Deux imprimeurs rochelais du xvii^e siècle: Pierre Haultin imprimeur du *Testamentu Berria* (1571) traduit par Jean de Liçarrague, et Jean Portau, imprimeur de l'édition 1579 des *Voyages aventureux du capitaine-pilote Martin de Hoyarsabal de Cibouze*», Eusko Ikaskuntza, «Lankidetzan bilduma», Donostia, 53-83.
- & B. Oyharçabal, 2008, «Siglo xvi. Las primicias de las letras vascas», in *Historia de la literatura vasca*, [www.http://basqueliterature.com](http://basqueliterature.com)
- Ariztimuño, J. (de), 1933, «El primer renacentista y poeta euskeldun», *Yakintza* 1, X 13-20.
- Baranova, T., 2002, «Le discours anti-tyrannique dans la France d'Henri II: un des sens multiples du Pasquille sur la rébellion de Bordeaux et la conduite du connétable (1548)», <http://www.persee.fr/web/revues/>

- Beaulieu, E., 1537, *Les Diverz rapportz contenantz plusieurs Rondeaux, Huictains, Dixains, Ballades, Chansons, Epistres, Epitaphes et aultres joyeusetez*, Le tot composé par M. E. de Beaulieu, On les vend à Paris en la rue neufue nostre Dame à l'enseigne de l'escu de France, Par Alain lotrian.
- Blasselle, B., 1998, *À pleines pages, Histoire du livre, Volume I*, Découvertes Gallimard, Paris.
- Brown, C. J., 1991, «Text, image, and authorial self-consciousness in Late Medieval Paris», in *Printing and the Written Word (1450-1520)*, ed. S. Hindman, Ithaca, Cornell U.P., 103-142.
- Brun-Toulet, R., 1968, *Technique du livre*, École Nationale Supérieure de Bibliothécaires, Paris.
- Cazal Y., Parussa G., Pignatelli C., Trachsler R., 2003, «L'orthographe: du manuscrit médiéval à la linguistique moderne», *Médiévales* 45, [www.http://medievales.revues.org/document969.html](http://medievales.revues.org/document969.html)
- Cerquiglini, B., 2004, *La genèse de l'orthographe française (XIIIe-XVIIe siècles)*, Unichamp-Essentiel, Honoré Champion, Paris.
- Chartier, R. & Bourdieu P., 2010, *Le sociologue et l'historien*, Préface de R. Chartier, Agone & Raison d'Agir, Ina, Paris.
- , H.-J. Martin, 1983, *Histoire de l'édition française. Le livre conquérant. Du Moyen Age au milieu du XVIIe siècle*, Fayard, Paris.
- Chaunu, P., 1975, *Le temps des Réformes*, Pluriel Histoire, Fayard, Paris.
- Cohen, P., 2005, «Il entend toutes les langues de cestuy Univers»: Joseph Scaliger, l'humanisme et le pluralisme linguistique à l'époque moderne», in Courouaou, Cubelier de Beynac & Gardy (arg.), 10-27.
- Courouaou, J.-F., 2005, «Écrire dans les marges ou au centre: en catalan à Valence, en occitan à Toulouse 1550-1610», in Courouaou, Cubelier de Beynac & Gardy (arg.), 203-222.
- , 2008, *Moun lengatge bèl. Les choix linguistiques minoritaires en France (1490-1660)*, Droz, Genève.
- , J. Cubelier de Beynac, P. Gardy (arg.), 2005, *Les Voix de la nymphe aquitaine, Écrire, langues et pouvoirs 1550-1610. Actes du colloque tenu à Agen et Nérac les 3, 4 et 5 octobre 2003*, Centre Matteo Bandello, section française AIEO, Centre Matteo Bandello, Agen.
- Desgraves, L., 1998, *Le livre en Aquitaine, XVe-XVIIIe siècles*, Atlantica, Centre régional des lettres d'Aquitaine, Biarritz.
- Dolet, E., 1540, *La manie de bien traduire d'une langve en avltre. D'aduantage. De la punctuation de la langue Francoyse. Plus. Des accents d'ycelle. Le tout faict par Estienne Dolet natif d'Orleans. A Lyon, chés Dolet mesme*, [www.http://gallica.bnf.fr](http://gallica.bnf.fr)
- Droz, E., 1960, *Barthélemy Berton, 1563-1573*, Librairie E. Droz, Genève.
- Dubois, C. G., 1999, *La poésie du XVIIe siècle*, Presses universitaires de Bordeaux, Talence.
- Erasmus, 1992, *Éloge de la Folie, Adages, Colloques, Réflexions sur l'art, l'éducation, la religion, la guerre, la philosophie, Correspondance*, Bouquins, Robert Laffont, Paris.
- Esarte Muniain, P., 2001, *Navarra, 1512-1530, Conquista, ocupación y sometimiento militar, civil y eclesiástico*, Pamiela, Pamplona-Iruña.
- Etxagibel, J., 2008, *Silvain Pouvreuren hiztegiaren iturriak eta testukritikaren metodologia*. DEA-ko lana (UPV/EHU, Joseba Lakarra eta Blanca Urgellek zuzendua). Bertsio zuzendu eta osatua ASJU-ko ale honetan argitaratzen da.
- Etxepare, B. (Echepare) [prib. 1545], 1873, *Poésies Basques de Bernard Decheper d'Eyberal-larre (province de Basse-Navarre), Nouvelle Edition, Absolument conforme à la première de*

- 1545 [Vinsonen edizioa, P. Cazal-en hitzaurrearekin], Bayonne, P. Cazals imprimeur-Libraire, 2 Place du Réduit, 2, Bayonne.
- Etxepare, B. (Dechepare) [prib. 1545], 1933, *Linguae vasconvm primitiae per Dominum Bernardum Dechepare Rectorem sancti michaelis veteris*, Facsímile de la edición de 1545. Tirada aparte de la *Revista Internacional de Estudios Vascos*, Año 27. Tomo 24, n.º 4. Octubre-diciembre de 1933.
- Etxepare, B. (Echepare) [prib. 1545], 1980, *Linguae vasconvm primitiae (Edizio kritikoa), Patxi Altunak paratua*, Mensajero, Bilbao.
- Etxepare, B. (Echepare) [prib. 1545], 1987, *Linguae Vasconvm Primitiae (Edizio kritikoa), Patxi Altunak paratua* [1980ko edizioaren berrargitalpena], Euskaltzaindia, Bilbo.
- Etxepare, B. [prib. 1545], 1995, *Linguae Vasconvm Primitiae...*, lehen euskal liburu inprimatua, Euskaltzaindia, Bilbao, http://euskaltzaindia.fr/dok/iker_jagon_tegiak/13964.pdf
- Etxepare, B. (Dechepare) [prib. 1545], 1995, *Bernard Dextepare, Edición bilingüe, Linguae vasconvm primitiae*, Orain, Egin biblioteka.
- Febvre, L. [1942], 2003, *Le problème de l'incroyance au XVII^e siècle, La religion de Rabelais*, Postface de Denis Crouzet, Albin Michel, Paris.
- & Martin, H.-J. [1958], 1999, *L'apparition du livre*, Frédéric Barbier-en azken hitza, *Bibliothèque de l'Evolution de l'Humanité*, Albin Michel, Paris.
- Gardy, P., 2005, «L'écrit aquitain en occitan au XVII^e siècle. Émergence et premiers développements d'un «modèle» littéraire à Toulouse», in Courouaou, Cubelier de Beynac & Gardy (arg.), 223-237.
- Genette, G. [1987], 2002, *Seuils*, Essais, Seuil, Paris.
- Girot, J.-E., 2004, *Le poète et son œuvre, De la composition à la publication, Études réunies par Jean-Eudes Girot*, Droz, Genève.
- Goyhenetche, J., 1999, *Evolution politique et institutionnelle du XVII^e siècle au XVIII^e siècle*, 2. liburukia, in *Histoire générale du Pays Basque*, Elkarlanean, Baiona.
- Guedet, G., 2004, *L'art de la lettre humaniste*, Textes réunis par Fr. Wild, Honoré Champion, Paris.
- Isasti, L. (Dr. de) [1625], 1850, *Compendio historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipuzcoa*, Ignacio Ramón Baroja, Donostia.
- Jourda, P. [1930], 1978, *Marguerite d'Angoulême, Duchesse d'Alençon, Reine de Navarre (1492-1549), Étude biographique et littéraire*, tome I & tome II, Slatkine Reprints, Genève.
- Juaristi, J., 1987, *Literatura vasca*. Taurus, Madril.
- Kortazar, J., 1996, «Bernard Dextepare bidegurutzean», *Enseiucarrean* 12, 29-31.
- , 1997, *Euskal literaturaren historia txikia*, Erein, Donostia.
- Lafitte, P., 1967, «Quand parut la deuxième Edition de “Linguae Vasconvm Pimitiae”?», *Gure Herria* 39, 348-350.
- Lafon, R., 1951, «La langue de Bernard Dechepare», *BAP* 7, 309-338.
- , 1952, «Notes pour une édition critique et une traduction française des «Linguae Vasconvm Primitiae» de Bernard Dechepare», *BAP* 8, 139-180.
- , 1999, *Vasconiana*, [René Lafonen artikulu bilduma], edizio prestatzaileak: J. Haritschelhar eta P. Charritton, testu hautaketa: H. Knörr, R. Gomez eta J. A. Lakarraren laguntzarekin, aitzin solasa, J. Haritschelhar & P. Salaburu, Euskaltzaindia, IKER 11, Bilbo.

- Leizarraga, I. ([1571, 1900], 1990, *Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc) im genauen Abdruck, herausgegeben von Th. Linschmann und H. Schuchardt, Mit Unterstützung der Kais. Akademie der Wissenschaften zu Wien, Euskaltzaindia, Bilbo.*
- Lejeune, P. [1975], 1996, *Le pacte autobiographique*, Nouvelle édition augmentée, Essais, Seuil, Paris.
- Le Trésor de la Langue Française Informatisé* <http://atilf.atilf.fr/tlf.htm>
- Marot, C. [1538], 1987, *L'Adolescence clémentine*, édition présentée, établie et annotée par Fr. Lestringant, NRF, Poésie/Gallimard, Paris.
- Martin, H.-J. & Chartier, R., 1983, *Histoire de l'édition française. Le livre conquérant. Du Moyen Age au milieu du XVIIe siècle*, Fayard, Paris.
- & Febvre, L. [1958], 1999, *L'apparition du livre*, Frédéric Barbier-en azken hitza, «Bibliothèque de l'Evolution de l'Humanité», Albin Michel, Paris.
- Meigret, L., 1545, *Traité touchât le commvn usage de l'escriture francoise, faict par Loys Meigret, Lyonnois: auquel est debattu des faultes, & abus en la vraye, & ancienne puissance des lettres*, Avec priuilege de la court, 1545, a Paris, De l'Imprimerie de Jeanne de Marnef, veufue de feu Denys lanot, demourant en la rue neufue nostre Dame, à l'enseigne saint Jean Baptiste. [www.http://gallica.bnf.fr](http://gallica.bnf.fr)
- Michel, F. («Francisque Michel» deitua) [1856], 1983, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*, berrinprimatzea, Elkar, Zarautz.
- Mitxelena, K. [1960], 1988, *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia.
- , 1964, *Textos arcaicos vascos*, Biblioteca Vasca VIII, Minotauro, Madril.
- , 1979, «Prólogo» in Fr. M.^a Altuna, *Versificación de Dechepare, Métrica y Pronunciación*, Mensajero, Bilbo, 7-10.
- & I. Sarasola, 1987-2005, *Orotariko euskal hiztegia*, Euskaltzaindia, 16 liburuki. [<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>].
- Mosquera Armendariz, J. A. & Zubizarreta, C., 1974, *Guión manual de tipografía vasco-navarra, Contribución al V centenario de la introducción de la imprenta en España*, Imprenta Navarro, Iruña.
- Navarre, M. (de), 1996, *Poésies chrétiennes. Sagesses chrétiennes*, Cerf., Paris.
- OEH = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).
- Oihenart, A. (d'), ([1665], 1967), *L'Art poétique basque d'Arnaut d'Oyhénart, avec une introduction de Pierre Lafitte*, Édition Gure Herria, Baiona.
- Oliver A., 2001, *Le biographique*, Profil Histoire Littéraire, Hatier, Paris.
- Olivier E. (Dr), Hermal G., Roton (Capitaine de), 1935, *Manuel de l'Amateur des reliures amoriées françaises, Vingt-neuvième série (souverains et princes français) troisième partie: Planches 2614 à 2685*, Charles Bosse, Libraire 16-18 Rue de l'Ancienne-Comédie, Paris.
- Orella, J. L. (de) [1980], 1987, «Mosen Bernart Dechepare», in Altuna (1980), vii-xv.
- Oroz Arizcuren, F. J., 2006, «Girones de una vida abigarrada», *Euskera* 56, 241-356.
- , 2008, «*Linguae Vasconum Primitiae: ¿1545?* Hurgando en una resolución del Parlement de Bourdeaux y en *Debile principium melior fortuna sequatur*», *Jean Haritschelhar-i omenaldia*, *Iker* 21, Euskaltzaindia, Bilbo, 431-472.
- Orpustan, J.-B., 1993, «Bernat Etxepare ta Arnalde Oihenart: ondoriotasunetik harat», *Iker* 8, Euskaltzaindia, Bilbo, 451-466.
- , 1996. *Précis d'histoire littéraire basque, 1545-1950*, Izpegi edizioak, Baigorri.

- Oyharçabal, B., 2008, «Ohar bat literatura historiografiaz: B. Echepeare Erdi Aroko autore?», *Jean Haritschelhar-i omenaldia, Iker* 21, Euskaltzaindia, Bilbo, 491-521.
- Poésies Basques de Bernard Dechepar d'Eyheralzarre (province de Basse-Navarre), Nouvelle Edition, Absolument conforme à la première de 1545*, [Vinsonen edizioa, P. Cazal-en hitzaurrearekin], Bayonne, P. Cazals imprimeur-Libraire, 2 Place du Réduit, 2, Bayonne. <http://www.kultura.ejgv.euskadi.net>
- Preissig, F., 2004, *Clément Marot et les métamorphoses de l'auteur à l'autre de Renaissance*. Geneva, Droz.
- Rabelais, F., 1552, *Le tiers livre des faicts et dictz héroïques du bon Pantagruel composé par M. François Rabelais docteur en medecine. Reveu, & corrigé par l'auteur, sus la censure antique. (...) De l'imprimerie de Michel Fezandat S. Hilaire, à l'hostel d'Albret. 1552 Avec privilège du Roy*. François Bon-ek egin numerizazioan [www.http://un2sg4.unige.ch/athena/rabelais/rab_tier.html](http://un2sg4.unige.ch/athena/rabelais/rab_tier.html)
- Redondo, A. (arg.), 1976, *L'humanisme dans les lettres espagnoles, XIXème colloque international d'études humanistes, Tours, 5-17 juillet 1976*, Etudes réunies et présentées par A. Redondo, Librairie philosophique J. Vrin, Tours.
- Reicher, G., 1958, «Bernard Dechepar a-t-il subi des influences littéraires?», *Gure Herria* 30, 311-317.
- Tory, G. [1529], 1931, *Champ Fleury ou l'Art et Science de la Proportion des Lettres*, 1529eko Pariseko edizio princepsaren erreproduzio fototipikoa, G. Cohenen hitzaurrearekin, oharrekin, indizearekin eta glosarioarekin, Chales Bosse, Paris.
- Urkizu, P., 1999, «Bernard Lehete, euskal mezenas bat Bordelen xvi. mendean», *Lapur-dum* IV, 107-114.
- Urquijo, J. (de), 1907, «El proceso de Dechepar», *RIEV* 1, 369-381 <http://www.euskomedia.org>
- , 1933, «Introducción al *Linguae Vasconvm Primitiae* de Bernard Dechepar (Primer libro impreso en vascuence) por Julio de Urquijo, Director de la Revista Internacional de Estudios Vascos» (Publicación de Eusko Ikaskuntza), Donostia, 5-31.
- , 1933, «Introducción a nuestra edición del “*Linguae Vasconvm Primitiae* de Bernard Dechepar”», *RIEV* 24, 660-684 <http://www.euskomedia.org>
- Villasante, L., 1961, *Historia de la literatura vasca*, Sendoa, Bilbo.
- Villon, F., [Maroten 1533ko arg.], *Les Oeuvres de François Villon de Paris, reueues & remises en leur entier par Clement Marot valet de chambre du Roy. (...) On les vend a Paris en la grant salle du Palais, en la boutique de Galiot du Pre*. [www.http://gallica.bnf.fr](http://gallica.bnf.fr)
- Vinson, J. [t I: 1891; t II: 1898], 1984, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, J. Maisonneuve, Parise, 1984ko birredizioan, L. Mitxelenaren aurkezpen batekin, *ASJU*-ren Gehigarriak, Donostia.

URL loturak

- <http://atilf.atilf.fr/tlf.htm>
- http://euskaltzaindia.fr/dok/iker_jagon_regiak/13964.pdf
- http://fr.wikipedia.org/wiki/Ordonnance_de_Villers-Cotter%C3%AAts
- <http://www.assemblee-nationale.fr/histoire/villers-cotterets.asp>;
- <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/69623.pdf>
- <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>
- <http://www.euskerazaleak.biz>

<http://www.euskomedia.org>

<http://www.http://basqueliterature.com>

<http://www.http://gallica.bnf.fr>

<http://www.http://medievales.revues.org/document969.html>

http://www.http://un2sg4.unige.ch/athena/rabelais/rab_tier.html

<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net>

<http://www.persee.fr/web>

http://www.universalis.fr/encyclopedie/K100801/JANEQUIN_c.htm